

XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

2335

54/2014 DEKRETUA, apirilaren 8koa, Bideo disc-jockey eta Soinuko teknikariaren tituluari dago-kion curriculuma ezartzen duena.

Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 10.1 artikulua ezartzen duenez, Estatuko Administrazio Orokorrak finkatuko ditu Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalan aditzera emandako lanbide-prestakuntzako eskaintzak osatuko dituzten profesionaltasun-ziurtagiriak eta -tituluak, betiere Konstituzioaren 149.1.30 eta 7. artikuluan xedatutakoaren arabera eta Lanbide Heziketaren Kontseilu Nagusiari kontsultatu ondoren.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 39.6 artikulua xedatzen duenez, Espainiako Gobernuak, autonomia-erkidegoei kontsultatu ostean, Lanbide Heziketako ikasketei dagozkien titulazioak ezarriko ditu, baita titulazio horietako bakoitzaren curriculumaren oinarrizko alderdiak ere.

Ekonomia iraunkorraren martxoaren 4ko 2/2011 Legeak eta Ekonomia iraunkorraren Legea osatzen duen martxoaren 11ko 4/2011 Lege Organikoak –Lanbide Heziketaren eta kualifikazioen 5/2002 Lege Organikoa eta Hezkuntzaren 2/2006 Lege Organikoa aldatzen dituenak–, hainbat lege-aldaketa adierazgarri eragin dituzte bestelako ekonomia baten garapena sustatzeko eta bizkortzeko, hau da, ekonomia lehiakorragoa eta berritzaileagoa, produkzio-sektore tradizionalak berritzeko gauza izango dena eta kalitateko enplegu egonkorra eskatzen duten beste jarduera batzuetarantz bidea egiteko gauza izango dena sustatzeko eta bizkortzeko.

Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuaren 9. artikuluan definitzen da lanbide-heziketako tituluen egitura. Horretarako, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala, Europar Batasunak finkatutako jarraibideak, eta gizarte-intereseko beste alderdi batzuk hartu dira kontuan.

7. artikulua titulu horien lanbide-profila zehazten du. Lanbide-profil horretan sartuko dira konpetentzia orokorra, lanbide-konpetentzia, konpetentzia pertsonalak eta sozialak eta, hala badagokio, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalaren konpetentzia-atalak. Horrenbestez, titulu bakoitzak lanbide-kualifikazio oso bat, gutxienez, hartuko du barnean, betiere Lanbide Heziketako tituluak produkzio-sistemaren beharrei eta hiritartasun demokratikoa egikaritzeko aukera emango duten balio pertsonal eta sozialei eraginkortasunez erantzuteko.

Martxoaren 23ko 556/2012 Errege Dekretuak Bideo disc-jockey eta Soinuko teknikariaren tituluak ezartzen du, eta haren gutxieneko irakaskuntzak finkatzen ditu.

Bestetik, hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen 1147/2011 Errege Dekretuaren 8. artikuluen 2. atalak xedatzen duenez, hezkuntza-administrazioek ezarriko dituzte Lanbide Heziketako irakaskuntzen curriculumak. Edonola ere, Errege Dekretu horretan bertan xedatutakoa eta titulu bakoitza erregulatzen duten arauetan xedatutakoa errespetatu beharko dute.

Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko eskumenen esparruari dagokionez, Autonomia Estatutuaren 16. artikuluan aditzera ematen denez, «Konstituzioaren lehen erabaki gehigarrian ezarritakoa aplikatzeko, irakaskuntza, zabalera, maila, gradu, era eta espezialitate guztietan,

Euskal Autonomia Erkidegoaren konpetentziapean dago, Konstituzioaren 27. artikuluan ezarritakoari eta hura garatzen duten lege organikoei, eta 140.1.30 artikulua Estatuari ematen dizkion ahalmenei eta hori guztia betetzeko eta bermatzeko behar den goi inspekzioari kalterik egin gabe».

Bestalde, otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuak hezkuntza-sistemaren barruan Lanbide Heziketa-ren antolamendu orokorra ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoaren esparrurako.

Azaldutako aurrekarien arabera, dekretu honen helburua da Bideo disc-jockey eta Soinuko teknikariaren tituluari dagozkion Lanbide Heziketako irakaskuntzetarako curriculuma ezartzea Euskal Autonomia Erkidegorako, Bideo disc-jockey eta Soinuko teknikariaren titulua ezartzen duen eta tituluaren gutxieneko irakaskuntzak finkatzen dituen martxoaren 23ko 556/2012 Errege Dekretuaren babesean.

Bideo disc-jockey eta Soinuko teknikariaren tituluaren curriculumean alderdi hauek deskribatzen dira: batetik, tituluak adierazten duen lanbide-profila (kualifikazioak eta konpetentzia-atalak zerrendatzen dira, eta konpetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak deskribatzen dira); bestetik, tituluak biltzen dituen helburu orokorren eta lanbide-moduluaren bidez, besteak beste, ezarritako irakaskuntzak (lanbide-modulu bakoitzari dagozkion ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak, eta horiek antolatu eta ezartzeko jarraibideak eta zehaztapenak barne hartuta).

Helburu orokorrak profilean deskribatzen diren konpetentzia profesional, pertsonal eta soziale-tatik atera dira. Haietan, ikasleak heziketa-zikloaren amaieran eskuratu behar dituen gaitasunak eta lorpenak adierazten dira; hortaz, heziketa-zikloa osatzen duten lanbide-moduluetako bakoitzean landu beharreko edukiak eta ikasleak bereganatu behar dituen ikaskuntzaren emaitzak lortzeko lehen iturria dira.

Modulu bakoitzean jasotako edukiak irakatsi eta ikasteko prozesuaren euskarria dira; ikasleak trebetasun eta abilezia teknikoak, etorkizun profesionalean aurrera egiteko kontzeptuzko oinarri zabala eta lortu nahi den kualifikazioarekiko lanbide-nortasun koherentea islatuko duten portaerak eskura ditzan.

Honako dekretu hau bideratzean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikulutik 22. artikulura bitartean aurreikusten diren izapideak bete dira.

Ondorioz, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren proposamenez, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak emandako txostena eta gainerako aginduzko txostenak aztertuta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren arabera, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2014ko apirilaren 8an egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRA

1. artikulua.— Xedea eta aplikazio-esparrua.

1.— Dekretu honek Bideo disc-jockey eta Soinuko teknikariaren tituluari dagozkion Lanbide Heziketako irakaskuntzetarako curriculuma ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegorako.

2.– Ikastetxeak duen autonomia pedagogikoaren eta antolamendukoaren ildotik, hari dagokio bere Ikastetxearen Ikasketa Proiektua ezartzea, eta proiektu horretan ezarriko ditu bere irakas-kuntza-lanaren ezaugarriak eta nortasuna zehazteko, eta lanbide-moduluen programazioak prestatzeari buruzko irizpideak finkatzeko beharrezko erabakiak.

3.– Ikastetxearen Ikasketa Proiektuaren esparruan, heziketa-zikloaren ardura duen irakasle taldeari eta, zehazki, irakasle bakoitzari dagokio programazioak prestatzea. Horretarako, ezar-tzen diren helburu orokorrak kontuan izan beharko ditu, lanbide-modulu bakoitzean bildutako ikaskuntzaren emaitzak eta edukiak errespetatu beharko ditu, eta irakaskuntzen erreferentziazko lanbide-profila hartu beharko du euskarri.

II. KAPITULUA

TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA ETA LANBIDE PROFILA

2. artikulua.– Tituluaren identifikazioa.

Bideo disc-jockey eta Soinuko teknikariaren titulua honako elementu hauek identifikatzen dute:

- Izena: Bideo Disc-jockey eta Soinua.
- Maila: Erdi-mailako Lanbide Heziketa.
- Iraupena: 2.000 ordu.
- Lanbide-arloa: Irudia eta Soinua.
- Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatuko erreferentzia: INSN-3b.

3. artikulua.– Lanbide-profila.

1.– Titulu honen konpetentzia orokorra da: zuzeneko musika- eta ikus-animazio saioak egitea, baita edozein soinu-proiektutan soinua hartu, zuzenean nahastu, grabatu eta erreproduzitzea ere.

2.– Konpetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak.

Honako hauek dira titulu honen konpetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak:

a) Definitzea zer itxura eta eduki izan behar duten zuzenean edo irrati-kate bidez eskaintzen diren musika- eta ikus-animazioko saioak, ikusleen eta enpresako zuzendaritzaren gustura egokituak, eta haiek sustatzea.

b) Zehaztea zer baliabide tekniko eta material behar diren musika- eta ikus-animazioko saioak egiteko, irizpideak erabiliz baliabideak optimizatzeko eta aldez aurretik definitutako objektiboak betetzeko.

c) Jabetza intelektualaren araudia aplikatuta, musika- eta ikus-animazioko saioetan erabiltzen den musika- eta ikus-baliabideen katalogoa eguneratuta mantentzea, eta haiek lortzeko bide egokiak erabiltzea.

d) Musika- eta ikus-fitxategiak lortu, editatu eta prestatzeko teknikak aplikatzea, ikusleen gustuei eta aretoan edo irrati-katean edo animazioko saioetan aurreikusitako egiturari egokitzuz.

e) Planifikatzea zer argiztapen-teknika erabili behar diren zuzeneko musika- eta ikus-animazioko saioetan, eta teknika horiek erabili, aretoko ikusle motekin eta euren itxaropenekin bat etorritik, aretoan ahalik eta ikusgarritasunik handiena lortzeko eta ikuskizuna eta musika ahalik eta osagarrienak izateko.

f) Soinu-proiektuetan eta musika- eta ikus-animazioko proiektuetan, soinu-, irudi- eta argiz-tapen-ekipoak muntatzea, konektatzea eta desmuntatzea, haiek frogatuz eta doituz, erabil daitezkeela bermatzeko.

g) Kalitatezko soinurik onena eta interferentziarik gabekoa lortzea jasotze-prozesuetan, mikrofoniarik egokiena aukeratuz, hura kokatuz eta osagarriak eta pertikak erabiliz.

h) Edozein soinu-proiektutan soinua hartu, zuzenean nahastu, grabatu eta erreproduzitzea, goragoko mailako teknikarien jarraibideak betez.

i) Aurreikusitako plangintzaren arabera, zuzenean nahastea animazio-saioko musika-osagaiak eta irudi finko eta mugikorreko osagaiak, aretoko ikusleen erantzunaren arabera aldatuz eta ego-kituz.

j) Musika- eta ikusi-animazioko saioan zehar sor daitezkeen gatazkak ebaztea, protokolo estandarizatuak aplikatuz.

k) Produkzio-prozesuetako aldaketa teknologikoen eta antolamenduko onorioz sortzen diren lan-egoera berrietara egokitzea, bizialdi osoko ikaskuntzako baliabideak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz.

l) Dagokion konpetentziaren esparruan erantzukizunez eta autonomiaz jardutea, eta esleitutako lana antolatzea eta egitea, lan-ingurunean beste profesional batzuekin talde-lanean edo lankide-tzan jardunez.

m) Bere jarduerari dagozkion gorabeherak arduraz konpontzea eta horien sorburuak identifikatzea, bere konpetentziaren eta autonomiaren esparruan.

n) Eraginkortasunez komunikatzea, lanaren esparruan esku hartzen duten pertsonen autonomia eta konpetentzia errespetatuz.

ñ) Produkzio-prozesuan, laneko arriskuen prebentziorako eta ingurumen-babeserako neurriak eta protokoloak aplikatzea, pertsonen, lan-ingurunearen eta ingurumenaren gaineko kalteak saihestearren.

o) Produkzioko edo zerbitzugintzako prozesuetan bildutako lanbide-jardueretan, kalitate-prozedurak, irisgarritasun unibertsalekoak eta «denontzako diseinukoak» aplikatzea.

p) Enpresa txiki bat sortu eta abiarazteko oinarritzko kudeaketa-lanak egitea, eta dagokion lanbide-jardueran ekimena izatea.

q) Dagokion lanbide-jardueraren ondoriozko eskubideak baliatzea eta betebeharrak betetzea, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera, eta bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturean aktiboki parte hartuz.

3.– Titulu honetan biltzen diren Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrenda:

– Osatutako lanbide-kualifikazioak:

a) Soinu-eragiketak. INSN_2 (1957/2009 Errege Dekretua, abenduaren 18koa). Konpetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:

UC1402_2: soinu-produkzioetan ekipamendua instalatu, muntatu, desmuntatu eta mantentzea.

UC1403_2: soinu-produkzioetan zuzeneko nahasketa-, edizio- eta grabazio-eragiketetan laguntzea.

UC1404_2: soinu-produkzioetan mikrofonoak kokatu eta norabidetzea.

b) Zuzeneko musika- eta ikus-animazioa. IMS434_2 (1957/2009 Errege Dekretua, abenduaren 18koa). Konpetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:

UC1396_2: zuzeneko musika eta irudien bidezko animazio-saioetarako azpiegitura prestatu eta programazio- eta sustapen-lanetan laguntzea.

UC1397_2: zuzeneko musika bidezko animazio-saioak egin, luminoteknia, antzezpena eta irudiak integratuz.

UC1398_2: zuzeneko irudi bidezko animazio-saioak egin, luminoteknia, antzezpena eta musika integratuz.

– Osatu gabeko lanbide-kualifikazioak:

a) Irudi-laboregiko ekoizpen-eragiketak. IMS435_2 (1957/2009 Errege Dekretua, abenduaren 18koa). Konpetentzia-atal hau hartzen du barnean:

UC0928_2: irudiak informatika-aplikazio bidez digitalizatzea eta tratatzea.

4. artikulua.– Lanbide-ingurunea.

1.– Lanbide-figura honek lan egiten du zinema, bideo, telebista, multimedia, irrati, industria diskografiko, ikuskizun eta soinu-tatze-instalazio finkoetako produkzioetarako soinuaren esparruan, enpresa handi, ertain eta txikietan, publikoetan eta pribatuetan, telebista-kateetan, zinema edo bideoko produkzio-etxeetan, irrati-kateetan, disko-etxeetan, bikoizketa-enpresetan, soinu-tatze-enpresetan, ikuskizun-produktoreetan eta musika-ekitaldi publikoen produkzioan diharduten enpresetan, hala nola, musika-taberna eta diskoteka, dantzaleku, kontzertu-areto edo jaialdi, baita hertsiki musika-ekitaldiak ez direnetan ere, hala nola, moda-desfile, publizitate-aurkezpen edo erakustazoketan, eta irudiaren tratamendu digitala lantzen duten enpresa handi, ertain edo txikietan, nork bere kontura edo inoren kontura.

2.– Zeregin eta lanpostu aipagarrienak ondoko hauek dira:

Telebistako soinu-laguntzailea.

Zinema eta bideoko mikrofono-arduraduna.

Musika-kontzertuetako mikrofono-arduraduna.

Ikuskizun eszenikoetako mikrofono-arduraduna.

Zinemako soinu-muntaiako laguntzailea.

Disc-jockeya.

Bideo-jockeya.

Bideo disc-jockeya.

Light-jockeya.

Fotografia digitaletako ukitu-emailea.

III. KAPITULUA

HEZIKETA ZIKLOAREN IRAKASGAIK, ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK, ETA IRAKASLEAK

5. artikulua.— Heziketa-zikloaren irakasgaiak.

1.— Heziketa-zikloaren helburu orokorrak:

a) Zuzenean edo irрати-kate bidez eskaintzen diren musika- eta ikus-animazioko saioetako ikusle- beharrianak baloratzea, enpresa mota ezberdinetan aplika daitezkeen merkataritza- eta sustapen-irizpideak eta abiarazi daitezkeen sustapen-ekintzak kontuan hartuta, musika- eta ikus-animazioko saioen itxura eta edukia definitzeko.

b) Profesional tekniko eta artistikoen funtzio eta profilak aztertzea, saioaren musika-estiloa eta joerak kontuan hartuta, musika- eta ikus-animazioko saioak egiteko beharrezko giza baliabideak zehazteko.

c) Musika- eta ikus-animazioko saioetan erabiltzen diren ekipamendu eta materialak balioestea, eta horien funtzionamendua eta ezaugarriak aztertzea, musika- eta ikus-animazioko saioak egiteko beharrezko baliabide tekniko eta materialak zehazteko.

d) Baliabideak optimizatu eta jarduerak programatzeko irizpideak aplikatzea, estilo-, antolakuntza-, sustapen- eta aurrekontu-helburuak aztertuta, musika- eta ikus-animazioko saioetarako giza baliabideak eta baliabide materialak zehazteko.

e) Musika- eta ikus-animazioko saioetan edo irрати-kateetan erabiltzen diren musika- eta ikus-baliabideen lortzeko beharrak eta modalitateak ebaluatzea, joerak eta baliabide-banatzai-leak aztertuta eta jabetza intelektualaren araudia aplikatuta, areto edo irрати-kateen musika- eta ikus-baliabideen katalogoa eguneratuta mantentzeko.

f) Musika-fitxategiak lortu, manipulatu eta editatzeko teknikak aplikatzea, ikusle mota ezberdinen ezaugarriak eta aretoan edo irрати-katean animazioko saioen egiturak baloratuta, horren behin betiko prestaketa eta edizioarako.

g) Irudi finko eta mugikorra eta ikus-fitxategiak lortu, manipulatu eta editatzeko teknikak aplikatzea, ikusle mota ezberdinen ezaugarriak eta aretoan edo irрати-katean animazioko saioen egiturak baloratuta, horren behin betiko prestaketa eta edizioarako.

h) Musika- eta ikus-animazioko saioetan erabili beharreko argiztapenaren teknikak eta ezaugarriak ebaluatzea, aretoan ahalik eta ikusgarritasun handiena musika eta bideoarekin batera lotuta, saioetan argiztapena planifikatu eta gauzatzeko.

i) Soinu-proiektu guztietan esku hartzen duten soinu-tresnerien ezaugarri tekniko eta operatiboak ebaluatzea, horien beharrezko espezifikotasunak, interrerlazioak, doikuntzak eta egiaztapenak aztertuta, horiek espazioetan muntatu eta konektatzeko.

j) Musika- eta ikus-proiektuetan esku hartzen duten irudi- eta argiztapen-tresnerien ezaugarri tekniko eta operatiboak ebaluatzea, horien beharrezko espezifikotasunak, interrerlazioak, doikuntzak eta egiaztapenak aztertuta, horiek espazioetan muntatu eta desmuntatzeko.

k) Soinu-proiektuetan, eta musika- eta ikus-animazioko saioetan, garraio- eta biltegi-logistikan erabiltzen diren ekipamendu eta materialen manipulazio eta mantentze prebentiborako prozedurak aztertzea, eta norberaren segurtasunari eta materiala kontserbatzeari buruzko protokoloen aplikazioa balioestea, horiek helburu den espazioan muntatu eta desmuntatzeko.

l) Soinu-proiektu eta musika- eta ikus-animazioko saioetako dokumentazio-prozesuak egitea, lanean egon bitartean sortutako dokumentuak, hala nola, grafikoak, riderra, soinu-, musika- eta irudi-fitxategiak, kontserbatzeko beharraz jabetuta, kalitatezko soinu onena eta interferentziarik gabekoa lortzeko.

m) Mikrofonoen eta horien osagarrien ezaugarri tekniko eta operatiboak aztertzea, horien berezitasun, aukera eta mugak soinua jasotzearen helburuarekin lotuta, kalitatezko soinu onena eta interferentziarik gabekoa lortzeko.

n) Soinu-proiektu mota guztietako nahasketa, edizio, grabazio eta erreprodukzio egoeretarako ekipo tekniko eta teknika egokiak hautatzen direla balioestea, horien ezaugarri tekniko eta operatiboetatik abiatuta, soinu-proiektuetan zuzeneko nahasketa, edizioa, grabazio eta erreprodukzioa egiteko.

ñ) Aretoko ikusleen erantzunaren bilakaerari egokitutako teknikak aplikatzea, musikaren eta irudiaren tempo eta erritmoak balioetsita, zuzenean grabatzeko musika- eta ikus-animazioko saioaren musika- eta irudi-osagaiak.

o) Saioan zehar protokolo estandarizatuak erabiltzeko aukera ebaluatzea, horiek aplikatzeko modua eta ondorioak aztertuta, musika- eta ikus-animazioko saioetan zehar gertatzen diren gatazkak ebazteko.

p) Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera baloratzea, soinuaren eta musika- eta ikus-animazioaren alorrean dituzten ezaugarri eta aukerak aztertuta, lanbide-praktikan etengabe eguneratu eta aplika daitezen.

q) Talde-lanak garatzea eta haien antolamendua baloratzea, tolerantziaz eta errespetuz parte hartuz, eta erabaki kolektiboak edo bakarkakoak hartzea, erantzukizunez eta autonomiaz jarduteko.

r) Sormenezko irtenbideak hartu eta balioestea lan-prozesuak garatzean sortzen diren arazo eta gorabeheren aurrean, dagokion jardueran izaten diren gertakariak erantzukizunez ebazteko.

s) Komunikazio-teknikak aplikatzea, zabaldu beharreko edukietara, horien helburura eta har-tzaileen ezaugarrietara egokituta; prozesuaren eraginkortasuna ziurtatzeko.

t) Lanbide-jarduerarekin lotutako ingurumen- eta lan-arriskuak aztertzea, eta horien sorburuekin lotzea, hartu beharreko prebentzio-neurriak oinarritzeko eta dagozkion protokoloak aplikatzeko, nork bere buruari, inguruneari eta ingurumenari kalterik ez egitearren.

u) Irisgarritasun unibertsalari eta «denontzako diseinuari» erantzuteko beharrezkoak diren teknikak aplikatzea eta aztertzea.

v) Ikasteko prozesuan lanaren kalitate-prozedurak eta erreferentziako produkzio-sektorearenak hobetzeko beharrezkoak diren teknikak aplikatzea eta aztertzea.

w) Kultura ekintzailearekin, enpresakoarekin eta ekimen profesionalekoarekin erlazionatutako prozedurak erabiltzea, enpresa txiki baten oinarritzko kudeaketa egiteko edo lan bati ekiteko.

x) Baldintza sozialak eta lanekoak arautzen dituen lege-esparrua kontuan izanda, gizarteko agente aktibo gisa dituen eskubideak eta betebeharrak zein diren jakitea, herritar demokratiko gisa parte hartzeko.

y) Bizialdi osoko ikaskuntzarako dauden baliabideak, eta komunikazio- eta informazio-teknologiak aztertu eta erabiltzea; ikasteko eta ezagupenak eguneratzeko, hobekuntza profesional eta pertsonalerako aukerak antzemanda, eta hainbat egoera profesionaletara eta lanekoetara egokitzeko.

2.– Honakoa da heziketa-zikloa osatzen duten lanbide-moduluen zerrenda:

- a) Soinu-tresneriaren instalazioa eta muntaia.
- b) Soinua jasotzea eta grabatzea.
- c) Soinuaren kontrola, edizioa eta nahasketa.
- d) Bideo Disc-jockey saioak prestatzea.
- e) Zuzeneko musika-animazioa.
- f) Zuzeneko ikus-animazioa.
- g) Irudiaren hartze eta edizio digitala.
- h) Ingeles teknikoa.
- i) Laneko prestakuntza eta orientabidea.
- j) Enpresa eta ekimen sortzailea.
- k) Lantokiko prestakuntza.

I. eranskinean zehaztu da lanbide-moduluen ordu-esleipena eta lanbide-moduluak zein kurtso-tan eman beharko diren.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak arautu ditzakeen heziketa-eskaintzen arabera egokitu ahal izango da moduluen ordu-esleipena eta moduluak zein kurtso-tan emango diren, dekretu honen 10. artikuluan xedatutakoarekin bat eginik.

3.– Lanbide-modulu bakoitzerako, ikaskuntzaren emaitzak (prestakuntzaldia amaitzean ikasleak jakin, ulertu eta egin dezan espero dena deskribatzen dutenak), eta ebaluazio-irizpideak eta eman beharreko edukiak ezartzen dira. II. eranskinean ezarri da hori guztia.

4.– Lantokiko prestakuntzako modulua, bestalde, bigarren kurtso azken hamahiru asteetan garatuko da, eta ikastetxean egindako lanbide-modulu guztien ebaluazio positiboa lortu ondoren egingo da.

5.– Europako Batzordeak ezarritako oinarritzko konpetentziak garatzeko eta sakontzeko gomendioei jarraituz eta lehentasuneko arloekin lotzen den prestakuntzaren garapenaren indarrez, curriculumean Ingeles teknikoa modulua txertatuta landuko da heziketa-ziklo horretan atzerriko hizkuntza, betiere Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

6. artikulua.– Espazioak eta ekipamenduak.

Prestakuntza garatzeko, eta ezarritako emaitzak eta konpetentziak lortzeko gutxienezko espazioak eta ekipamenduak III. eranskinean zehaztu dira.

7. artikulua.– Irakasleak.

1.– IV. eranskinaren 1. atalean ezarri da zeintzuk diren irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena heziketa-zikloko lanbide-modulu bakoitzerako.

2.– Irakaskuntza-kidegoetako irakasleei oro har eskatzen zaizkien titulazioak otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoak dira. Izan ere, Errege Dekretu horrek onartzen du Hezkuntzako maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren irakasle-kidegoetako espezialitate berrietan sartzeko eta eskuratzeko araudia, eta arautzen du Lege horren hamazazpigarren xedapen iragankorrean adierazten den sarrerako aldi baterako erregimena. Irakasleen espezialitateetarako 1. paragrafoan adierazten diren titulazio baliokideak (irakaskuntzaren ondorioetarako) IV. eranskinaren 2. atalean jaso dira.

3.– Irakasle espezialistek eskumena izango dute dekretu honen IV. eranskineko 1. atalean zehaztutako lanbide-moduluak irakasteko.

4.– Irakasle espezialistek otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren 12. artikuluan ezarritako baldintza orokorrak bete behar dituzte irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko. Izan ere, Errege Dekretu horrek onartzen du Hezkuntzako maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren irakasle-kidegoetako espezialitate berrietan sartzeko eta eskuratzeko araudia, eta arautzen du Lege horren xedapen iragankorretatik hamazazpigarrenean adierazten den sarrerako aldi baterako erregimena.

5.– Gainera, lanbide-moduluaren barnean sartutako prozesuen beharrei erantzuten zaiela bermatzeko, irakasle espezialistek, izendapen bakoitzaren hasieran, dagokien lan-esparruan ezagututako lanbide-esperientzia egiaztatu beharko dute, behar bezala eguneratua. Izan ere, izendapenaren aurre-aurreko lau urteetan gutxienez bi urteko lanbide-jarduna frogatu beharko dute.

6.– Hezkuntzakoaz bestelako administrazioetan barnean hartuta dauden titulartasun pribatuko nahiz titulartasun publikoko ikastetxeetako irakasleentzat, titulua osatzen duten lanbide-moduluak emateko beharrezko titulazioak eta eskakizunak Dekretu honen IV. eranskinaren 3. atalean eman dira aditzera. Nolanahi ere, aditzera emandako titulazio horiek lortzeko irakaskuntzek lanbide-moduluen helburuak bete beharko dituzte. Helburu horiek barnean hartuta ez badaude, titulazioaz gain, lanbide-arlo horrekin lotzen den sektorean gutxienez hiru urteko lan-esperientzia frogatu beharko da «ziurtagiri» bidez –irakaskuntzaren emaitzekin inplizituki lotzen diren enpresetan produkzio-jarduerak garatzen hiru urteko esperientzia frogatu beharko du ziurtagiriak–.

IV. KAPITULUA

BESTE IKASKETA BATZUETARAKO SARBIDEAK ETA LOTURA. BALIOZKOTZEAK, SALBUESPENAK ETA EGOKITASUNAK. BALIOKIDETASUNAK, ETA ONDORIO AKADEMIKOAK ETA PROFESIONALAK. URRUTIKO ESKAINTZA ETA BESTELAKO MODALITATEAK

8. artikulua.– Beste ikasketa batzuetarako sarbideak eta lotura.

1.– Bideo disc-jockey eta soinuuko teknikariaren tituluak aukera ematen du erdi-mailako edozein heziketa-ziklotara zuzenean sartzeko, betiere horretarako ezartzen diren onarpen-baldintzetan.

2.– Bideo disc-jockey eta soinuuko teknikariaren tituluak aukera ematen du, halaber, lanbide-arlo bereko goi-mailako heziketa-ziklo guztietan sartzeko, betiere Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuan ezarritako baldintzen arabera, eta proba bidez edo berariazko ikastaro bat gaindituta; baita beste heziketa-ziklo batzuetan sartzeko ere, eskatutako zikloetarako lotura ematen duen batxilergoaren modalitate berekoak direnean.

3.– Azkenik, titulu horrek aukera ematen du Batxilergoko edozein modalitatetan sartzeko, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 44.1 artikuluan eta Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuaren 34. artikuluan xedatutakoaren arabera.

9. artikulua.– Baliozkotzeak, salbuespenak eta egokitasunak.

1.– Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babesean Laneko prestakuntza eta orientabidea modulua edo Enpresa eta ekimen sortzailea modulua gaindituta dituenak modulu horiek baliozkotuta izango ditu lege horren babespeko beste edozein ziklotan.

2.– Hezkuntza-sistemaren antolamendu orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren babesean ezarritako lanbide-moduluen eta maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babesean ezarritakoen arteko baliozkotzeak V. eranskinean adierazten dira.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 27. artikuluan ezarritakoaren arabera, Lantokiko prestakuntza lanbide-modulua osorik edo zati batean salbuestea erabaki ahal izango da, baldin eta heziketa-ziklo honekin lotutako lan-esperientzia egiaztatzen bada, artikulua horretan jasotako baldintzen arabera.

4.– Laneko esperientziaren bidez eskuratutako lanbide-kompetentziak aintzat hartzeko uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuan ezarritako prozeduraren bitartez, titulu honetan barnean hartzen diren kompetentzia-atal guztiak egiaztatu dituztenek Laneko prestakuntza eta orientabidea modulua baliozkotzea eskatu ahal izango dute, baldin eta:

– Gutxienez urtebeteko lan-esperientzia egiaztatzen badute.

– Jarduera prebentiboaren oinarritzko funtzioak betetzeko ezarritako prestakuntzaren egiaztatzea badute –Prebentzio-zerbitzuen erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera emandako egiaztatzea izango da–.

5.– Titulu honen profilarekin lotzen diren kompetentzia-atal guztiak egiaztatu dituztenek Ingeles teknikoko modulua baliozkotzea eskatu ahal izango dute, baldin eta proiektuko lanbide-modulua gainditzen badute. Edonola ere, gutxienez 3 urteko lan-esperientzia egiaztatu beharko dute, uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuaren 40.5 artikuluan xedatutakoaren indarrez.

6.– VI. eranskinean jasotzen da zer egokitasun dagoen Bideo disc-jockey eta Soinuko teknikariaren tituluaren irakaskuntzako lanbide-moduluen eta kompetentzia-atalen artean –horiek baliozkotzeko edo salbuesteko– eta titulu horretako lanbide-moduluen eta kompetentzia-atalen artean, horiek egiaztatzeko.

10. artikulua.– Urrutiko eskaintza eta bestelako modalitateak.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ziklo honetako irakaskuntzak araubide orokorrean ezarritakoaz bestelako eskaintza osoaren modalitatean eta urrutiko irakaskuntzan edo beste modalitate batzuetan eskaini ahal izateko baimena eta eskaintza horren oinarritzko alderdiak (hala nola, moduluen iraupena eta sekuentziazioa) arautuko ditu, hala badagokio.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Titulazio baliokideak eta lanbide-trebakuntzekiko lotespena.

1.– Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren xedapen gehigarrietatik hogeita hamaikagarrenean ezarritakoaren arabera, Hezkuntzari eta Hezkuntzako Erreforma

Finantzatzeari buruzko abuztuaren 4ko 14/1970 Lege Orokorreko teknikari espezialistaren tituluek martxoaren 23ko 556/2012 Errege Dekretuan ezarritako Bideo disc-jockey eta Soinuko teknikariaren tituluaren ondorio profesional berberak izango dituzte. Hona aipatutako tituluak:

Irudi- eta soinu-teknikari laguntzailea, Irudia eta Soinua adarra.

2.– Ondorio profesional eta akademiko berberak izango dituzte maiatzaren 28ko 2037/1995 Errege Dekretuak ezarritako Laborategiko teknikariaren tituluak eta martxoaren 23ko 556/2012 Errege Dekretuak ezartzen duen Bideo disc-jockey eta Soinuko teknikariaren tituluak.

3.– Laneko prestakuntza eta orientabidea lanbide-modulurako dekretu honetan ezarritako prestakuntzak trebatu egiten du laneko arriskuen prebentzioko oinarritzko mailako jardueretarako urtarilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuan ezarritako lanbide-erantzukizunez arduratzeko, baldin eta gutxienez 45 eskola-ordu ematen badira. Errege-dekretu horrek prebentzio-zerbitzuen araudia onartzen du.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Lanbide Heziketako Sailburuordetzak aukera izango du dekretu honen I. eranskinean ezarritakoaz bestelako iraupena duten proiektuak baimentzeko, baldin eta moduluen kurtsoen arberako banaketa aldatzen ez bada eta titulua sortzeko errege-dekretuan modulu bakoitzari esleitutako gutxieneko orduak errespetatzen badira.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko apirilaren 8an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I. ERANSKINA, APIRILAREN 8KO 54/2014 DEKRETUARENA
LANBIDE MODULUEN ZERRENTA, ORDU ESLEIPENA ETA KURTSOA

KODEA	LANBIDE MODULUA	ORDU ESLEIPENA	KURTSOA
1298	1.– Soinu-tresneriaren instalazioa eta muntaia	231	1
1299	2.– Soinua jasotzea eta grabatzea	165	1
1300	3.– Soinuaren kontrola, edizioa eta nahasketa	165	1
1301	4.– Bideo disc-jockey saioak prestatzea	165	1
1302	5.– Zuzeneko musika-animazioa	231	2
1303	6.– Zuzeneko ikus-animazioa	231	2
1304	7.– Irudiaren hartze eta edizio digitala	231	1
E100	8.– Ingeles teknikoa	33	1
1305	9.– Laneko prestakuntza eta orientabidea	105	2
1306	10.– Enpresa eta ekimen sortzailea	63	2
1307	11.– Lantokietako trebakuntza	380	2
	Zikloa, guztira	2.000	

II. ERANSKINA, APIRILAREN 8KO 54/2014 DEKRETUARENA

LANBIDE MODULUAK: IKASKUNTZAREN EMAITZAK,
EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA EDUKIAK

1. lanbide-modulua: Soinu-tresneriaren instalazioa eta muntaia

Kodea: 1298

Kurtsoa: 1

Iraupena: 231 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Ikus-entzunezko ekoizpenetan eta ikuskizunetan soinu-sistemaren ekipamenduak muntatu ditu, eta lan-eremuaren ezaugarriak aztertu eta dagozkion teknikak aplikatu ditu pertsonen eta ekipamenduen segurtasuna bermatzeko.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Soinu-ekipamenduak kargatu eta deskargatu ditu, norbera babesteko ekipamenduen (NBE), ekipamendu kolektiboen neurriak eta zama eskuz manipulatzeko eta babesteko eta lotzeko teknikak aplikatuta, pertsona eta ekipamenduen segurtasuna bermatzeko.

b) Ekipamenduaren zama ezarritako dokumentazio teknikoaren arabera banatu da, garraio-eremua, ondoren deskargatu eta lan-eremuan kokatzea optimizatzeko.

c) Ekipoak kokatu ditu, dokumentazio teknikoa lan-eremuaren ezaugarrietara egokitu du (besteak beste, zirkulazioa eta lan-eremua), eta kontuan hartu ditu norberaren segurtasuna eta ekipamenduaren babeserako neurriak.

d) Anplifikazio-sistema eta soinu-erreprodukzioaren ekipoak muntatu ditu, eta kaxa akustikoak dagozkion estaldura-gunearen eta ezarritako proiektuaren beharrianen arabera orientatu ditu.

e) Egiaztatu du amplifikazio-sistema eta soinu-erreprodukzioaren ekipoen finkatzeek behar bezalako euste- eta finkatze-elementuak erabiltzen dituztela.

f) Behar bezalako zama-kalkuluak eta rigging teknikak aplikatu ditu, ekipamenduak agertoki edo filmaziorako platoon esekitzeko, eta, horretarako, babes-perimetro bat mugatu eta markatu du, pertsona eta ekipoen segurtasuna bermatzeko.

g) Soinu-kontrol eta -nahasketarako ekipoak kokatu eta muntatu ditu, eta kontuan hartu ditu alboetako PA-ekiko distantzia eta angeluazioa eta agertokiarekin ikus-komunikazio onena.

h) Ekipoak bizkortasunez muntatu eta desmuntatu ditu, eta pertsona eta ekipoen segurtasuna babestu du.

2.– Ikus-entzunezko produkzio eta ikuskizunetan soinu-tresneria eta osagarriak konektatzeko beharrezko aurreinstalazio elektrikoa egin du, eta, horretarako, instalazio-proiektuaren zehaztapenak eta pertsona eta ekipamenduen segurtasuna baloratu ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Instalazio elektrikoaren dokumentazio teknikoa lan-eremuaren errealitatearen arabera zuzendu eta eguneratu du.

b) Ekipoek behar duten potentzia elektrikoa faseen artean banatu du, kontsumoa orekatzeko, eta, horretarako, hartunearen kable-sekzioa sistema osoa elikatzeke egokitu du eta argiztapen-zirkuituak eta soinu-zirkuituak bereizi ditu (fase bereiziak).

c) Fasearen edo faseen nahiz neutro eta lurraren egoera egiaztatu ditu koadro elektrikoan, eta, horretarako, tentsioa eta bestelako parametro elektrikoak neurtu eta antzemandako arazoak konpondu ditu, dagokion araudi teknikoaren arabera.

d) Hartune elektrikoa, koadro elektrikoa, gailu automatikoen funtzionamendua (diferentzialak eta magnetotermikoak) eta hartunearen konexioa eta kableen estueraren egoera egiaztatu ditu, indarrean dauden segurtasun-arauen arabera.

e) Koadro elektriko, material, erreminta eta neurtzeko ekipoen manipulazioan eskatutako norberaren segurtasun eta babeserako neurriak aplikatu ditu.

3.– Soinu-kableen azpiegituren (korrante, audio eta kontrolaren) tiratu eta jasotzea egin du; erabilerarako arau teknikoak aztertu, eta horren kontserbazioa eta funtzionamendua bermatzeko teknikak aplikatu ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Kable eta konektore mota ezberdinen egoera fisiko eta estetiko egiaztatu ditu, kolpe edo zikinkeriarik ez dutela ziurtatuta, horien arteko interkonexioa, konexio akastunak edo legez kanpoak ekiditeko. Halaber, aldatu egin ditu hala badagokio.

b) Ekipoen arteko hartune eta linea tiratu ditu (kontrol, seinalea eta bozgorailua); banaka identifikatu ditu muntaian erabilitako kableak; begiztak ekidin ditu; pertsonak, objektuak eta bestelako elementuak oztopatzen ez direla egiaztatu, eta, hala badagokio, seinale moten segurtasun eta banaketarako neurri berriak hartu ditu.

c) Teknikoki egokienak diren lekuetatik tiratu ditu konexio-lineak, eta, horretarako, instalazio-planoak jarraitu eta eszenografiaren eta proiektua parte hartzen duten sistema teknikoaren elkarrekin-tza ekidin du.

d) Kable eta ekipoa jasotzeko sekuentziak antolatu ditu, materiala behar bezala kontserbatzeko, eta horien kalitate elektriko eta mekanikoak eralda ditzaketen ukondo eta tentsioak ekidin ditu.

e) Soinu-ekipoa konektatzeko korrante-kable egokiak egin eta konpondu ditu, hala nola, luza-garriak, erregleta eta egokigailuak, konektore estandar normalizatuak erabilia (Schuko, CEE, CETAC, Powercon eta beste batzuk), eta, ondoren, egiaztatu egin ditu.

f) Ekipoen arteko konexio analogiko edo digitalerako kableak egin edo konpondu ditu (mikrofonoak, mahaiak, prozesadoreak, anplifikadoreak, bozgorailuak, besteak beste), formatuaren estandarra edo transmisio digitalerako protokolo egokiak kontuan hartuta, eta, horretarako, konektore egokiak eta polimetro edo kable-egiaztagailu bat erabili ditu.

g) Ekipoen arteko (audio, bideo eta argiztapenaren arteko) kontrol-seinaleen komunikazio digitalerako kable egokiak fabrikatu ditu, formatuaren estandar edo transmisio digitalerako protokoloaren arabera (Ethernet, RS-232, RS-422, RS-485, DMX, besteak beste), eta, horretarako, konektore egokiak erabili eta ondoren egiaztatu ditu.

h) Hari gabeko ekipoen artean (antenak, booster, splitter eta hargailuak eta beste batzuk) konektatzeko irratimaiztasuneko kableak fabrikatu ditu, eta ondoren egiaztatu egin ditu.

4.— Soinu-sistemaren ekipoen konexioa egin du; sistemaren funtzionamendua egiaztatu, eta seinalearen ezaugarriak eta proiektuaren zehaztapenak aztertu ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ekipoen arteko konexioan audio-seinaleen apantailamendua eta inpedantziak egokitzeko prozesuak ebaluatu eta aplikatu ditu.

b) Seinaleak, besteak beste, interkonexio-panel, azpikutxa eta olagarroen bitartez norabidetu ditu, soinu-proiektuaren dokumentazio teknikoaren arabera.

c) Sistemaren ekipoen arteko konexioa egin du, ekipoen arteko sarrera- eta irteera-seinalerako eskatutako mailen bateragarritasuna egiaztatu ditu, eta sarrera eta irteera egokiak aukeratu ditu, instalazio-proiektuaren ezaugarri eta dokumentazioaren arabera.

d) Audio-ekipoen arteko konexioa konektore mota ezberdinekin egin du, seinale motaren arabeko konexio-egokigailuak erabilia.

e) Ekipoen arteko konexio-lineak markatu eta identifikatu ditu, eta, horretarako, sektoreko ohiko kodeak erabili, eta proiektuan edo riderrean zehaztutakoari kasu egin dio.

f) Zama-kableak bozgorailuetara konektatu ditu, eta kutxa mota, bide kopurua (behea, tartekoa eta altua) eta beharrezko konektore motak hartu ditu kontuan.

g) Sarrera eta irteera maila doitu eta kalibratu ditu, soinu-ekipo bakoitzarena eta kateko ekipo guztiena, seinale-neurgailuen bitartez, instalazioaren kalitatea eta funtzionaltasuna lortzeko.

h) Seinale-fluxua, estaldura eta soinu-presioa (beste parametro batzuen artean) audio-katearen ekipo guztien artean egiaztatu du, eta antzemandako akatsak zuzendu ditu.

5.— Soinu-ekipoen mantentze-lan prebentiboa egin du, eta, horretarako, matxurak antzemateko protokoloak eta ekipoak biltegitratzeko kudeaketa-teknikak aplikatu ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Soinu-sistemaren elementu guztiak garbitu ditu (erreproduktore/grabagailuetako laser len-teak, optikoak, mikrofoia eta kableak, besteak beste), eta, horretarako, fabrikatzaileak adierazitako jarraibideak bete ditu, ekipoaren higiean, estetika eta operatibotasuna mantentzeko.

b) Soinu-ekipoen eta osagarrien egoera fisikoa begiz eta mekanikoki egiaztatu du; berariazko probak egin, eta horien funtzionamendua ebaluatu du.

c) Soinu-ekipoen eta osagarrien funtzionamendu elektrikoa berariazko proben bitartez egiaztatu du (test-seinaleak txertatu ditu), eta funtzionamendua polimetro, seinale-sorgailu eta osziloskopio moduko neurtzeko tresnen bitartez ebaluatu du.

d) Soinu-sistemen ekipoen funtzionamenduak akatsak identifikatu ditu (matxura elektronikoak, konexio arazoak, lur-begiztak eta maila eta inpedantzien desegokitasuna), eta akats horiek zuzendu edo zuzentzeko ekintzak proposatu ditu.

e) Soinu-ekipoen biltegitratzearen kudeaketa eta matxuren konponketarako teknikak aplikatu ditu.

B) Edukiak:

1.— Soinu sistemaren ekipoak muntatu, desmuntatu eta kokatzea.

Kargak eskuz manipulatzeko.

Norbera babesteko ekipamendua hautatzea eta erabiltzea.

Antzoki eta erabilera anitzeko aretoen ezaugarriak identifikatzea: tipologia eta erabilera-arauak.

Riderra eta beharrian teknikoak aztertzea.

Ekipamenduak lan-eremuaren ezaugarrien arabera kokatzea.

Rigging teknikak aplikatzea.

Eslingatu-teknikak aplikatzea:

- Eslingatuaren osagaiak balioestea.
- Eslingatuaren osagaiak kokatzea.
- Bigarren mailako segurtasuna balioestea.
- Eslingen muntaia ebaluatzea.

Truss eslingatua, esekidura-materialak eta indar-faktoreak.

Laneko ekipamenduak.

Plato motak eta ezaugarriak.

Kanpoko kokalekuak: filmaziorako setak.

Agertoki finkoak edo ibiltariak.

Estudioak, kontrol-aretoak eta unitate mugikorak.

Soinu-instalazioen diagramentzako sinbologia eta bloke teknikoen diagramen interpretazioa.

Esekidura-sistema mekanikoak.

Makineria eta ekipamendua: kate-motorrak (eskuzkoak eta elektrikoak), kabestranteak, barak eta agertokiko aireztatzeak, barrak, garabiak; elementuak altxatzeko tresna eta osagarriak.

PA ekipotako aireztatze-sistema bereziak.

Arriskuei aurrea hartzeko lehen faktore gisa, instalazioen eta tresneriaren ordena eta garbitasuna baloratzea.

Antolamenduaren eragiketa-mailako zereginetan laguntzeko interesa izatea.

Informazioa erabiltzaile guztientzat eskuragarri egon behar duen balio handiko baliabide gisa baloratzea.

2.– Soinu ekipoak eta osagarriak konektatzeko aurre instalazio elektrikoa.

Instalazio elektrikoak egitea.

Korronte alferno monofasikoa aztertu eta erabiltzea.

Korronte trifasikoa aplikatu eta erabiltzea.

Soinu-sistemak elikatzeke instalazio elektrikoak aplikatu eta erabiltzea.

Babeserako koadro eta elementuak aztertzea: diferentziala, magnetotermikoa eta fusibleak, besteak beste.

Neurtzeko tresnak erabiltzea: voltmetroak, amperometroak, ohmiometroak, besteak beste.

Korronte elektriko, tentsio, karga, potentzia eta inpedantzia magnitude eta unitateak.

Elikatze elektrikorako kable eta konektore motak eta ezaugarriak.

Korronte trifasikoaren ezaugarriak.

Soinu-sistemak elikatze instalazio elektrikoen ezaugarri teknikoak.

Isolamendua.

Transformadoreak.

Ekipo elektrogenoak.

Lur-hartunea.

Behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoa (BTEE).

Arrisku elektrikoak.

Funtzioak garatzeko ekimena izatea.

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak betetzeko errespetua izatea.

Zorroztasuna neurketa-irizpideak aplikatzean.

3.– Soinu kableen azpiegiturak fabrikatu, tiratu eta jasotzea.

Kableak helburuaren arabera fabrikatzea: elektrizitate-hartunera lotzeko, elkarren artean lotzeko, audio digitalerako, ekipoen arteko komunikazio digitalerako eta haririk gabeko interkonexiorako.

Audio-konektore eta kableen soldadura-teknika.

Sareetako kableen prestaketa- eta krinpazio- teknikak aplikatzea.

Kableak eutsi eta markatzeko sistemak aztertzea.

Kable arruntak biribilkatzeko teknikak aplikatzea.

Mahuka multipareak biribilkatzeko teknikak aplikatzea.

Audio-seinalea: mikroa, linea, bozgorailua, korrontea, sare informatikoa, besteak beste.

Konektore eta soinu-kableen arauak eta ezaugarri teknikoak honako zeregin hauetan:

- Elektrizitate-hartunera lotzea.
- Audio-ekipamendu analogikoen interkonexioa.
- Audio digitala.

Ekipamenduen arteko (besteak beste, audioa, bideoa eta argiztapena) kontrol-seinaleen komunikazio digitala, formatu estandarraren edo transmisio digitalaren protokoloaren arabera.

Hari gabeko sistemetako elementuen interkonexioa.

Autonomiaz jardutea lanak egitean.

Kableak eta erabiltzailearen hartuneak zorrotz etiketatzea.

Autonomia esleitutako lanak egitean.

4.– Ekipoak konektatu eta soinu sistemen funtzionamendua egiaztatzea.

Pantailatzea eta parasito eta interferentzia elektromagnetikoak prebenitzea.

Pantailatutako kableak markatu eta hautatzea.

Bloke-diagramak aztertzea. Egitea.

Soinu-ekipoen arteko konexioa egiaztatzeko errutinak aplikatzea.

Interkonexio-panelen bitartez seinaleak norabidetzea.

Bloke eta mailen diagrama interpretatzea.

Kaxa akustiko autoanplifikatuak eta pasiboak lotzea.

Soinu-sistemen funtzionamendua egiaztatzea.

Ekipo bakoitzaren sarrera- eta irteera-mailak doitzea.

Seinale-iturriekin (besteak beste, CD, MC eta PC erreproduktoreekin) eta grabagailuekin lan egitea.

Iturri-nahasketak egitea, grabatu beharreko seinalearen ezaugarri diren parametroak kontuan hartuta.

Soinu-instalazioaren funtzionamendu globala egiaztatzea.

Linea orekatuak eta ez-orekatuak.

Inpedantziak egokitzea.

Konexio-panelak (patch panel) eta konmutazio-matrizeak. Motak eta ezaugarriak.

Matrize eta banagailu analogikoak edo digitalak.

Seinaleak norabidetzeko teknikak.

Banagailuak eta banatzaileak.

Audio-seinale motak. Ezaugarriak eta parametro estandarrik.

Egokigailuak. Bateragarritasun mekanikoa eta elektrikoa.

Karga-kablea.

Moteltze-faktorea(damping factor). Potentzia galera.

Tentsio etengabeko lineak (transformadorea).

Multianplifikazioa.

Seinale-iturri eta grabagailuekin aritzeko oinarrizko teknikak.

Nahasketa-tekniken ezaugarriak.

Maiztasuna prozesatzeko teknikak, dinamika eta denbora.

Interkomunikazio-teknikak.

Audioko informatikako programetan sarrerako eta irteerako interfazeak.

Antolamenduko taldeekin lankidetzan jardutea.

Erabiltzaile-hartunen eta adabaki-panelen arteko konexioak zorrotz egiaztatzea eta ziurtatzea. Autonomia, garbitasuna eta argitasuna krokisak prestatzean eta esleitutako lanak aurkeztean.

5.– Argiztapen-tresneria mantentzea.

Soinu-tresnerien behar bezalako funtzionamendurako prebentzio-ekintzen azterketa.

Neurtzeko tresneriarekin aritzea: polimetroak, seinale-sorgailuak eta osziloskopioa.

Soinu-tresneria eta osagarrien funtzionamendu elektrikoa berariazko proben bitartez egiaztatzea (test-seinaleak txertatzea).

Tresneriaren funtzionamenduan akatsak identifikatzea:

- Matxura elektronikoak.
- Konexio-arazoak.
- Lur-begiztak.
- Maila eta inpedantziak desegokitzea.
- Beste batzuk.

Soinu-tresneriak gordetzeko teknika egokiak ebaluatzea.

Soinu-tresneriaren mantentze-lan prebentibo eta prediktiboei buruzko teknika eta prozedurak.

Tresneria eta osagarrietan doikuntza zuzentzaileei buruzko teknikak.

Test-seinaleak.

Biltegiaritze-kudeaketa eta matxuren konponketarako teknikak.

Mantentze-lanetarako tresna mekaniko eta elektrikoak: ekipoak ebaluatzeko neurgailuak.

Ekipoen garbiketa teknika.

Tresneriaren prestaketa, zaintza eta mantenuarekiko interesa erakustea.

Segurtasun-irizpideak aplikatzeko interesa erakustea.

2. lanbide-modulua: Soinua jasotzea eta grabatzea.

Kodea: 1299

Kurtsoa: 1

Iraupena: 165 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Mikrofono konbentzionalak espazio eszenikoan doitzen ditu, proiektuaren baldintzei jarraiki eta soinu-iturriaren, lan-eremuaren eta ekipamenduaren optimizazioaren ezaugarriak kontuan hartuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Mikrofonoak agertoki, plato edo kanpoko kokalekuan jarri ditu, direktibitatea, sentsibilitatea eta hartu beharreko soinu motaren arabera (erreferentzia, zuzenekoa, wildtrack eta efektuak, besteak beste), artisten eta bestelako talde teknikoen lana erraztuz.

b) Mikrofonoak agertokian jarri ditu, soinu-jasotzea doitu eta egiaztatu ondoren; hartara, mikrofonoetara bibrazioak iristea eta kableen bitartez maiztasun faltsuak iristea ekidin du. Horrez gain, ez du pertsonaien mugimendua eta eszenaratzea eragotzi.

c) Berrelikadura-arazoak eta soinu-fasearen interferentziak agertzea ekiditen duten soluzio teknikoak aplikatu ditu, eta, besteak beste, soinu-diseinua, soinu-iturri desiragarriak eta ez desiragarriak eta mikrofonoen egoera kontuan hartu ditu.

d) Honako hauek egiaztatu ditu: elikadura-iturrien funtzionamendua (Phantom, hartzailleentzako metagailu eta egokigailuak, besteak beste), On-Off konmutadoreak, iragazkiak, mikrofonoen direktibitatearen graduagailu eta hautagailuak behar den lekuan kokatzea, soinu-jasotzeari ekin aurretik.

e) Aireak ekiditeko osagarriak aplikatu ditu, antipop, esekigailuak, pistola-pintzak eta pertikak, horiek behar dituzten mikrofonoetan, soinuaren jasotze motaren arabera.

2.— Haririk gabeko mikrofonía-sistemak doitu ditu, jardueraren eta pertsonaien ezaugarriak aztertuta eta soinua jasotzeko irrati-maiztasunaren arauak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Haririk gabeko mikrofonía-sistema bakoitzaren maiztasuna doitu du, bata bestearen arteko edo ekipamendu digitaletatik (besteak beste, ordenagailu, telefono mugikor eta radarretatik) etorritako interferentziak eta gainjartzeak ekiditeko.

b) Egiaztatu du ekimenak leku hartzen duen lekuko maiztasun-izendapenei buruzko indarrean dagoen irrati-difusioari buruzko araudia betetzen dela, eta dagokion dokumentazioa kontsultatu du.

c) Transmisore zapalen eta eskuzkoen audio-irabaziak doitu ditu, bai eta hargailuaren irteerako audio-irabazia ere.

d) Mikrofonoa (kapsula) transmisorean (zapalean) konektatu du, pertsonaiari hobekien dagoen lekuan kokatu, eta, besteak beste, jantzi, izerdi, larruazalarekin kontaktuan eta ekintzaren mugikortasunak eragin ditzakeen arazoak ekidin ditu.

e) Haririk gabeko mikrofonoak eta dagozkien zapalak, hargailu eta kableak markatu ditu, sistemak erabiltzean horiek identifikatu eta erabiltzeko.

f) Haririk gabeko mikrofonía-sistemen instalazioa jantzi eta ile-apaingintzaren beharrianekin koordinatu du, mikrofonoak ikusgai geratu eta irudian ager ez daitezen.

3.— Ikus-entzunezko ekoizpenetako soinu-iturriak jasotzen ditu (parte-hartzailleak, interpreteak eta artistak), eta agertokietan eszena bakoitzaren gorabeherak ebazten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Garabi eta pertiken irismena eta mugikortasuna egiaztatu eta doitu ditu, behar bezala funtzionatzen dutela ziurtatzeko, eta zarata, itzal eta gehiegizko transmisioak ekiditeko.

b) Mikrofonoak garabi edo pertikan doitu ditu, erabili beharreko hartze-tekniken eta segurtasun-irizpideen arabera.

c) Soinu-iturriaren jarraipena egin du garabi, pertika teleskopiko eta sistema parabolikoen bitarteko lekualdatzean zehar, eta soinuaren estaldura-angelua ziurtatu du, enkoadraketan interferentziarik sortu gabe.

d) Soinu-jasotzea maila egokian egin du, aurretik eszena-arduradunak markatutako lekuetako soinu-ekintzari jarraiki, eta bizkortasunez erantzun dio parte-hartzaile, interpretetzaile eta artisten edozein aldaketari, bai eta agertokian gertatutako edozein ezustekori ere.

e) Garabian kokatutako monitorearen bitartez jarraitu du aktoreen mugimendua; agertoki edo platoan elkar eragin du, eta mikrofonoaren kokapena zuzendu du, Lan Plangintzan aurreikusita-koarekin alderatuta gertatutako aldaketen arabera.

4.– Riderrean zehaztutako elementu teknikoaren erreferentziazko konfigurazioa eta doikuntza egin ditu, eta horien aukera tekniko eta operatiboak grabazioaren kalitate gorena lortzearekin lotu ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ekipamendu tekniko egokiak hautatu ditu proposatutako soinua jaso eta grabatzeko.

b) Hautatutako elementuak konfiguratu ditu soinua jaso eta grabatzeko, proiektuaren dokumentazioak ezarritako irizpideen arabera.

c) Audio-fitxategiaren formatua, grabazio-kalitatea (laginketa-maiztasuna eta kuantifikazioa) eta konfigurazio monoa, estereo edo multikanala aukeratu du.

d) Elementu guztietan seinalearen presentzia eta kalitatea egiaztatu ditu, monitorizazio akustikoaren (monitore edo entzungailuen) eta bisualaren (bumetro eta pikometroen) bitartez.

e) Soinu-plano bakoitzarentzako grabazio-maila egiaztatu du, grabagailuaren gutxieneko eta gehieneko mailak ez gainditzeko eta soinuaren distortsioa eta zarata gehigarriak ekiditeko.

5.– Grabazioaren kontrol teknikoa zuzenean egin du, jasotako seinalearen kalitatea ebaluatuz eta agertokiko aldaketa edo ezustekak kontuan hartuz, soinuaren grabazioan ahalik eta kalitate gorena bermatze aldera.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Espazioaren soinu-ezaugarrien arabera eta proiektuaren helburuekin bat etorruta, grabatzeko ingurune tekniko egokiena aukeratu du.

b) Ingurunea akustikoki tratatu du, eta beharrezko espazioak isolatu eta egokitu ditu, ekoizpenarenak ez diren zaratak ekidin, eta soinua behar bezala jaso eta grabatzeko.

c) Seinaleak monitorizatu ditu, lehendabizi banaka, eskatutako kalitatea dutela egiaztatzeko, eta, ondoren, elkarren artean konbinatuta, fasean arazorik ez dagoela, maila egokia duela eta distortsioa gutxienekoa dela ziurtatzeko, beste hainbat parametroen artean.

d) Beharrezko prozesadoreak aplikatu ditu (maiztasun, dinamika eta denborazkoak), eta horien parametroak doitu ditu gerta daitezkeen egoera kritikoei aurre egiteko.

e) Ekitaldiaren kontrolean sortutako ezustekoak konpondu ditu, besteak beste, inguruko zarata-mailaren aldaketak eta zenbait musika-instrumentu edo -ekiporen ezusteko deskonexioak, eta akatsak edo mikrofonía manipulatzeari sortutako aldaketak konpentsatu ditu.

f) Grabazioan zehar maila-doikuntza optimizatu du, grabatutako materialak ondoren emango dituen urrats, prozesu, fase, eraldaketa edo tratamenduak kontuan hartuta.

g) Grabatutako soinu-seinalea baliozkotu du, entzuteko sistema egokienak eta seinalearen parametroak neurtzeko ekipak erabiliz.

h) Audio-fitxategiari dagokion dokumentazioa sortu du, eta edukia, formatua, kalitatea eta bes-telako gertaera esanguratsuak zehaztu ditu.

B) Edukiak:

1.— Mikrofonia konbentzionala espazio eszenikoan kokatu, egiaztatu eta doitzea.

Mikrofonoen dokumentazio teknika interpretatzea.

Mikrofonoak agertoki, plato edo kanpoko kokalekuan jartzea, direktibitate, sentsibiltate eta jaso beharreko soinu motaren arabera (erreferentzia, zuzenekoa, wildtrack eta efektuak, besteak beste)

Mikrofonoen osagarriak manipulatzeko, jaso beharreko soinu motaren arabera.

Mikrofonoak agertokian norabidetzea, soinuaren jasotzea doitu eta egiaztatuta.

Berrelkadura-arazoak eta fase akustikoaren interferentziak ekiditeko soluzio teknikoak apli-katzea.

Mikrofonoen elikadura-iturria, On-Off konmutadoreak, iragazkiak, graduagailuak eta direktibo-tasun-hautagailuen funtzionamendua egiaztatzea.

Eremu askea eta erreberberazio-eremua.

Mikrofonoen ezaugarriak: direktibotasuna, seinale eta zarataren arteko lotura, maiztasunaren erantzuna, sentsibiltatea eta inpedantzia.

Mikrofonoen funtzionamendua:

– Transdukzio akustiko-mekanikoaren printzipioa (presiokoa eta presio-gradientekoa).

– Transdukzio mekaniko-elektrikoa (dinamikoak edo bobinakoak, mugikorak, zintakoak, kon-dentsadorekoak eta kondentsadore elektretakoak).

Arreta mikrofonoak manipulatzeko.

Osagarriak:

– Lurzoru eta mahaletako euskarriak, pintzak.

– Pintzak, esekigailuak.

– Antipop iragazkiak, airearen kontrakoak.

Mikrofonoan bertan kokatutako konmutadoreak: iragazkiak, graduagailuak eta direktibo-tasun-hautagailuak.

Soinua jasotzeko teknikak eta ezaugarri operatiboak.

Soinu-iturriak kontuan hartuta mikrofonoak kokatzeko eta bideratzeko teknikak.

Fase akustikoa. Polaritate elektrikoa:

Kontzeptua eta soinu-plano motak.

Arriskuei aurrea hartzeko lehen faktore gisa, instalazioen eta tresneriaren ordena eta garbita-suna baloratzea.

Instrumentuen erabilera zaintzea eta erantzukizunez jokatzeko.

Konexioak zorrotz egiaztatzea.

2.– Hari gabeko mikrofonía sistemak prestatu, kokatu, doitu eta erabiltzea.

Hari gabeko mikrofono-sistemaren ezaugarriak interpretatzea.

Hari gabeko mikrofono-sistema bakoitzaren maiztasuna doitzea.

Irratian indarrean dagoen araudia betetzen dela ziurtatzea.

Ekintza eta pertsonaien ezaugarriak aztertzea, mikrofonoak behar bezala kokatzeko.

Mikrofonoa transmisoreari konektatzea.

Antena emisoreen, hartzaileen eta euren osagarrien ezaugarriak aztertzea.

Hari gabeko sistemetan maiztasuna doitzea.

Interferentziak eta gainjartzeak zuzentzea.

Arazoak edo ezustekoak aztertzea.

Hari gabeko sistemetan irabazia doitzea:

- Zapaleko edo eskuzko transmisoreetan.

- Hargailuaren irteera.

Mikrofono, zapal, hargailu eta kableak markatzea, horiek errazago identifikatu eta erabiltzeko.

Mikrofonía-sistemaren instalaziorako atrezzoaren batera koordinatzea, mikrofonoak ikus ez daitezen.

Irrati-maiztasunaren printzipioak:

- Transmisioa eta jasotzea.

- Antenak: igorleak eta hartzaileak.

- VHF eta UHF maiztasun-bandak.

- Seinalea modulatzeko: AM eta FM.

Hari gabeko mikrofono-sistemak:

- Deskribapena eta motak.

- Kontzeptu operatiboak.

- Erabileraren alde onak eta txarrak.

Lavaliers mikrofono-kapsula motak eta eusteko moduak (diadema, euskarri magnetikoak, klip modukoak eta osasun-zintarekin itsasteko teknikak, besteak beste).

Espainiako irratí-maiztasunari buruzko araudia.

Arriskuei aurrea hartzeko lehen faktore gisa, instalazioen eta tresneriaren ordena eta garbitasuna baloratzea.

Instrumentuen erabilera zaintzea eta erantzukizunez jokatzeko.

Konexioak zorrotz egiaztatzea.

Eskuliburu teknikoen espezifikazioak aztertzea.

3.– Ikus-entzunezko produkzioetako soinua jasotzea.

Garabi eta pertikak erabili eta mantentzea.

Irismena eta mugikortasuna egiaztatzea, zarata, itzal eta gehiegizko transmisioa ekiditeko.

Ikus-entzunezko (zinema, bideo eta telebistako) ekoizpenetarako soinu-iturriaren jarraipena egitea, honako kasu hauetan:

- Aktore edo bestelako soinu-iturriak jarraitzea.
- Agertoki edo plato batean elkar eragitea.
- Mikrofonoaren kokalekua zuzentzea, ezustekoen arabera.

Mikrofonoak garabian doitzeta, hartze-tekniken eta segurtasun-irizpideen arabera.

Soinuaren jasotzea behar bezalako mailetan egitea.

Garabiak:

- Motak eta ezaugarriak.
- Funtzionamendu mekanikoa eta mantentze-lanak.

Pertikak:

- Motak eta ezaugarriak.
- Erabilera-teknika.

Mikrofonoak garabi eta pertiketan eusteko teknika.

Garabi, pertika, jirafa eta lurzoruko euskarriekin lan egiteko teknikak.

Soinu-iturriaren jarraipena egiteko teknikak:

- Askea.
- Eszena-arduradunak markatutakoaren arabera.

Jarraipena egiteko ekipoak hautatzeko irizpideak.

Instrumentuen erabilera zaintzea eta erantzukizunez jokatzeta.

Ordena metodologikoa lan-prozesuen garapenean.

Sortuko diren ezustekoei irtenbidea bilatzeko ekimena erakusteta.

4.– Soinua grabatzeko elementu teknikoen erreferentziazko konfigurazioa eta doikuntza.

Ekipamendu tekniko egokiak hautatzeta proposatutako soinua jaso eta grabatzeko.

Soinua jaso eta ondoren grabatzeko hautatutako elementuak konfiguratzeta.

Jasotze-grabatze fluxu-diagramak egitea.

Audio-fitxategiaren formatua, grabazio-kalitatea (laginketa-maiztasuna eta kuantifikazioa) eta konfigurazio monoa, estereoa edo multikanala aukeratzea.

Seinalearen presentzia eta kalitatea egiaztatzea, monitorizazio akustiko eta bisualaren bitartez.

Grabazio-mailak egiaztatzea.

Audio-kontrola egitea nahaste analogikoetarako mahaietan, nahaste birtualetarakoetan eta DAW lan-estazioetan.

Seinalearen kontrola egitea, sistema elektroniko eramangarrietan.

Audio-seinalea grabatzea, euskarri magnetiko analogikoetan, euskarri digitaletan eta soinu-grabagailu mugikorretan.

Jasotze-grabatze fluxu-diagramak.

Seinale- edo soinu-iturriak: mikro-maila eta linea-maila.

Audio-seinalearen kontrolagailuak:

- Nahaste-mahai analogikoa. Erabilera eta funtzioak. Trim, EQ, faders, pan, aux, send eta bus.
- Nahaste birtualerako mahaia eta DAW lan-estazioak.
- Zinema, bideo eta telebistarako soinua jasotzean erabiltzen diren sistema elektroniko mugikorak: nahasgailu mugikorak, monitorizazio-sistema mugikorak, iragazte-unitate mugikorak, ekualizadore mugikorak.

Grabazioa:

- Euskarri magnetiko analogikoa.
- Euskarri digitalak.
- Soinu-grabagailu mugikorak.

Soinu-sentsazioaren neurketa. Potentzia edo intentsitateari dagozkien magnitude akustikoak:

- Dezibela (dB). Motak.

Audio-maila estandarrak:

- Maila arrunta.
- Maila profesionala.

Neurgailu motak:

- Bumetroa.
- Pikometroa (PPM - Peak Program Meter).

Eskala motak: VU (RMS) eta dBFS.

Seinalea/zarata erlazioa (S/N). Dinamika. Lerrun dinamikoa. Headroom.

Instrumentuen erabilera zaintzea eta erantzukizunez jokatzeta.

Konfigurazioa eta doikuntza zorrotz egitea.

Taldeko lanarekiko konpromisoa, nork bere erantzukizuna hartuz.

5.– Zuzeneko soinua grabatzeko kontrol teknikoa.

Espazioaren soinu-ezaugarrien arabera eta proiektuaren helburuekin bat etorrita, grabatzeko ingurune tekniko egokiena aukeratzea.

Soinua jasotzeko egokitzapen akustikorako osagarriak instalatzea.

Kokalekuaren ezaugarri akustikoak neurtu eta egiaztatzea:

Soinua jasotzeko barrutien ezaugarri akustikoak premia teknikoetara egokitzea.

Seinale akustikoak monitorizatzea (banakakoa eta konbinatua):

- Fase-arazoen kontrola eta zuzenketa.

- Maila eta distortsioa gainbegiratzea.

Neurketa akustikoak egitea, sonometro, analizatzaile, RTA, RT60 eta bestelakoak erabiliz.

Beharrezko prozesadoreak aplikatzea (maiztasun, dinamika eta denborakoak).

Maila aldaketa bortitzak orekatzea.

Maila-doikuntzak erregistroan zehar optimizatzea.

Grabatutako soinu-seinalea baliozkotzea, entzuteko sistemen bitartez.

Soinu-formularioak erabiltzea (track sheet).

Grabaziorako ingurune akustikoa. Neurri-unitateak.

Soinu-uhinen intentsitatea:

- Uhin baten intentsitate, foku-igorlearen distantzia eta uhinaren anplitudearen arteko lotura.

- Soinu-moteltzea eta xurgatzea.

- Pertzepzio-tartea.

- Uhin infrasoniko eta ultrasonikoak.

Soinu-uhinen sorrera: desplazamendu-anplitudea (desplazamendu-uhina) eta presio-anplitudea (presio-uhina).

Ikus-entzunezko produkzioetarako audio-erregistroaren ezaugarriak.

Mikrofono-teknikak.

Grabazio-teknikak.

Grabazio-fasean seinalearen prozesatze-teknikak.

Grabazio-prozesuaren dokumentazioaren zehaztasunak: edukia, formatua, kalitatea eta gertaera esanguratsuak.

Instrumentuen erabilera zaintzea eta erantzukizunez jokatzeko.

Kalitatearekiko konpromisoa lana garatzean.

Sektoreko teknologiarekiko interesa erakustea.

Eragiketak zorrotz egitea.

3. lanbide-modulua: Soinuaren kontrola, edizioa eta nahasketa

Kodea: 1300

Kurtsoa: 1

Iraupena: 165 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Kontrol, edizio eta nahasketarako ekipamendu eta softwarea doitu ditu; denbora-kodeak aplikatu ditu, maisu/morrori erlazioa, MIDIren erabilera eta soinu-tresneriaren behar bezalako sinkronizazioan esku hartzen duten bestelako parametroak ere.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Audio-seinalearen mailak nahasgailuan doitu eta kalibratu eta grabagailuan eta ekipamendu periferikoetan egiaztatu ditu, aurreikusitako kalitate-parametroak kontuan hartuta (seinale-zarata erlazioa, sabai dinamikoa eta iturriaren dinamika, besteak beste).

b) SMPTE/EBU denbora-kodearen (TC) seinalearen formatua hautatu du, eta, berori erabiliko duten ekipamenduen maila doitu, eta horrek ekipamendu ezberdinetan funtzionatuko duela egiaztatu du.

c) Word Clocka eskatzen duten ekipo digitalen maisu-morroli lotura konfiguratu du, horien arteko behar bezalako sinkronizazioa bermatuta.

d) MIDI sarrera/Thru/irteera konexioak egin ditu, eta berori erabiliko duten ekipamenduak programatu eta ekipamendu horien kontrolak behar bezala funtzionatzen duela egiaztatu du.

e) Soinu-interfazearen sarrera eta irteerak edizio-softwarearekin konfiguratu ditu; hardware edo softwarean mailak doitu, eta behar bezala funtzionatzen duela egiaztatu du.

f) Ekipamendu digitalak ezarritako ordenaren arabera piztu eta itzali ditu; ekipamendu digitalak behar bezala abiarazi direla egiaztatu du, eta maisu-morroli hierarkia aintza hartuta, konfigurazio- edo datu-galera ekidin du.

g) Ekipamendu digitalak elkar komunikatu eta sarean onartu ditu, sarerik balego, eta konfigurazioa eta konexioak egiaztatu ditu.

2.– Ikuskizun edo ekitaldia zuzenean garatzen ari den bitartean audioaren nahasketa eta prozesatzea egin eta kontrolatzen ditu, eta gerta daitezkeen ezustekoen aurrean bizkor eta eragin-kortasunez jokatu du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Soinu-erreprodukzioaren materialak (CD, DVD, bideo, soinu-fitxategiak eta bestelakoak) ordenatu, identifikatu eta sailkatu ditu, zuzenean nahastu edo horiek editatzeko.

b) Soinuaren proba tekniko/artistikoa egin du, instrumentu edo musikari bakoitzaren sarrera-kanalaren irabaziak birdoitu, emandako seinale baterako maiztasun-banda batzuetan ahuldurak, indartzea eta erresonantziak aplikatu eta kanal-ekualizadorearekin zuzenketak egin ditu seinalearen ulergarritasuna eta kalitatea areagotzeko.

c) Dinamikazko prozesadoreak eta denbora-efektuak erabili ditu, beharraren arabera; seinalearen lerrun dinamikoa kontrolatu, eta seinalea denbora-espazioan kokatu du.

d) Soinu-proiektuaren soinua nahastu du, eta, horretarako, seinaleekin aritu da nahasketa-mahaian, hala nola kanalak mututu edo desmututzea, instrumentuak panoramizatzea, PFL edo Solo funtzioak erabiltzea, seinaleen mailak monitorizatzea eta nahasketa artistikoa egitea, soinu-proiekturako soinu homogeneo egokia lortzeko.

e) Egoera konplexuetan ekintza aurreikusi du, gidoiari jarraiki; hurrengo ekintzei aurre hartu, eta ekintzari hasiera eman dio, teknikariari ahoz esanda edo keinu-komunikazio estandarren kodeak aplikatuta.

3.– Grabatutako soinua software-tresnak aplikatuz editatu du, proiektuaren komunikazio-helburuak lortzeko.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Soinu-fitxategiak editatzeko beharrezko sistema informatikoak konfiguratu ditu (soinu-txartelak, ordenagailuak eta soinua eta irudia monitorizatze sistemak), eta soinu-fitxategiak editatzeko beharrezkoak diren gainerako ekipamenduekin konektatu ditu.

b) Grabatutako jatorrizko materialaren babeskopia egin du, eta fitxategiak fisikoki beste gailu batean gorde direla egiaztatu du, ekipamenduek akats batengatik proiektua oso-osorik ez galtzeko.

c) Proiektuaren soinu-fitxategiak baloratu ditu, aukeratze-entzuketaren bitartez; editatu behar diren instrumentu edo soinu-iturriak definitu, eta, fitxategien eta egin beharreko lanen zerrenda eginda, ordenagailuan karpetetan antolatu ditu.

d) Audio-pistak ezabatu ditu, zarata edo soinu ez desiragarriak kendu ditu, soinu-proiektuaren edizio eta nahasketa prozesuan zehar arazorik ez emateko.

e) Soinu-proiektua editatu du: soinu-fitxategiak normalizatu eta pistak lekualdatu ditu denbora kokatzeko, hasierako eta amaierako hutsuneak ezabatu eta soinu-segmentuak ebaki eta itsatsi ditu, sekuentzia edo pista bakarra sortu eta pisten artean itzaltzeak (crossfade) egin ditu.

f) Pista edo soinu-segmentuak prozesatu ditu: beharrezko berariazko efektuak aplikatu ditu (konpresioa, hedatzea eta AutoTune, besteak beste), soinu-proiektuaren eskakizunen arabera.

g) Soinu-proiektuaren amaierako nahasketa egin ondoren, erreprodukzio, masterizazio eta biltegiratze egokiena lortzeko formatuan gorde, edo esportatu eta babeskopia bat egin du.

4.– Monitoreetara egindako bidalketak konfiguratu eta doitu ditu, bai eta horien erantzuna ere; hartara, egiaztatu du estaldura presioari eta maiztasunari dagokienez uniformea dela eta berrekadura arazorik ez duela, eszenako protagonisten beharrezko erantzunda.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Hartzaileetako bakoitzak (aktore, musikari, abeslari eta txostengileek) monitorearen entzuten duela egiaztatu du, soinuaren erreferentzia egokia dutela ziurtatzeko.

b) nahaste-mahaitik agertokiko monitoreetara egindako bidalketak konfiguratu ditu, hala behar duen hartzaileetako bakoitzeko (aktoreak, musikariak, kantariak eta txostengileak, besteak beste) aparteko entzute bat bermatzeko.

c) Bidalketa bakoitzari nahasketa egin dio, beharrezkoak dituen seinaleekin, eta ikuskizunean zehar aldatu ditu, hala badagokio, artistek erreferentziako soinuarekin eroso senti daitezen.

d) Bidalketa bakoitzaren soinu-presioa doitu du, hartzaile bakoitzarentzako (aktoreak, musika-riak, kantariak eta txostengileak, besteak beste) maila egokia ziurtatzeko, guztiek entzuteko erreferentzia ezin hobea izango dutela bermatuz.

e) Agertokian atzeraeragin akustikoa produzitzen duten maiztasunak ezabatu ditu hainbat teknikaren bitartez, hala nola, mikrofono egokiak aukeratuz eta ipiniz, monitoreak kokatuz eta maiztasun-erantzuna aldatuz.

5.– In Ear monitaziorako sistemak doitu ditu horiek behar dituzten artistentzat; kontuan hartu du horiek kamuflatzea, eta beharrezko nahasketa egin du, parte-hartzaile bakoitzak dagokion erreferentziako seinalea ahalik eta hoberen entzun dezan.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Honako hauek egiaztatu ditu: konexioak eta antenaren eraginkortasuna, In Ear entzungailuak eta aktore edo artista bakoitzaren zapal hartzailea.

b) In Ear motako entzungailua ipini dio artista edo parte-hartzaileari, eta entzungailu eta zapalaren doikuntzak ziurtatu direla egiaztatu du, nahiz eta pertsonaia agertokian zehar mugitu.

c) Entzungailuak kokatzean, jantzi eta ile-apaindegiko arduradunekin koordinatu da, egoera bakoitzerako.

d) Transmisioa eta transmisio-kanalaren jasotzea nahiz In Ear monitorizazio-sistema bakoitzaren jasotzea egiaztatu ditu.

e) Nahasketa eta maila doitu ditu, artista edo parte-hartzaileari soinuaren kalitatea bermatu dio, eta, horretarako, beharrezko proba teknikoak egin, seinalea monitorizatzeko beste hargailu bat erabili eta nahasketaren kalitatea berezko transmisorean egiaztatu du, artistak duen entzungailu berbera erabilita.

6.– Nahasketa-mahaiaren kanalen banaketa proiektuaren garapen eta dokumentazioaren araber planifikatu du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Bloke-diagrama edo kanal-zerrendaren bitartez planifikatu du konexioa, soinu-proiektuaren baldintza tekniko eta artistikoak betetzen direla egiaztatuta.

b) Soinu-proiektu bat garatzeko ekipamendu osoaren zerrenda egin du (bozgorailuak, kableak, mahaiak, prozesadoreak, rack, proiektagailuak, pantailak eta tripodeak, besteak beste).

c) Proiektuari dagokion dokumentazioa eguneratu du, eta antzokiko eskuliburuetan islatu ditu konexio-diagramak, bloke eta plano-diagramak eta gertatutako aldaketa guztiak.

d) Sarrerak (oinak) planifikatu ditu, liburu edo gidoi teknikoa kontsultatuta, eta, hala badagokio, eguneratu egin du, mikrofonoen aldaketak (jantzi-aldaketen arabera), soinu-planoak eta aktoreen eta bestelakoen sarrerak gehitzeko, entseguetan eta ikuskizunean bertan erabiltzeko.

B) Edukiak:

1.– Kontrol, edizio eta nahasketarako ekipamendu eta softwarea doitzea.

Audio-seinalearen mailak doitu eta kalibratzea.

SMPTE/EBU denbora-kodeak erabiltzea.

Word Clockekin sinkronizatzea: maisu-morroi erlazioa.

MIDI sarrera/Thru/irteera konexioak.

Soinu-interfazearen sarrera eta irteerak edizio-softwarearekin konfiguratzea.

Kodeen arteko konbertsioa.

Formatu-aldaketarako softwarea erabiltzea.

MIDI: MTC.

Audio digitaleko sareak.

Konexio-diagramak eta konfigurazioa.

Sistemaren sarrera eta irteeren ezaugarriak.

Audio-formatuak: motak eta ezaugarriak.

Merkatuan sistema eragileen gainean gertatzen diren aldaketetara egokitzea.

Aurrerapen teknologikoen gaineko interesa.

Ezarrita dauden jardun-arauak eta -prozedurak betetzea eta errespetatzea.

2.– Audio nahasketa eta prozesatua egin eta kontrolatzea.

Seinale-iturriekin lan egitea.

Fitxategi informatikoak eta erreprodukzio-zerrenda edo playlistak prestatzea.

Nahasketa-mahaiekin lan egitea. Analogikoak. Digitalak. Kontrol-azalerak.

Seinale-prozesadoreekin lan egitea. Maiztasuna. Dinamika. Denbora.

Entzumen-entrenamendua.

Tartekatze eta bidalketen bitartez oinarritzko nahasketak egitea.

Nahasketa-prozesuan pluginak hautatzea.

Soinua anplifikatzea. Aurreanplifikadoreak. Potentzia-anplifikadoreak.

Dinamikako prozesadoreak eta lerrun dinamikoa.

Soinuaren erradiazioa. Bozgorailuak. Kutxa akustikoak.

Nahasketa-mahai motak.

Nahasketa-teknikak. Aurrenahasketak.

Mututu/desmutu funtzioak, panoramizatua, PFL/Solo eta seinalearen monitorizazioa.

Nahasketa egitean gidoiaren gidalerroak.

Prozesuan zehar agertzen diren arazoei irtenbidea bilatzeko interesa.

Zereginak zorrotz egitea.

Produktuaren kalitatearekiko interesa izatea.

Sistema informatikoak konfiguratzeko eta aurretik grabatutako soinua editatzeko.

Sistema eragilea konfiguratu eta optimizatzea audio digitala editatzeko.

Proiektuaren soinu-fitxategiak aukeratze-entzuketaren bitartez baloratzea.

Audio-pistak garbitzea eta zarata edo soinu ez desiragarriak ezabatzea.

Soinu-proiektua editatzeko: fitxategiak normalizatzea, denbora alienatzea, soinu-segmentuak ebaki eta itsastea eta itzaltzeak egitea.

Pistak edo audio-segmentuak prozesatzea, beharrezko berariazko efektuak aplikatuta.

Soinu-proiektuaren amaierako nahasketa ondoren erreproduzitu, masterizatu eta biltegitzako formatu egokienean esportatzea.

Grabatutako jatorrizko materialaren babeskopia egitea.

Audio digitalaren hardwarea.

Audio/MIDI txartel eta interfazeak.

Ezaugarri teknikoak eta aukerak: audio-sarrera eta -irteerak; linea lerrokatuak eta lerrokatu gabeak; konektoreak; konexio digitalak; aurreinplifikadoreak; AD/DA konbertsoreak; sinkronizazioa; Hostarekin konektatzea; kanal kopurua MIDI konexioetan.

Biltegitzako gailuak: disko gogorra, DVDA, CDa eta USB memoria, besteak beste.

Audio-fitxategiak editatzeko teknikak.

Aplikazio berrien bilakaera ezagutzeko interesa izatea.

Kalitatearekiko konpromisoa lana garatzean.

4.– Monitoreetara egindako bidalketak muntatu, konfiguratu eta doitzeko eta monitore horien erantzuna.

Agertokiko monitoreen konfigurazioa eta kokapena.

Monitoreen kokapena eta angeluak.

Nahasketa-mahaitik egiteko bidalketak konfiguratzeko.

Monitoreentzako nahaste-teknikak aplikatzea.

Monitoreak ekualizatzea.

Ekualizadore grafikoak eta parametrikoak aplikatzea.

Akoplatzeak ekiditeko mikrofonia eta monitoreak aukeratzea.

Konexio-diagramak: mahai-monitore bidalketak.

Entzuketara onenaren maila eta erreferentzia doitzeko teknikak.

Monitore motak:

Monitoreen ezaugarri teknikoak.

Hartzailearen arabera monitore onena aukeratzea.

Zereginak zorrotz egitea.

Akatsei aurre hartzea.

5.– In Ear monitorizatzeko sistemak doitzeko.

In Ear haririk gabeko sistemekin lan egitea.

Konexioak eta antenaren eraginkortasuna, In Ear entzungailuak eta aktore eta zapal hartzailea egiaztatzea.

Transmisioa eta transmisio-kanalaren jasotzea nahiz In Ear monitorizazio-sistema bakoitzaren jasotzea egiaztatzea.

Nahasketa eta maila doitzeko, transmititutako soinuaren kalitatea bermatuta.

Monitorizazio pertsonalerako sistemak.

Monitorizazio-sistemak erabiltzearen abantaila eta desabantailak.

Erabilitako In Ear entzungailu motak eta eusteko moduak.

Garbitzeko teknikak.

Kapsula eta zapalak kokatu, eutsi eta ezkutatze teknikak eta trukuak.

Monitoreentzako nahasketa motak eta teknikak: nahasketa partekatua; nahasketa pertsonala; mono-nahasketa; nahasketa estereoa; dual-monoa; mixModea.

Aurrerapen teknologikoen gaineko interesa.

Ezarrita dauden jardun-arauak eta -prozedurak betetzea eta errespetatzea.

6.– Soinu-proiektuaren plangintza.

Multzoen diagramak interpretatu eta egitea (konexioak).

Fitxa teknikoa edo riderra egitea; sarrera-kanalen zerrenda; musikariek agertokian duten kokapenaren plana, monitoreetara egindako bidalketak, oholtza eta beste elementu kopurua eta horien altuera.

Gidoi teknikoak interpretatu eta aldatzea, adibidez: nahasketa-gidoia.

Proiektuari dagokion dokumentazioa eguneratzea eta gertatutako aldaketa guztiak idaztea.

Dokumentazio artistikoa.

Proiektuaren dokumentazio teknikoa: konexio-diagramak, bloke-diagramak eta planoak.

Soinu-proiektu baten ohiko tresneriaren ezaugarriak: bozgorailuak, kableak, mahaiak, prozesadoreak, rackak, proiektagailuak, pantailak eta tripodeak, besteak beste.

Muntaia eta eragiketak sinplifikatzeko teknikak.

Sailen arteko komunikazioaren fluxua mantentzeko teknikak.

Sor daitezkeen egoeretara egokitzea.

Ezarrita dauden jardun-arauak eta -prozedurak betetzea eta errespetatzea.

4. lanbide-modulua: Bideo disc-jockey saioak prestatzea

Kodea: 1301

Kurtsoa: 1

Iraupena: 165 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Musika-animazio saioari edo irrati-saioari dagokion musika motaren ezaugarriak zehazten ditu, eta efektuak antzokiko ikusleei edo irratiko entzuleei aurreratzen dizkie.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Animazio-saio batean programatuko diren piezen berezko musika-lengoiaren elementuak zehaztu ditu, hala nola: tonu-egiturak, harmoniak, instrumentazioak eta egite-teknikak, eta entzumen adimendun, absolutu eta erlatiboaren bitartez aztertu ditu.

b) Musika-estilo eta joera ezberdinetako piezak sailkatu ditu, musika- eta ikus-animazioko saio motaren arabera, eta kontuan izan ditu musika mota, garaia, diskoetxea, interpreteak, instrumentu-joleak, erritmoa eta melodia.

c) Saiorako hautatu behar diren musika-piezen egiturak zehaztu ditu, eta, horretarako, esaldi, konpas eta minutu bakoitzeko beat-ak aztertu ditu, eta ondoren nahasketa egiteko pieza egokiak sailkatu ditu.

d) Aisialdi-antzoki eta ekitaldietarako espazioetako musika-animazioen estilo eta joerak definitu ditu, eta lokal mota ezberdinen ezaugarri funtzional eta girokoetara eta ingurune geografikoaren arabera ikusle potentzialaren aniztasunera egokitu ditu.

e) Musika-estiloak irrati-kate batek ordu-tarte ezberdinetan duen programazio-irizpideen arabera zehaztu ditu, eta garaia, artistak, diskoetxeak eta musika-joerak hautatu ditu.

f) Irratsaio ezberdinetarako hautatutako musika justifikatu du, komunikazio- eta espresio-helburuak, ordu-tartea eta helburu diren entzule aniztasuna kontuan hartuta.

2.– Musika- eta ikus-animazioko saioetan hedatu behar den ikus-materialaren plangintza egin du, eta, horretarako, musika-joerekin lotu eta argazki eta bideoen espresibitatea eta «guztiontzako dieseinuaren» beharrak balioetsi ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Diskoteka edo ekitaldiaren espazioan, proiektatzeko pantaila eta azalaren kokapena, tamaina eta kopurua zehaztu ditu, eta kontuan hartu ditu alor eta funtzio ezberdinak, ikusle nahiz profesionalek egingo duten erabilera eta ikus-animazioko saioaren helburuak.

b) Musika- eta ikus-animazioko saioan proiektatuko diren argazki eta grafikoaren egokitasuna ebaluatu du, eta konposizioa, distira, kontrastea, kolorea, dinamismoa eta bestelako elementu morfologikoak aztertu ditu.

c) Areto eta ekitaldietako ikus-animazioko saioetan proiektatuko diren baliabide bideografikoen enkoadraketa, mugimendu, argiztapen, kolore, kontraste eta eduki-baliabideak justifikatu ditu, eta horiek ikusleengan egoera emozional ezberdinetan izango duten eragina aurreikusi du.

d) Musika- eta ikus-animazioko saioetan, irudi finko eta mugimenduko alderdi formalaren eta musikaren egitura erritmiko eta tonalaren arteko harremanak justifikatu ditu, eta bata bestea indartu eta disonantziak ekidin ditu.

e) Diskoteka, ikuskizun eta ekitaldietarako aretoetan, ikus-elementuak eta efektu luminoteknikoen arteko elkarrekintza planifikatu du, eta horien arteko osagarritasuna sustatu eta denbora- eta espazio-desdoitzeak ekidin ditu.

f) Ikus-piezetan, plano eta kamera-enkoadraketak planifikatu ditu, eta kontuan hartu ditu plano-tamaina ezberdinen funtzionaltasuna, kamera-angeluazioaren espresibitatea eta ikus-jarrai-penaren arauak. Hori guztia gidoi tekniko, planta-eskemak eta storyboard aplikatuta egin du.

3.— Musika- eta ikus-animazioko aretoaren edo irrati-katearen soinu-baliabideen katalogoak egin ditu, eta, horretarako, disko- eta ikus-informazioko iturriak kontsultatu ditu eta musika, irudi eta ikus-entzunezko lanak lortzeko irizpide estilistiko eta ekonomikoak kontuan hartu ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Diskoteka edo irrati-kate bateko soinu-baliabideen katalogora musika, soinu-efektu eta audio-liburutegiak gehitzeko kontuan hartu beharreko irizpideak definitu ditu, aretoaren, ikusleen edo entzuleen nortasun-helburuen arabera.

b) Musika- eta ikus-animazioko aretoen ikus-baliabideen katalogora gehitzeko ikus-entzunezko obra eta argazki- eta bideo-liburutegien beharrak zehaztu ditu, aurretik definitutako ikusle/entzule eta nortasun-helburuen arabera.

c) Programazio zehatza duen diskoteka edo irrati-kate baterako estilo eta joera anitzeko diskoe-txe eta musika-hornitzaileak hautatzeko irizpideak zehaztu ditu, eta, horretarako, prentsa espezializatua aztertu eta Interneten informazioa kontsultatu du.

d) Musika eta ikus-entzunezko materiala lortzeko aurrekontuak egin ditu, eta, horretarako, merkataritza-informazioa kontsultatu eta gastu-gaitasun ezberdinak kalibratu ditu eskuratze-programazioaren bitartez.

e) Musika eta ikus-entzunezko funtsak dokumentatu ditu, eta datu-baseetan katalogazio eta metadatuaren irizpide unibertsalen arabera sailkatu ditu, honako hauek kontuan hartuta: egilea, instrumentistak, ahotsak, diskoetxea, grabazio-data, estiloa, tempoa, giroa, euskarria, erabilera-data eta bestelako elementuak. Hartara, baliabideetara zuzenean jotzea errazten da.

f) Jatorrizko soinu- eta ikus-elementuak jaso eta grabatzeko beharrak zehaztu ditu, ondoren musika- eta ikus-animazioko saioetarako soinu- eta ikus-entzunezko baliabideen katalogoetara gehitzeko.

4.— Musika- eta ikus-animazioko areto baten jarduerak programatzea eta gai, estilo eta joerak definitzea. Horretarako, kontuan hartuko dira aretoaren ezaugarri funtzionalak, giza baliabideak eta bertako nahiz kanpoko disc-jockey eta bideo-jockeyen ahalmen estilistiko eta komunikatiboak.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Disc-jockey eta bideo-jockeyen hautaketan eragiten duten musika- eta ikus-animazioko enpresen ezaugarriak definitu ditu, eta, horretarako, egitura, tamaina, kokapena, jarduera, ikusleak eta helburuak aztertu ditu.

b) Musika- eta ikus-animazioko areto baten etengabeko funtzionamendurako beharrezko giza baliabideen ezaugarriak eta berariazko funtzioak zehaztu ditu, eta, horretarako, tipologia, helburuak eta programazioa hartu ditu kontuan.

c) Musika- eta ikus-animazioko saio baterako bertako nahiz kanpoko disc-jockey, bideo-jockey eta bideo disc-jockeyen ikuskizuna planifikatu du; espezializazioaren eta lanak aldi berean egiteko baldintzak aztertu ditu, eta eskaletan zehaztu beharreko esku-hartzeen txandakatzea aurreikusi du.

d) Aretoaren programazioaren ezaugarriak zehaztu ditu, eta ikusleen tipologia eta adina, saio motak, urtaroa eta inguruneko musika-eskaintza balioetsi ditu.

e) Musika- eta ikus-animazioko saio batera gonbidatutako artisten parte-hartzea programatu du, eta kontuan hartu ditu bertako nahiz kanpoko disc-jockey etabideo-jockeyen musika-joera eta ezaugarri estilistikoak, rider teknikoaren eskakizunak eta esku-hartzearen ordena definitzen duten irizpideak.

f) Diskoteka bateko asteko, hileko eta garai bateko musika- eta ikus-saioak programatu ditu, eta, horretarako, kontuan hartu ditu ingurunearen eskaintza, disc-jockey eta bideo-jockeyen disponibilitatea, bezeroen ezaugarriak eta urtaroen klimatologia.

5.– Musika- eta ikus-animazioko areto bate jarduerak edo irrati-kate baten programazioa sustatu ditu, enpresa-helburuetatik abiatuta autosustapenerako teknika ezberdinak erabiltzearen aukera balioetsita.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Bertako nahiz kanpoko disc-jockey bideo-jockey eta light-jockeyaren sustapen-txostena egin du, musika- eta ikus-animazioko aretoetan, eta, ezaugarri estilistikoak, ibilbide profesionala aztertu, eta erakartzeko publizitatea identifikatu du.

Musika- eta ikus-animazioko sustapena egin du, aretoko disc-jockey, bideo-jockey, light-jockey, ikuskizun eta giroaren moduko erakargarri esanguratsuak identifikatu ditu, eta kontuan hartu ditu aurretiaz behar den denbora, tarifak, erabil daitekeen aurrekontua eta lortu nahi diren ikusleak.

c) Musika- eta ikus-animazioko areto baten programazioaren sustapena planifikatu du, eta, horretarako, prentsan, irratan eta ikus-entzunezko bitartekoetan hurbileko publizitate-ekintzak deskribatu, eta kanpainaren helburu, irismen, erabilitako bitarteko eta iraupenerako irizpideak aplikatu ditu.

d) Musika- eta ikus-animazioko saiorako sustapen-dinamika egin du webgune eta sare sozialetan; hedatuko diren ikus-entzunezko edukiak eta eduki grafikoak zehaztu, eta bezeroen leialtasuna sare sozialetako jardueraren bitartez indartu du.

e) Irratsaio musikalak egitean, erabiliko diren autosustapenerako teknikak zehaztu ditu, eta, horretarako, enpresaren helburuak eta lortu nahi diren entzuleak hartu ditu kontuan.

B) Edukiak:

1.– Musika animazioko saio eta irrati programetarako musika motak hautatzea.

Entzumen erlatibo eta absolututik abiatuta, abesti batean instrumentuen ezaugarriak bereiztea.

Entzumenaren bitartez, musika-estilo ezberdinak bereiztea.

Irrati-programetan musika-estiloa hautatzeko irizpide estilistiko, estetiko eta komunikatiboak zehaztea, honako honen arabera:

– Garaiak.

– Artistak.

– Diskoetxeak.

Musika-joerak.

Soinuen eta ozentasunaren osaera.

Musika-lengoiaren elementuak. Honako hauetan oinarritutako erritmo-egiturak:

- Esaldiak, konpasak eta beatak.
- Tonu-egiturak.
- Melodia.
- Instrumentuak.
- Ahots-teknikak.
- gauzatze-teknikak.

Harmonia, bitartea, eskala eta akordea. Altuera tonala eta intonazioa.

Abestien egitura: sarrera, fraseatzea, interludioa eta leloa.

XX. mendetik gaur arteko musika-estilo garaikideen ezaugarriak:

- Motak eta azpimotak.
- Bilakaera historikoa.
- Interpretatzaileak.
- Diskoetxe esanguratsuak.
- Musika-moten oinarrizko erreperitorioa: Jazz, Rock, Pop, Hip Hop eta Elektronikoa.
- Blues, Soul, Rhythm and Blues, Punk, Country, Trip hop, Techno, House, Breaks eta Ambient azpimoten oinarrizko erreperitorioa.

Lokal, ikusle, ordutegi eta gune geografiko ezberdinei lotutako musika-animazioaren estilo eta joerak zehazteko prozedurak.

Musika-lengoiaren egitura eta horren adierazpen-baliabideekiko interesa erakustea.

Autonomia esleitutako lanak egitean.

Musika-sorkuntza eta -berrikuntzarekiko interesa erakustea.

2.– Musika eta ikus-animazioko saioetarako ikus-materialen plangintza egitea:

Irudiaren argi-parametro eta parametro kromatikoak balioestea.

Argazkigintzaren komunikazio- eta adierazpen-balioak ebaluatzea.

Argiztapen motak hautatzea.

Ohiko agertokiak argiztatzeko teknikak erabiltzea.

Ikus- eta musika-elementuak koordinatzea. Sinkronizazio- eta indartze-teknikak:

Musika- eta ikus-animazioetarako aretoetan proiektatzeko pantaila eta azalaren espazio- eta funtzio-plangintza egitea.

Plangintzan «guztiontzako diseinua» aplikatzea.

Irudiaren elementu morfologikoak: puntua, lerroa eta forma.

Osaera, oreka, dinamismoa eta unitate-teknikak.

Ikus-entzunezko lengoaiaren baliabideak: planoaren tamainak, enkoadraketa mota eta kamera mugitzeko teknikak.

Argiztapenaren estilo espresiboak.

Ikus-entzunezko muntaia:

- Muntaia motak.
- Ekintza-ardatzak.
- 180°-aren erregela.
- Erritmoa muntaian.

Ikus- eta musika-elementuak nahastean balio espresiboak. Ikuslearengan eragin emozionala.

Ikus-elementu eta luminotekniaren interakzioaren balio espresiboak.

Irudi eta soinuaren balio espresiboak ikertzeko interesa erakustea.

Argiztapen-eskemak egitean arreta eta garbitasuna erabiltzea.

Autonomia esleitutako lanak egitean.

3.– Musika eta ikus animazioko saioetarako soinu eta ikus entzunezko baliabideen katalogoa egitea.

Soinu- eta ikus-baliabideen katalogazio informatizatua, metadatu eta erreferentzia unibertsalak erabiltzea.

Musika eta ikus-entzunezko lanen euskarriak manipulatu eta gordetzeko teknikak aplikatzea.

Datu-baseetan bilaketa, antolaketa eta iragazte-irizpideetarako metodoak erabiltzea.

Diskoetxe eta ikus-entzunezko merkatuaren informazio-iturriak aurkitu eta kontsultatzeko teknikak:

- Aldizkako argitalpenak.
- Webguneak.
- Blogak.
- Musika-bilatzaileak.
- Irudi-bilatzaileak.
- Irudi-bildumak.
- Banaketako plataformak.
- Sare sozialak.

Musika biltzeko irizpide definitzaileak:

- Estiloak.
- Diskoetxeak.
- Erritmo-egiturak.
- Instrumentazioak.

Bestelakoak.

Soinu- eta ikus-baliabideen katalogazio informatizatua zorrotz egitea.

Jarduteko eraginkortasuna egin beharreko zereginak planifikatzean.

Autonomiaz jardutea zereginak egitean.

4.– Musika- eta ikus-animazioko saioak programatzea.

Musika- eta ikus-animazioko saioetarako areto eta espazioen fitxa teknikoak egitea.

Musika- eta ikus-animazioko rider teknikoak interpretatzea:

- Bloke-diagrama.
- Ekipoak espazioan eskemetan irudikatzea eta honako kabina hauetan kokatzea:

Disc-jockeya.

Bideo-jockeya.

Light-jockeya.

Areto eta irrati-etxeetan musika- eta ikus-animazioko saioetarako lan-prozesuak planifikatzea:

- Faseak.
- Zereginen sekuentzia.

Giza baliabideak: teknikoak, antolamenduzkoak eta artistikoak.

Musika- eta ikus-animazioko saioetarako ekoizpen-enpresa motak, ezaugarriak eta funtzio-egitura.

Irrati-etxe eta musika-saioen tipologia eta ezaugarriak.

Aretoetan musika- eta ikus-animazioko saioetarako programazio-teknikak, ikusle, joera eta garaien arabera.

Irrati-programazioa egiteko teknikak, irrati-etxe, ordutegi eta entzule kopuruaren arabera.

Areto eta irrati-kateetan musika eta ikus-entzunezko lanak hedatzeko jabetza intelektuala eta emanaldi-eskubideei buruzko legeria.

Jarduteko eraginkortasuna egin beharreko zereginak planifikatzean.

Zorroztasunez jardutea, arauen arabera eta txukuntasun eta garbitasun egokiarekin egindako lanak aurkeztean.

5.– Musika- eta ikus-animazioko aretoetako jarduerak eta irrati-etxe baten programazioa sustatzea.

Disc-jockey, bideo-jockey eta light-jockeyen sustatze-txostenak egiteko testu-informazioa.

Sustapenerako grafiko eta argazkiak bildu eta prestatzea. Estilo eta komunikaziorako hautatze-irizpideak aplikatzea.

Interneten musika- eta ikus-animazioko saioak sustatzea:

– Berezko webgunea.

– Blogak.

– Foroak.

Sare sozialak.

Musika- eta ikus-animazioko saioetarako sustapen- eta komunikazio-teknikak.

Musika- eta ikus-animazioko saioen sustapen-dinamika webgune eta sare sozialetan.

Hedapenerako bitartekoak eta publizitate-espazioak:

– Prentsa.

– Irratia.

Hurbileko ekintzak.

Lan-taldeetan sor daitezkeen gatazkak ebazteko partaidetzazko jarrera izatea.

Zereginen helburuak betetzeko konpromisoa izatea.

5. lanbide-modulua: Zuzeneko musika-animazioa

Kodea: 1302

Kurtsoa: 2

Iraupena: 231 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Saiorako hautatutako audio-fitxategiak antolatu ditu, horien soinu-, estilo- eta musika-ezaugarriak kontuan hartuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Eskuragarri dagoen katalogotik hautatu ditu saioan erabiliko dituen audio-fitxategiak, eta, horretarako, fitxategiak entzunda, estilo-, gai-, musika-, ordutegi- eta ikusle motaren arabera irizpideak erabili ditu.

b) Metadatuak audio-fitxategian bertan editatu ditu, katalogazio-aplikaziorako beharrezko eremuak beteta eta ID3 nomenklatura-estandarren arabera.

c) Hautatutako audio-fitxategiak karpitetan antolatu ditu, estilo edo erabilgarritasun irizpideen arabera, zuzeneko saioan erabiltzeko.

d) Editatu behar diren fitxategiak hautatu ditu, horien soinu-ezaugarriak normalizatu eta behar bezalako erreprodukzioa bermatzeko.

e) Erreproduzio automatikorako hainbat zerrenda osatu ditu saiorako hautatutako materialarekin, ondoren disc-jockeyak arduratu gabe erreproduzitu ditzan.

2.– Musika-saioa planifikatu du; eskura dituen baliabide teknikoak eta giza baliabideak koordinatu ditu, eta musika- eta ikus-saioaren aurreikusi daitekeen garapena dokumentatu du eskaleta batean.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Musika-fitxategiak argizatze, bideo edo bestelako baliabideekin sinkronizatu ditu, eta kon-tuan izan ditu musika- edo irudi-piezen iraupen zehatza eta aretoaren argizatze-ezaugarriak.

b) Espazio eszenikoaren ezaugarriak eta artista eta ikusleei begirako baldintza tekniko, ekono-miko eta segurtasunezkoak zehaztu ditu.

c) Lan-prozesuak antolatu ditu, eta, horretarako, antolaketa eta plangintzarako teknikak aplikatu eta jarduera-faseak tenporalizatu ditu.

d) Figurante, animatzaile, dantzari nahiz bestelako parte-hartzaile kopurua, berariazko ezauga-riak eta ordena zehaztu ditu, baita bakoitzaren ordutegi eta parte-hartze tartearen ere.

e) Saioaren garapenean zehar erabiliko diren luminoteknia- eta bideo-efektuen ezaugarriak definitu ditu, ondoren light-jockeyak eta bideo-jockeyak proiektatu ditzan, edo, modu bateraratuan, pertsona bakar batek proiektatu ditzan.

f) Artista baten rider teknikitik abiatuta, behar den tresneria dokumentatu du, eta, horretarako, tresneria lan-eremuan kokatzeko jarraibide zehatzak jarraitu, eta aretora egokitutako alternatibak proposatu ditu.

g) Dokumentu edo eskaleta bat egin du, eta bertan zehaztu ditu saioaren gaia, musika- eta ikus-mozketen denbora-plangintza, argizatze-ezaugarriak eta parte-hartzaile eta pertsona gonbi-datuen parte-hartzea.

3.– Disc-jockeyaren tresneria kabina edo lan-eremuan instalatu du, eta emaitza akustiko onena lortzeko prozedura estandarizatuak aplikatu ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Jatorri ezberdineko audio-erreproduktore, ordenagailu mugikor, MIDI kontrolagailu eta soinu-txartelak instalatu ditu lan-eremuan, eta jabetza identifikatzeko etiketak erabili ditu.

b) Tresneria erreproduktorea pista-sarrera egokietan konektatu du, Phono, Linea edo Digital seinale mota kontuan hartuta.

c) Erreproduktore eta nahasgailuak behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatu du; matxurak antzemateko protokoloak jarraitu, gertakariak identifikatu, eta dagozkien lekuetan ipini ditu.

d) Erreproduktoreetatik datorren seinale-sarreraren mailak doitu ditu irabazi-aldaketen bitartez; soinua nahasgailuko kontrolagailuekin ekualizatu du, eta seinale-adierazle grafikoak zero dezibe-leten jarri ditu.

e) Nahasgailuaren maila maisu-irteera eta monitoreetan doitu ditu, eta anplifikazio eta mega-foia-tresneriaren baldintzetara egokitu ditu.

f) Audio-sarrera eta -irteera maila guztiak egokiak direla egiaztatu du, entzungailuekin soinu-proba bat eginda.

g) Laneko arriskuen babesa eta kutsadura akustikoari buruzko indarrean dagoen araudia errespetatu du; kabinan monitorizazio-maila eta anplifikatutako potentzia ikuskatu ditu.

h) Prozesuan gerta daitezkeen gorabeherak ikertu ditu, eta akats mota oro zehaztu, horiei irtenbidea aurkitzeko.

4.– Audio-fitxategiak aretoan eta zuzenean nahastu ditu, eta ikusleen eta ikuskizunaren gaiaren ezaugarriak lotu ditu saioaren helburuak lortze aldera.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Nahastu beharreko hurrengo abestiaren erreprodukzio-abiadura eskuz edo automatikoki doitu du, unean entzuten ari den abestiarekin sinkronizatzeko, bi abestiok aldi beren entzunda.

b) Aurretiazko entzuketaren bitartez, sartu beharreko pieza edo fitxategiaren nahaste-puntuak aurkitu ditu, eta seinalearen mailara eta amaitu behar den abestira egokitu ditu.

c) Nahasketa nahasgailuaren kontrola, ekualizazioa, faderra eta crossfaderra erabiliz egin du, nahasketa bakoitzaren arabera teknika erabilita, sinkronian, itzaltze progresiboan edo mozketak bidezko trantsizioaren bitartez.

d) Une oro mantendu du soinuaren kalitatea eta tarte dinamikoak; musikaren ulergarritasuna eta laneko arrisku eta kutsadura akustikoari buruzko araudia errespetatu ditu.

e) Musikaren narratiba eta saioan parte hartzen duten gainerako ikus- edo eszena-elementuen bateratasuna mantendu ditu, eta zuzenean egin ditu aldizkako deskoordinazio kasuetan aldaketa eta egokitzapenak.

f) Ikusleek izan dezaketen erantzuna kontuan hartu, du eta eskuragarri dagoen erreperitorioa horien eskakizunen arabera egokitu du; teknikoki zuzena eta musikalki koherentea den nahasketa egin du zuzenean.

g) Zuzeneko ikuskizunean zehar gertatutako ezusteko teknikoei erantzun die, eta, horretarako, erantzuteko protokoloak aplikatu eta gertaerak bizkortasunez konpondu ditu.

h) Ordena publikoaren asaldaketa, sute eta bestelako ezbeharren kasuetarako egindako larrialdi-simulakroetan bizkortasunez erantzun du, eta protokolo esntadarizatuak jarraitu ditu.

5.– Zuzeneko, difusio hertzianoko edo Internet bidezko musika-irratsaioaren audio-fitxategiak eta hitzak zuzenean nahastu ditu, eta, horretarako, entzuleen ezaugarriak, saioaren iraupena, emisio-ordutegia eta estaldura-tartea balioetsi ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Gidoi bat egin du, bertan definitu ditu emanaldiaren unea eta esatarien iraupena, audio-fitxategiak, iragarkietarako tarteak eta gonbidatuen parte-hartzea; horien guztien esku-hartzea programaren iraupenari dagokion denbora-lerroan markatu ditu.

b) Irratsaioaren gidoia egin du, eta bertan idatzi ditu iruzkinen testuak, esatariaren hitzak eta musika-piezekin batera doazen aurkezpenak. Horretarako, irrati-lengoiaren baliabideak aplikatu ditu.

c) Programan erabiliko diren audio-sistema ezberdinen seinale-maila optimoak doitu ditu nahasketa-mahaian, hala nola, mikroфонia-seinalea, audio-erreproduktoreetako seinalea eta iragarkietatik datorren seinalea; halaber, entzungailuetan soinu-proba bat monitorizatuko da osagaien funtzionamendu optimoa egiaztatzeko.

d) Musika-tarteei dagokien lokuzio egokia egin du, bokalizazio, erritmo eta irrati-lengoiaren arauak jarraiki eta musika-saio eta irrati-kateko estiloa bere horretan mantenduta.

e) Zuzenean nahastu ditu soinu-iturri ezberdinak; une oro jarraitu ditu gidoiaren jarraibideak, eta aurretik definitutako denbora-lerrora egokitu da.

f) Gortinak, iragarkiak eta jingle-ak egin ditu, norberak egindako edo meditekatik egindako soinu-efektuak erabilia, eta musika-saioaren ezaugarriak kontuan hartuta.

g) Saioaren podcast bertsioa sortu du, aurre definitutako fitxategien konbertsioa aplikatu du, eta zerbitzari batean kokatu du erabiltzaileei streaming edo deskarga bidez helarazteko.

B) Edukiak:

1.– Audio-fitxategiak antolatzea.

Audio digitalen ezaugarriak aztertzea.

Audio-fitxategiarentzako katalogazio-aplikazioak ebaluatzea.

Audio-fitxategietan metadatuak editatzea.

Audio-fitxategiak estiloaren arabera edo zuzenean erabiltzeko beste irizpideen arabera sailkatzea.

Hautatutako audio-fitxategien soinu-ezaugarriak normalizatzea.

Erreprodukzio automatikorako hainbat zerrenda osatzea.

Erabili behar diren eta eskuragarri dauden audio-fitxategien katalogoa hautatzea, saioaren ezaugarrien arabera.

Audio analogikoen euskarri motak eta ezaugarriak: biniloa eta zinta.

Disko-biratzalearen ezaugarriak eta osagaiak: besoa, orratza, kapsula, abiadura-kontrola, pisu-kalibrazioa, phono seinalearen konexioa, doikuntza eta mantentzea.

Audio digitalen euskarri motak eta ezaugarriak: CD eta DVD; konprimitu gabeko WAV eta AIFF fitxategi digitalak; konprimitutako MP3 eta AAC fitxategi digitalak.

Disko trinkoen erreproduktoreen ezaugarri motak eta elementuak: lente digitala, kontrol-azalera eta abiadura-kontrola.

Musika-fitxategien katalogoak eta nomenklatura. Antolatzeko irizpide ofizialak.

ID3 estandarra.

Audio-fitxategiak katalogatzeko aplikazioen tipologia eta ezaugarriak, hala nola, iTunes, WMP, Winamp eta beste batzuk.

Informatika-tresnerian joera berriak bilatzeko interesa izatea.

Antolamenduaren eragiketa-mailako zereginetan laguntzeko interesa izatea.

2.– Musika-saioaren plangintza egitea.

Musika-fitxategien sinkronizazioa planifikatzea, argiztapen-, bideo-baliabide nahiz bestelako baliabideekin.

Giza baliabideak planifikatu eta koordinatzea: dantzariak, performerrak, zuzeneko musikariak eta teknikariak (light-jockey eta bideo-jockey).

Musika-animazioko saioak prestatzeko kudeaketa-prozedurak aplikatzea.

Musika-animazioko saioetan espazio eszenikoak konfiguratzea.

Espazio eszenikoaren ezaugarriak zehaztea.

Jarduteko faseen plangintza eta tenporalizazioa egitea.

Luminoteknia eta bideo-efektuen ezaugarriak definitzea.

Dokumentu edo eskaleta bat osatzea, eta bertan definituko dira ikuskizunaren gaia, musika- eta ikus-mozketen plangintza, argizatzea eta parte-hartzaileen esku-hartzea.

Gonbidatutako parte-hartzaileen rider teknika gauzatzea: audio-, bideo- eta argiztatze-tresneriak konektatzea; konexio motak.

Rider teknikoaren interpretaziotik abiatuta, tresneriaren beharrianen dokumentazioa kudeatzea.

Musika-saioa giza baliabideak.

Musika-animazioko saioetan lan-prozesuak antolatu eta planifikatzeko teknikak.

Musika-animazioko saioetan espazio eszenikoen egitura.

Eskaleta eta horren ezaugarriak. Eskaleta bat osatzea: denbora-lerroa, ikus-entzunezko piezen iraupena, performerren parte-hartzearen iraupena eta kokapen agertokian.

Rider teknika eta horren ezaugarriak.

Plot edo agertoki-planoa, tresneria eta azpiegituren zerrenda, audio-eskakizunak, argiztatze-eskakizunak, backline, AC eta agertokia.

Lanarekiko konpromisoa izatea.

Antolamendu-aldaketetara egokitzea.

Autonomia esleitutako lanak egitean.

3.– Disc-jockey tresneria lan eremuan instalatzea.

Tresneria lan-eremuan instalatu eta konfiguratzea.

Erreprodukzioarako tresneria pista-sarrera egokietara konektatzea.

Irakurgailu eta nahasgailu-tresneriak funtzionatzen duela egiaztatzea.

Erreprodukzioarako programa edo aplikazio orokorrak konfiguratzea eta erabiltzea, besteak beste, iTunes, Windows Media Player, Winamp.

DJentzako erreprodukzioarako programa edo aplikazio profesionalak konfiguratzea eta erabiltzea: Traktor, Serato eta Ableton Live.

Seinale-sarreraren mailak doitztea, irabazi-aldaketaren bitartez.

Nahasgailuan soinua ekualizatzea, eta seinale-adierazle grafikoak zero dezibelethan jartzea.

Nahasgailuaren maila maisu-irteera eta monitoreetan doitzea.

Audio-sarrera eta irteera maila guztiak egokiak direla egiaztatzea, entzungailuekin soinu-proba bat eginda.

DJ nahasgailuekin eragiketak.

MIDI kontrolatzaileekin eragiketak.

Prozesuan gerta daitezkeen gorabeherak ikertzea, akats mota oro zehaztea horiei irtenbidea aurkitzeko.

Disko-biratzailen tekniken tipologia, ezaugarriak eta nolakotasunak. Phono seinale aurreanplifikatua eta horren ezaugarriak. Lur-konexioa.

Disko trinkoen irakurgailuen tipologia, ezaugarriak eta nolakotasun teknikoak. Linea-seinalea eta ezaugarriak. Seinale digital optiko motak, ezaugarriak eta konexioak, SPDIF, AES eta EBU.

Erreproduktore analogikoak, erreproduktore digitalak eta nahasgailua konfiguratu eta elkarri konektatzea. Software eta hardwarearen arteko konfigurazioa eta doikuntzak.

DJentzako erreproduktore digitalak. Denbora-kode motak eta ezaugarriak.

Erreproduktoreko aplikazio orokor motak.

Erreproduktoreko aplikazio profesional motak.

Audio-erreproduktoreen historia eta bilakaera.

DJ nahasgailu motak eta ezaugarriak.

MIDI kontrolagailu motak eta ezaugarriak.

Instalatzeko eta mantentzeko lanak egitean eta segurtasun-irizpideak aplikatzean zorrotz jokatzeko.

Jarduteko eraginkortasuna egin beharreko zereginak planifikatzean.

Errorearen aurrean jarrera positiboa izatea, eta zailtasunak gainditzeko bitartekotzat hartzea.

4.– Aretoan audio fitxategiak zuzenean nahastea.

Aurre-entzuketaren bitartez, sartu beharreko pieza edo fitxategiaren nahasketa-puntuak kokatzea, amaitu beharreko abestiaren seinale-maila eta erritmora doituta.

Nahasketa sinkronian, itzaltze progresiboan edo trantsizioan egitea, nahasgailuaren kontrolak erabilia.

Mozketa bidezko nahasketa egitea.

Soinuaren kalitatea ebaluatzea, laneko arriskuen eta kutsadura akustikoaren araudia errespetatuta.

Musikaren narratiba eta gainerako ikus- edo eszena-elementuen bateratasuna.

Larrialdietarako simulakroetan erantzuteko protokolo estandarizatuak aztertzea.

Sinkronizazio digitala, tempo ezaugarriak identifikatzeko fitxategiak aztertzea, warping eta beat-mapping teknikak, Cue puntuen kokapena eta prozesatutako fitxategien biltegitratzea.

Audio-fitxategi eta -iturriak denbora errealean nahasteko estiloak eta teknikak.

Sinkronizazio digitalaren ezaugarriak.

Itzaltze-nahasketarako teknikak: itzaltze-puntuak identifikatu, crossfaderra erabiltzea eta ekualizatzailea. Kill frequency teknikak.

Nahasketa sinkronikorako teknikak: eskuzko sinkronizazioa; beat eta konpasak kokatzeko prozedurak; pitch kontrola, ekualizazio selektiboa, crossfaderra eta irabazi-kontrolaren ezaugarri teknikoak eta erabilera.

Mozketa bidezko nahasketarako teknikak: beat eta konpasak kokatzeko prozedurak; pitch kontrola, ekualizazio selektiboa, crossfaderra eta irabazi-kontrolaren ezaugarri teknikoak eta erabilera.

Scratch eta turntabilism teknikak: beat juggling teknika. Scratch teknika. Erreproduktorea instrumentu modura erabiltzeko teknikak.

Segurtasun-araudia eta babes akustikoari buruzko laneko arriskuak.

Segurtasun-araudia, larrialdi eta ebakuazioetarako protokoloak.

Funtzioak garatzeko ekimena izatea.

Segurtasun-neurriak errespetatzea.

Errorearen aurrean jarrera positiboa izatea, eta zailtasunak gainditzeko bitartekotzat hartzea.

5.— Audio fitxategiak zuzenean nahastea, eta zuzeneko, difusio hertzianoko edo internet bidezko irratsaioko lokuzioa.

Gidoi bat egitea, bertan definituko dira emanaldiaren unea eta esatarien iraupena, audio-fitxategiak, iragarkietarako tarteak eta gonbidatuen parte-hartzea.

Irrati-saioaren gidoia egitea, bertan definituko dira iruzkinen testuak, hitzaldiak eta parte-hartzaileen aurkezpenak.

Saioan erabiliko diren audio-iturri ezberdinen seinaleak maila onena izateko nahasketa-mahaian doikuntzak egitea.

Musika-tarteei dagokien lokuzio egokia egitea, bokalizazio, erritmo eta irrati-lengoiaren arauak jarraiki.

Soinu-iturri ezberdinen nahasketa zuzenean egitea; gidoiaren jarraibideen arabera, betiere.

Gortina, iragarki eta jingle-ak egitea, norberak egindako edo mediatekatik hartutako soinu-efektuak erabilia.

Saioaren podcast bertsioa sortzea.

Irratsaioen edizio eta emanaldietarako aplikazio profesionalak.

Irrati-kontrol eta -estudioaren ezaugarri tekniko eta funtzionalak.

Irrati-ingurunearen ezaugarri orokorrak.

Irrati-programazio ereduak: orokorra, espezializatua eta hibridoa.

Irratiko musika-saioen tipologia: irrati-formula, musikal espezializatua eta magazine-a.

Publizitatea irrati-ingurunean: iragarkia, publierreportajea, babesletza.

Irrati-lengoaia: soinu-materialak eta soinuuzkoak ez direnak.

Ahozko kodea: ahotsa eta idazkera.

Irrati-esatarirako teknikak.

Musikaren funtzioak irrati-komunikazioan.

Soinu-planoak irratian.

Musika-animazioko saioetarako irrati-gidoia egitea.

Irratian erabiltzen diren baliabide teknikoak: iragazkia, oihartzuna, erreberberazioa, erresonantzia, korua, tonua markatzea, playback, camelos, racconto, bunbuiloa eta sarrera ematea.

Irratia online: eskakizun teknikoak eta funtzionamendua, entzumen-iturriak, erreprodukzio-softwarea, audio-erreproduktoreak, stream-errepikagailu eta -erreproduktorea, podcast, shoutcast eta splitcast.

Arazoak konpontzeko metodoak eta teknikak partekatzeko taldeko beste kide batzuekin komunikatzeko interesa izatea.

Aplikazio berrien bilakaera ezagutzeko interesa izatea.

Funtzioak garatzeko ekimena izatea.

6. lanbide-modulua: Zuzeneko ikus-animazioa

Kodea: 1303

Kurtsoa: 2

Iraupena: 231 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.— Ikus-animazioko piezak musika- eta ikus-saiorako bideo konposaketarako programetan integratzen ditu; hainbat elementu txertatu, 2D eta 3D animazioak zehaztu, iragazki, efektu eta pluginak aplikatu eta pieza hedatzeko euskarrietara esportatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Bideo-klip geruzetan egindako bideo-konposizio proiektura txertatu ditu Chroma Keyrekin hartutako planoak, argazkiak eta 2D eta 3D grafismo eta animazioak, eta konposizioaren aukerak eta gardenki, maskara eta alfa kanalei dagokionez dituen baldintzak aztertu ditu.

b) Bideo-klip, argazki, grafismo eta animazioei txertatu dizkie kolore, iragazki artistiko, opakotasun, ehundura eta deformazio-doikuntzak, eta, hartara, ikus-animazioaren espresibitatea indartu du, parametro teknikoak kontrolatuta eta efektuen sarrera eta amaiera zehaztuta.

c) Bideo-klip, argazki eta grafismoei mugimendua jarri die, eta, horretarako, hainbat animazio-teknika aplikatu ditu, hala nola keyframes, tracking eta interpolazioa.

d) Atzeko planoak Chroma Key duten eszenetan ikus-elementuak txertatu ditu, eta mozketak, argi-maila, kolore eta definizioa doitu ditu, hartara, ikus-animazioko piezarako beharrezko kalitate teknikoa lortu du.

e) Postproduzitutako konposizioa irteerako formatu eta euskarrira esportatu, eta alfa-kanalaren beharra zehaztu du, piezaren helburua kontuan hartuta.

f) DVD, BluRay edo fitxategi digital bat sortu du; bideo-pieza ezberdinak egile-programara inportatu ditu; beharrezko menu eta azpimenuak sortu, eta atzeko plano trinko eta animatuak, botoi interaktiboak eta titulu eta kapitulu ezberdinetara jotzeko aurretik definitutako ekintzak sortu ditu.

2.– Irudi-tresneria musika- eta ikus-animazioko areto eta ikuskizunetan instalatu eta konfiguratu du; erreprodukzio-, nahasketa- eta emanaldi-tresneriak konektatu ditu, eta zuzenean egiteko saioetarako behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatu du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Hainbat ezaugarritako musika- eta ikus-animaziorako aretotan, pantailen eta bideo-emanaldietarako azalaren kokapena, tamaina eta kopurua definitu ditu, eta, horretarako, emanaldi mota eta luminoteknia-efektuekin bateratzea zehaztu ditu.

b) Irudi-tresneriaren instalazioa planifikatu du; aretoaren ezaugarri teknikoak aztertu, eta ekipamenduen arteko konexio-diagramak aplikatu ditu.

c) Irudi-ekipamendua instalatu du, eta, horretarako, erreprodukzio-ekipamenduak, ordenagai-luak, matrizeak, bideratzaileak, nahasgailuak, proiektagailuak eta monitoreak konektatu ditu, hori guztia rider tekniko eta gidaliburu teknikoen eskemak jarraituta.

d) Bideo- eta datu-seinaleak erreprodukzio-, nahasketa-, monitorizazio- eta emanaldi-alorren artean norabidetu ditu, eta saioaren dinamikaren arabera alternatibak aurreikusi ditu.

e) Irudi-tresneria konfiguratu eta doitu du, musika- eta ikus-animazioko areto eta espazioen baldintzen arabera ikus-kalitate onena ziurtatzeko.

f) Bideo-jockey aplikazioak zuzeneko ikus-nahasketa kudeatzen duen ekipo informatikoan konfiguratu du, eta bitarteko ezberdinen behar bezalako erreprodukzioa eta musika eta luminoteknia-rekin bateratzeko gaitasunak egiaztatu ditu.

g) Ikus-tresneria guztien mantentze-lanak planifikatu eta gauzatu ditu, eta, horretarako, gidaliburu teknikoetan ezarritako protokoloak aplikatu ditu.

3.– Musika- eta ikus-animazioko saioetan ikus-nahasketa zuzenean egiten du, eta kontuan hartzen du erakutsitako irudi eta bideoak musika-dinamika eta efektu luminoteknikoekin koordinazioa.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Emanaldi-guneetako mapeaketa aplikazio informatikoen bitartez egin du, areto eta ikuskizuneko gunearen espazio-baldintzak kontuan hartuta.

b) Bideo, grafiko eta argazkiak jaurti bideo-erreproduktore digital eta erreprodukzio- eta ikus-bitartekoen sekuentziak aplikazio informatikoen bitartez, eta, hartara, irudiaren eta zuzeneko muntaiaaren espresibitatea indartu ditu.

c) Ikus-nahasketa musika-nahasketarekin osatu eta sinkronizatu du, eta erreferente sinboloak, erritmo-egiturak, musika-trantsizioak eta emozio-eragina aztertu ditu.

d) Erreprodukzio-iturri ezberdinen artean zuzeneko trantsizioak aplikatu ditu, hala nola: itzal-tzeak, gortinak, inkrustazioak, tartekatzeak eta bestelakoak. Hartara, proiektatutako irudien espresibitatea eta narratiba indartu ditu.

e) Aldi berean erreproduzitutako ikus-entzunezko bi pieza nahastu ditu musikarekin lotuta, eta, horretarako, iturriak kontrolatzeko ekipamendu bat eta bideo-nahasgailu bat erabili ditu. Halaber, iturrien txandatzea, aldaketa-puntuak eta horien arteko trantsizioak zehaztu ditu.

f) Musika- eta ikus-animazioko saioan artista eta parte-hartzaileen aurkezpena egin du; errotulu, grafiko, argazki eta irudiak mugimenduak proiektatu eta aretoko programazioarekin lotu ditu.

g) Ikusizko baliabideen proiektzioa zuzeneko koreografia eta emanaldiekin koordinatu da, eta ikuskizunaren helburuekin bat datozen irudiak eman ditu.

4.— Luminoteknia-tresneria instalatu du, musika- eta ikus-animazioko areto eta noizbehinkako espazioen baldintzetara eta segurtasun-neurrien arabera egokituta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Animazio-areto eta emanaldietarako espazioek behar duten berariazko luminoteknia-tresneria zehaztu du, programatutako saioaren edukiekin lotuta.

b) Luminoteknia-tresneria instalatu du animazio-areto eta -espazioetan, eta, horretarako, aurretik ezarritako konexio-eskema aplikatu eta instalazio elektrikoen segurtasun-araudia jarraitu du.

c) Proiektagailuak eta gailu robotizatuak dimmer-etara konektatu ditu, eta linea elektriko eta DMX seinale-kableak banatu ditu.

d) Argizatze-gailu finkoak lokaleko guneetara norabidetu ditu, aurretik disc-jockey, emanaldi, ikusle eta abarren guneak aurreikusita.

e) Argiztapen-gailu robotizatuen kokalekuak norabidetu eta doitu ditu, eta hasierako kokalekuak eta mugimendu, kolore- eta gobo-aldaketen bilakaera sinkronizatua edo askea koordinatu ditu, konbinatutako ibilbideei irizpide estetikoak aplikatuta.

f) Argiztapen-gailu finkoei kolore-iragazkia aplikatu die, eta, horrela, balio anitzeko kolore sorta estetikoak lortu ditu, aretoko ikuskizun-programazioaren arabera.

g) Tresneria, kable, konektore eta argiztapen-koadroen mantentze prebentiboa egin du, gidaliburu teknikoetako protokoloak aplikatuta.

5.— Jarduera luminoteknikoa zuzenean egin du, eta, aretoan aldi berean egindako musika- eta ikus-nahasketari dagokionez, lortu nahi den giroa lortzea izan du helburu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Dimmer kanalak argi-mahaiaren kanalei dagokienez bideratu ditu, eta zuzenean aritzeko funtzionaltasuna aurreikusi du.

b) Luminoteknia-mahaian sekuentziatuko diren esezenen eskaleta egin du, saioaren eskaletari jarraiki eta musika- eta ikus-animazioarekin duen koordinazioa errespetatuz.

c) Memoriak egin ditu gune, eszena edo cue-en arabera eta argiztapen-gailu finko eta robotizatuen kanal, intentsitate eta kokaleku-taldeak definitu ditu.

d) Luminoteknia-mahaian eta kontrol-osagarrietan memorizatu ditu ekipo berezien esku-hartzea, hala nola, laser proiektagailuak, flash estroboskopikoak eta ke-makinak; musika- eta ikus-saioaren eskaletaren adierazpenak jarraiki.

e) Zuzenean egin ditu argiztapen-bilakaerak musika- eta ikus-animazioko saioaren eskaletaren arabera, efektuen sarrera musika, emanaldi eta ikus-baliabideen proiektzioarekin sinkronizatu ditu, eta inprobisatu egin du, saioaren giroa indartzeko.

B) Edukiak:

1.– Ikus animazioko piezak integratzea.

Inportazio-parametroak doitu eta kontrolatzea.

Argi eta kolore doikuntzak, iragazki artistikoak, opakotasun-doikuntzak eta deformazioak aplikatzea.

Efektuen parametro teknikoak aztertzea.

Ikus-elementuei mugimendua jartzea geruza bidezko bideo-konposiziorako aplikazioetan.

Ikus-elementuak txertatzea guneak ezabatuta: luminantzia-keyak, krominantzia, forma eta beste batzuk, kolorea, mozketak eta definizioa doituta.

Geruza bidezko bideo-konposizioen aplikazioetatik bideo-piezak esportatzea.

DVD, BluRay edo fitxategi digital bat sortzea, bideo-pieza ezberdinak egile-programa inportatuta.

Menu eta azpimenuak sortzea.

Atzeko plano finko eta animatuak, botoi interkatiboak eta aurretik definitutako titulu eta kapitulu ezberdinetara jotzeko ekintzak hautatu eta erabiltzea.

Bideo-klipak, argazkiak, grafismoa eta 2D eta 3D animazioan geruzen bidezko konposizioa inportatzeko parametroen ezaugarriak.

Inkrustazio, iraulketa eta mozketak-teknikak (keys, alfa-kanala, beste batzuk).

Argi- eta kolore- doikuntzak, iragazki artistikoak, opakotasun-doikuntzak eta deformazioak.

Animazio- eta mugimendu-teknikak, fotograma gako eta interpolazioen bitartez.

Hedapenerako bideo eta audio-irteera formatuak edo editatzeko aplikazioetara bidaltzeko formatuak.

Difusio-euskarrien tipologia eta banaketarako fitxategi digitalak.

Banaketarako arkitektura eta codec-ak.

DVD edo Blue-ray euskarri digitalean loop-a sortzeko metodologia.

Lanbide-jarduera behar bezala garatzeko sailen arteko koordinazioa.

Antolaketarako ardurak bereganatu eta adieraztea.

Burutu beharreko ekintzen sistematizazioa eta sekuentziazioa.

2.– Bideo-tresneria instalatu eta konfiguratzea.

Aretoaren ezaugarri teknikoak aztertzea, tresneriaren arteko konexio-diagramak aplikatuta.

Pantailak eta bideoak proiektatzeko azaleraren kokapena, tamaina eta kopurua definitzea musika- eta ikus-animazioko aretoetan.

Rider teknikoa eta gidaliburu teknikoetako konexio-eskemak aztertzea, irudi-tresneria muntatzeko.

Irudi-tresneria muntatzea eta, horretarako, erreprodukzio-ekipoak, ordenagailuak, matrizeak, bideratzaileak, nahasgailua, proiektagailuak eta monitoreak konektatzea.

Irudi-tresneriaren katea konfiguratu eta bideratzea.

Bideo- eta datu-seinaleak erreprodukzio, nahasketa, monitorizazio eta erakusketa-guneen artean norabidetzea.

Bideo-jockey aplikazioak zuzeneko ikus-nahasketa kudeatzen duen ekipamendu informatikoan konfiguratzea.

Mantentze-lanak planifikatu eta egitea.

Bideo-proiektagailu, telebista-pantaila eta LED pantailen tipologia eta ezaugarri teknikoak.

Musika- eta ikus-animazioko saioetarako irudi-instalazioen muntatze-prozesua, bloke-diagramak eta gidaliburu teknikoen kontsultatik abiatuta.

Seinale-doikuntza eta tratamendurako teknikak erreprodukzio, nahasketa, babes eta bistartzean.

Irudi-tresneriaren mantentze-lan prebentiboa eta matxurak antzemateko protokoloak.

Arreta ekipoak erabiltzean.

Tresnak finkatzeko erabakiak hartzeko autonomia.

Burutu beharreko ekintzen sistematizazioa eta sekuentziazioa.

3.— Musika- eta ikus-animazioko saioetan ikus-nahasketa zuzenean egitea.

Proiekzio-alorrak gunekako mapeaketa-aplikazioen bitartez doitzea, eta areto eta ikuskizuneko gunearen espazio-baldintzak kontuan hartuta.

Bideo-iturrien erreproduktoreekin eta irudi eta ikus-baliabideen difusiorako aplikazio informatiboekin aritzea.

Erreprodukzio-zerrendekinlan egitea, bideoak, grafikoak eta argazkiak helarazteko.

Ikus-piezaren tempoa doitzea eta sinkronizatzea, minutuko beat musika-erritmoaren egiturari dagokionez.

Euskarri digitaletan espezializatutako erreproduktoreekin lan egitea; Cue puntuak definitzea ikus-entzunezko piezak nahasteko.

Ikus-nahasketa eta musika-nahasketa sinkronizatzea.

Erreprodukzio-iturri ezberdinen arteko zuzeneko trantsizioak aplikatzea.

Musika- eta ikus-nahasketa aztertzea, erreferente sinbolikoak, erritmo-egiturak, trantsizioak eta eragin emozionala balioetsita.

Aldi berean erreproduzitutako ikus-entzunezko bi pieza nahastea musikarekin lotuta, eta, horretarako, iturriak kontrolatzeko ekipamendu bat eta bideo-nahasgailu bat erabiltzea. Halaber, iturrien txandatzea, aldaketa-puntuak eta horien arteko trantsizioak zehaztea.

Musika- eta ikus-animazioko saioan artista eta parte-hartzaileen aurkezpena egitea; errotulu, grafiko, argazki eta irudiak mugimenduan proiektatu eta aretoko programazioarekin lotzea.

Artista eta une bereziak aurkezteko tituluak animatzea, 2D eta 3Dko titulu-programekin.

Gunekako mapeaketa egiteko teknikak.

Bideo-iturrien erreproduktoreak eta difusiorako aplikazio informatikoak.

Ikus-elementuen balio espresibo eta sinbolikoak, musika-joerei dagokienez: afiniatea, kontrastea, disonantzia eta kontrapuntua.

Euskarri digitalen erreproduktore espezializatuen ezaugarri teknikoak.

Ikus-elementuen arteko zuzeneko trantsizioak: mozketa, gortinak, itzaltzeak, luminantzia- keyak eta krominantzia eta translazioak.

Luminantzia-key eta krominantzia, kolore-doikuntzak, iragazki artistikoak, markoak eta deformazioak egiteko zuzeneko efektu motak eta manipulatzeko teknikak.

Ordena eta metodoa lanak egitean.

Ikus-lengoaia ezagutzeko interesa erakustea.

Amaierako emaitzaren kalitatearekiko eta berau hobetzeko interesa erakustea.

4.– Luminoteknia-tresneria instalatzea.

Animazio-areto edo ikuskizun-espazio batek behar duen berariazko luminoteknia-tresneria aztertzea.

Argiztapen-gailu finkoak kokatu, norabidetu eta doitzea.

Gailu robotizatuak kokatu, doitu, enfokatu, konfiguratu eta sinkronizatzea.

Konexio-eskemak instalazio elektrikoen segurtasun-araudiari jarraiki aplikatzea.

Proiektagailuak eta gailu robotizatuak dimmer-etara konektatzea, linea elektriko eta DMX seinale-kableak banatuta.

Argiztatze-gailu finkoak lokaleko guneetara norabidetzea.

Argiztapen-gailuen mugimenduen bilakaera sinkronizatu edo askearen ebaluazio tekniko eta teknikoa, eta kolore- eta gobo-aldaketak.

Tresneria, kable, konektore eta argiztapen-koadroen mantentze prebentiboa egitea, gidaliburu teknikoetako protokoloak aplikatuta.

Argiaren ezaugarriak: kantitatea, kalitatea, kolorea eta norabidea.

Argi intzidente eta argi islatuaren magnitude fisikoak. Neurtzeko unitateak: kandela, lux eta lumen.

Argiaren kolorimetria: espektro kromatikoak, kolore-tenperatura eta kelvin graduak.

Ikuskizunak argiztatzeko gailuen tipologia: fresnel proiektgailuak, PAR, errekorreak, ispilu mugikorrek robotizatuak, 360º-ko robotizatuak eta led-barrak.

Ikuskizunak argiztatzeko osagarriak: kolore-aldaketak, gobo-aldaketa, iragazkiak eta ispilu-bolak.

Gailu bereziak: estroboskopikoak, laserrak eta ke-makinak.

Eusteko elementuak: truss, hankak, barrak, kakoak eta segurtasun-kableak.

Ikuskizunak argiztatzeko instalazio-eskemak. Bloke-diagrama.

Dimmer motak, zehaztapen teknikoak, konfigurazioa eta eragiketak.

Arreta ekipoak erabiltzean.

Erabakiak hartzeko autonomia izatea.

Ordena eta metodoa zaintzea eta kalitatearekiko interes berezia izatea.

5.– Zuzeneko lunimoteknia.

Argi-mahaiaren eta argiztatzeko kontrolatzeko programa informatikoaren hasierako konfigurazioa eta konexioa.

Mahai-kanalen banaketa dimmer-kanalei dagokienez.

Mahai-kanalei linea eta argiztatze-gailuak izendatzea.

Luminoteknia-mahaian sekuentziatuko diren eszenen eskaleta osatzea.

Efektuen sarrera musika, emanaldi eta ikus-bitartekoen proiektzioekin sinkronizatzea.

Mahai-efektuak sortu eta erritmo-aldaketak programatzea.

Mugimendu robotizatuak musika eta eskaletaren arabera programatzea.

Gailuak gune, funtzionaltasun edo eskaletaren faseen arabera banatzea, memoriaren bitartez; submasterrak izendatzea; zerrendak cues-en.

Eskaleta zuzenean jarraitzea.

Argi-mahaiaren eta argiztatzea kontrolatzeko programa informatikoaren hasierako konfigurazioaren ezaugarriak.

Argi-mahaiaren eta kontrolerako programa informatikoaren konexioak.

Mahai-kanalen eta dimmer-kanalen arteko izendatzea egiteko metodoa.

Argi-inprobisaziorako teknikak, musika, ikus-entzunezko emanaldi eta antzezpenen arabera.

Gertakariei aurre hartzeko teknikak.

Burutu beharreko ekintzen sistematizazioa eta sekuentziazioa.

Ikuste-lengoaia ezagutzeak duen garrantzia balioztatzea.

Instalazio-prozesuan gorabeherak aurreikustea.

7. lanbide-modulua: Irudiaren hartze eta edizio digitala

Kodea: 1304

Kurtsoa: 1

Iraupena: 231 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Bistaratu, digitalizatu eta hartzeko gailuak doitu eta bereizten ditu, eta jatorrizko irudi finko analogikoak irudi digital bihurtzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Bistaratu, digitalizatu eta hartzeko gailuak baldintza normalizatuetan kalibratu ditu, eta, hartara, erantzunaren egonkortasuna eta konfigurazio bakoitzerako emaitzak errepikatzea lortu du.
- b) Bistaratzeko gailu bakoitzaren irudiaren kalitatea ezarri du, irizpide teknikoen arabera; balio kromatikoak neurtu ditu (monitore, pantaila eta bideo-proiektagailuenak), eta doitze-kartak, probak eta neurtzeko eta kalitatea kontrolatzeko tresnak erabili ditu.
- c) Gailuak ezaugarritu ditu, kolorea ingurune grafiko eta aplikazio ezberdinetan konfiguratu eta kudeatuta, eta beharrezko kolore-profilak biltegiratu eta aktibatuta.
- d) Lan-eremua monitore eta idazmahai birtualak konfiguratzeko antolatu du, eta giroko argiaren eta islapenen kontrolaren baldintzak doitu ditu, bistaratzeko pantailen lanerako aplikagarria den araudia kontsultatuta.
- e) Digitalizatu eta hartzeko gailuak doitu ditu, berariazko aplikazio, kolore-karta, patroiz estandar edo berezko falkak erabilia.
- f) Jatorrizko analogikoak digitalizatu eta hartu ditu, enkoadraketa, mailakatze eta ebazpen egoiarekin, beharrezko ekipo (eskaner eta argazki-kamera) eta softwarea erabiliz, eta emaitzaren kalitatea balioetsi du.

2.– Argazki- eta bideo-irudiak musika- eta ikus-animazioko piezentzat hartzen ditu, ikus-entzuzko lengoaiaren baliabideak erabilia; horien espresibitatea indartu, eta horren aldi bereko difusioa saioaren musika-estilo eta luminoteknia-efektuekin aurreratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Beharrezko argazki- eta bideo-irudiak zehaztu ditu, aurretik beste bitarteko edo euskarrietan eskuragarri ez zeudenak; ondoren, horiek hartzeko, irudien eta aretoaren argiztapenaren arteko lotura kontuan hartuta.
- b) Hartzearen enkoadraketan antolatu ditu, parte hartzen duten elementu eta pertsonak, bideo- edo argazki-kameraren ikuspuntuaren eta proiektzioaren musika-estiloaren arabera.
- c) Argazki- edo bideo-kameran pixeletako irudiaren tamaina, irudiaren itxura, konpresio mota eta, hala badagokio, grabazio-formatuari dagozkion doikuntzak egin ditu.
- d) Bideo- eta argazki-kameretan kolore-tenperatura, diafragma eta obturazioa doitu ditu, hartu beharreko eszenaren argiztapenaren arabera.
- e) Beharrezko argazki-flash edo «argiztapen arina» jarri dio, eszenaren argi-baldintzak argazki edo bideoak hartzeko gailuetara egokitzeko.
- f) Bideo- eta argazki-kamerarekin erregistratu ditu hartze, plano eta sekuentziak, ondoren ikus-animazioko saioan erabiltzeko. Horrez gain, horiek identifikatzeko beharrezko informazioa duten metadatuak txertatu ditu.

3.– Bit-mapen irudien tratamendu digitala egin du, kolore-, formatu- eta kontraste-ezaugarriak balioetsita, eta irudi finkoak sortu, prozesatu eta ukitzeko teknikak erabili ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ikus-materialak egiteko beharrezko irudi finkoen ezaugarriak zehaztu ditu, gidoi tekniko, storyboard, zehaztapenak, maketak eta produkzio ordenetatik abiatuta.

b) Irudi finkoko jatorrizko analogikoaren kolore-dominanteak, akatsak eta bestelako anomaliak zuzendu ditu, eta kolorearen modua eta sakonera, ebazpena, dimentsioak eta formatua doitu ditu, eskaneatze edo tratamendu digitalaren berariazko aplikazioaren bitartez.

c) Kontraste, gris-oreka, distira eta asetze-doikuntzak egin ditu, eta emaitza irudien bitartekoa-
ren ezaugarri edo amaierako euskarriara egokitu du.

d) Akatsak, ezpurutasunak eta elementu ez desiragarriak ezabatu ditu, irudien ukitze-digitale-
rako teknika eta erremintak erabiliz.

e) Irudiak helburu den baliabidearen edo euskarriaren ezaugarri teknikoetara egokitu eta doitu
ditu, eta, hala badagokio, ikus-materiala osatzeko beharrezko irudi finkoen espazio-denbora erre-
gistroa eta sekuentzien jarraipena bermatu ditu.

f) Irudi sintetikoak sortu ditu, hala nola, fraktalak eta funtzio kaotiko interaktiboak, eta, horreta-
rako, irudiak prozesatzeko eta sorrera algoritmikorako teknikak erabili ditu.

g) Tarteko eta behin betiko probak egin ditu, eta, horretarako, lortutako fitxategi digitala sortu eta
berau behar bezala bistaratu edo inprimatzen dela egiaztatu du.

4.– Bit-mapen irudiekin fotomuntaiak egin ditu, irudi finkorako muntaia eta edizio digitalerako
berariazko teknika eta erremintak erabilia.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Helburu den muntaia diseinatu du; berori osatuko duten irudiak zehaztu eta horien tratamen-
dua definitu du.

b) Fotomuntaiarako beharrezko elementuak aldatu ditu, horien tamaina, ebazpena eta
kolore-modua doituta.

c) Helburu den fotomuntaiaren atzealdeak eta subjektuak doitu eta bateratu ditu, eta, horreta-
rako, kontuan hartu ditu konposizio, argiztapenaren norabidea, perspektiba (lineala edo airezkoa),
tamaina, justaposizioa, bolumena eta fokuratze diferentzialaren ezaugarriak.

d) Beharrezko maskara eta trazadurak egin ditu, eta geruzetan antolatu ditu fotomuntaiako ele-
mentuak, horren edizioa eta konposizioa errazteko.

e) Irudien panoramikak muntatu ditu, eta, horretarako, kontrolerako puntuak erabili ditu,
proiektzio-planoaren gainean irudien arteko konexioak ezarri, eta, hala badagokio, paralaje-aka-
tsak zuzentzeko.

f) Fotomuntaiako elementuak modu hautemanezinean fusionatu ditu; mailakatze sakonak (alia-
sing) ekidin, eta, besteak beste, birmapaketa eta interpolaziorako teknikak erabili ditu.

5.– Irudi bektorialen tratamendua eta edizioa egin du, izaera eta funtzionalitate ezberdineko
elementuak integratuz, eta sorrera, edizio eta tratamendu bektorialerako berariazko teknika eta
erremintak erabili ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Beharrezko elementuak zehaztu ditu (grafikoak, testuak, ikurrak eta logotipoak, besteak
beste) irudi bektoriala osatzeko, horren funtzionalitatearen arabera.

b) Bit-mapako irudiak elementu bektorial trazatu edo bihurtu ditu, eta, hala badagokio, argi-
tasuna mozteko mugak, kolore-mugak edo ertzak antzemateko mugak ezarri ditu. Horretarako,
bektorizazio-teknikak eta tresnak erabili ditu.

c) Trazadura eta betegarrietan zuzenketak, kolore-transformazioak eta bolumen-efektuak egin ditu, kolore-manipulazio eta -doikuntzarako berariazko teknika eta erremintak erabilia.

d) Beharrezko transformazio geometrikoak (biraketak, translazioak eta mailaketak) eta perspektiba-efektuak egin ditu, edizio bektorialerako berariazko teknika eta erremintak erabilia.

e) Lortutako irudi bektorialak helburu den baliabidearen edo euskarriaren ezaugarrietara egokitu ditu, eta, hala badagokio, beharrezko nodoak txertatu eta Bézier kurbak berdindu ditu frame modura esportatzeko laser proiektagailuen kontrol-aplikazioetara.

6.— Ikus-piezak musika- eta ikus-animazioko saioetarako editatu ditu, eta, horretarako, grafiko eta irudi finkoen sekuentzia dinamikoak sortu, eta musika-joerekin lotutako ikus-entzunezko muntaien teknikak aplikatu ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Proiektua grafiko eta irudi finkoen sekuentziazio dinamikoko edo edizio ez-linealeko aplikazioan konfiguratu du, eta, horretarako, jatorrizko eta amaierako materialari dagokion formatua pentsatu du, eta hainbat formatu-parametro doitu ditu, hala nola, irudiaren tamaina pikeletan, irudiaren itxura, konpresio mota eta audioaren aukerak.

b) Bideo-klipak, argazkiak, grafikoa eta soinu-elementuak denbora-lerroan editatu ditu; planoen arteko trantsizioak egin, eta, hala badagokio, irudiaren iraupena audioarekin sinkronizatu du.

c) Hainbat mota eta estilotako errotuluak sortu ditu edizio ez-linealerako aplikazioko titulagailuan, eta aurretiaz zehaztu du berau irudian edizio osoan txertatzea.

d) Behin betiko bideoaren looparen tonua eta kolorea harmonizatu ditu.

e) Irudi multzoa edo bideo- loopa sekuentziazio dinamikoko edo edizioko programatik esportatu du, ondoren erreproduzitzeko beharrezko formatuan.

B) Edukiak:

1.— Gailuak doitu eta ezaugarritzea, eta jatorrizko analogikoak digitalizatu eta hartzea.

Bistaratu, digitalizatu eta hartzeko gailuen ezaugarri teknikoak aztertzea.

Bistaratzeko gailuak kalibratu, doitu eta ezaugarritzea.

Bistaratzeko gailu ezberdinek eskaintzen duten irudiaren kalitatea zehaztea, neurtzeko erreminta teknikoak erabilia.

Datuak bistaratzeko pantailekin (DBP) lan egitea:

Digitalizatzeko gailuak kalibratu, doitu eta ezaugarritzea.

Ingurune grafiko eta aplikazioetan kolorea konfiguratu eta kudeatzea.

Digitalizatu eta hartzeko gailuak doitzea.

Ekipamenduak kalibratzeko berariazko aplikazioak, kolore-kartak eta patroi estandarra erabilia.

Jatorrizko analogikoak digitalizatu eta hartzea, behar bezalako enkoadraketa, mailakatze eta ebazpenarekin.

Irudiak hartzeko ekipamenduekin (eskanerra eta argazki-kamera) eta beharrezko softwarearekin lan egitea, emaitzaren kalitatea kontuan hartuta.

Bistaratzeko gailuak:

- Lan-eremua.
- Proba-bateriak eta ezaugarritzea.
- Pantailaren ebazpena, kolore-tenperatura, distira eta kontrastea.
- Kalitatea neurtzeko eta kontrolatzeko tresnak.

Bistaratzeko gailuen ezaugarri teknikoak:

- Pantailen ezaugarriak.
- Hazbeteak, pixel-tamaina (mm), formatua, berezko ebazpena (pixelak), V/H ikus-angelua (graduak), distira (cd/m^2), kontrastea, erantzun-denbora (ms) eta maiztasuna (Hz).
- Bideoproiektagailu eta bestelako bistaratzeko gailuen ezaugarriak.

Datuak bistaratzeko pantailak (DBP):

- Alderdi ergonomikoak eta aplikatu beharreko segurtasun-araudia.
- Giroko argiztapenaren baldintzak eta islapenen kontrola.
- Pantailen irudiaren kalitatea.

Kolorearen hautematea, interpretazioa eta kudeaketa:

- Aldagai fisikoak.
- Kolore normalizatuak eta sailkatze-sistemak.
- Sintesi gehigarria eta murrizgarria, kolore-ereduak.
- Ingurune grafiko eta aplikazioetan kolorea kudeatzea.
- ICC profilak.
- Kolorea zehaztu eta kudeatzeko UNE eta ISO gomendioak.

Digitalizatzeko gailuak:

- Digitalizazioaren kalitate-ezaugarri eta -kontrola.
- Digitalizazio-parametroak.

Digitalizatu eta hartzeko gailuen ezaugarriak:

- Opakuen eta gardenkien eskanerren ezaugarriak.
- Irudia digitalizatu eta hartzeko teknologiak.
- Jatorrizko irudi analogikoak eskanerren bitartez digitalizatzea.
- Jatorrizko planoak argazki-kameren bitartez hartzeko teknikak.

Irudi finkoko euskarri analogikoen ezaugarriak:

- Jatorrizko irudi analogiko mota, kolorea, kontrastea eta egoera.

- Digitalizatutako irudiaren kalitatearen ebaluazio teknikoa.
- Ebazpena, kolorearen sakonera, zurien balantzea, kolore-gama, argien kontrastea, itzalak eta tarteko tonuak.
- Kurba eta histogramak interpretatzea.
- Akatsak argazki-negatibo, diapositiba eta kopia positiboetan.
- Kolore-dominanteen erregistroa argazki-irudietan.
- Kalitatea kontrolatzeko orrietan akats eta anomaliak erregistratzea.

Jarrera arduratsua, ordenatua eta metodikoa.

Ekipamendu teknikoa behar bezala erabiltzea.

Kalitatearekiko konpromisoa lana garatzean.

Lanak autonomiaz egitea eta gorabeherak ebazteko ekimena erakustea.

2.– Argazki eta bideoko irudiak hartzea.

Elementuak enkoadraketan antolatzea, bideo- edo argazki-kameraren ikuspuntuari lotuta.

Irudia konposizioaren irizpidearen eta gidoiaren arabera hartzea.

Argazki- edo bideo-kameran pixeletako irudiaren tamaina, irudiaren itxura, konpresio mota eta, hala badagokio, grabazio-formatuari dagozkion doikuntzak egitea.

Fokuratze-distantzia ezberdinen errendimendua ebaluatzea eta berau estaldura-angelu, argitasun, distortsio eta eremu-sakonerarekin lotzea.

Bideo- eta argazki-kameretan kolore-tenperatura, diafragma eta obturazioa doitzeko, hartu beharreko eszenaren argiztapenaren arabera.

Bideo-kameretako audioaren parametroak doitzeko soinu-kanal eta aukerak aztertzea.

Beharrezko argazki-flasha edo «argiztapen arina» jartzea, eszenaren argi-baldintzak argazki edo bideoak hartzeko gailuetara egokitzeko.

Bideo- eta argazki-kamerarekin erregistratzea hartze, plano eta sekuentziak, ondoren ikus-animazioko saioan erabiltzeko. Horrez gain, horiek identifikatzeko beharrezko informazioa duten metadatuak txertatu ditu.

Argazki-kameren tipologia eta ezaugarriak:

- Sentsoreen formatuak, motak eta tamainak.
- Itxura-erlazioa.
- Onartzen dituen fitxategi motak eta konpresioak.
- Esposizio-adierazleen gama.
- Obturazio-abiadurak eta irudiaren gaineko efektuak.

Argazki-objektiboen tipologia eta ezaugarriak:

- Objektibo motak.
- Foku-distantziak, optika finkoak eta zoom objektiboak.
- Fokuak, formatuak, estaldura-angeluak eta zabaltzeko faktoreak.
- Fokuratzea eta eremu-sakonera.
- Diafragma eta F zenbakiak.

Argazki-kamerekin lan egitea:

- Sentsibiltate, argiztapen, obturazio-abiadura eta diafragmaren arteko loturak.
- Enkoadraketa-aren konposizioa.
- Bat-bateko argazkien teknikak.
- Erretratu-teknikak.
- Mugimenduan dauden objektu edo pertsonen irudia hartzeko teknikak.

Bideokameren tipologia eta ezaugarriak:

- Bideokameren tipologia eta funtzionaltasuna.
- Bideo-formatuak, konpresioak, Codec, sentsore motak eta tamainak.
- Grabazio-euskarria.
- Denbora-kodearen modalitateak.
- Itxura-erlazioak: 4:3 eta 16:9
- Pixelaren itxura-erlazioa.
- Segundoko irudiak eta esplorazioa.
- Kanalak eta audio aukerak.
- Objektibo integratuak eta optika trukagarriak.
- Motak eta irudiaren gaineko efektuak.

Bideokamerekin lan egiteko teknikak:

- Enkoadraketa- eta fokuratze-teknikak.
- Kameraren mugimenduak.
- Luminantziako doikuntzak eta kolorea.
- Mikrofonoen konexioa eta lineak.
- Monitorizazioa eta mailen doikuntza.

Argi-baldintzak doitzeko metodoak argazki- flash eta argiztapen arinaren bitartez:

- Argazkigintzarako argiztapen-aparatuak.
- Bideogintzarako argiztapen-aparatuak.
- Bideogintzarako argi-baldintzak hobetzea.

Bideo-sekuentziak hartzeko teknikak ikus-animazioko piezentzako behar bezalako fragmentazio eta eszenaratzeekin:

- Irudia hartzeko espazioa antolatzea.

- Sekuentzia eta planoak antolatzea.

Irudiak identifikatzeko teknika eta metadatu-etiketak editatzea.

Irudi digitalizatuen metadatuak editatzeko ezaugarriak.

Kamera digitalak eta metadatuaren berariazko tag-ak (Exif, IPTC).

Jarrera arduratsua, ordenatua eta metodikoa.

Ekipamendu teknikoa behar bezala erabiltzea.

Kalitatearekiko konpromisoa lana garatzean.

Lanak autonomiaz egitea eta gorabeherak ebazteko ekimena erakustea.

3.– Bit-mapako irudien tratamendu digitala.

Ikus-materialak egiteko beharrezko irudi finkoen ezaugarriak zehaztea, gidoi tekniko, storyboard, zehaztapenak, maketak eta produkzio ordenetatik abiatuta.

Transformazioak, mailaren zuzenketak eta kolore-oreka aplikatzea:

- Irudi finkoko jatorrizko analogikoaren kolore-dominanteak, akatsak eta bestelako anomaliak zuzentzea, eta kolorearen modua eta sakonera, ebazpena, dimentsioak eta formatua doitzeta, eskaneatze edo tratamendu digitalaren berariazko aplikazioaren bitartez.

- Kontraste, gris-oreka, distira eta asetze-doikuntzak egitea eta emaitza irudien bitartekoaren ezaugarri edo amaierako euskarriara egokitzea.

Irudien ukitu digitalak egitea:

- Akatsak, ezpurutasunak eta elementu ez desiragarriak ezabatzea, irudien ukitu digitalerako teknika eta erremintak erabiliz.

Irudiak helburu den baliabidearen edo euskarriaren ezaugarri teknikora egokitu eta doitzeta.

Irudi sintetikoak ordenagailu bitartez sortzea:

- Irudi sintetikoak sortzea, hala nola, fraktalak eta funtzio kaotikoa interaktiboak.

- Irudiak prozesatu eta algoritmikoki sortzeko teknikak erabiltzea.

Tarteko eta behin betiko probak egitea, berau behar bezala bistaratu edo inprimatzen dela egiaztatuta.

Gidoiak, storyboard, zehaztapen teknikoak, maketak eta produkzio-ordenak.

Transformazioak, mailaren zuzenketak eta kolore-oreka:

- Kolore-espazioak.

- Gamma, luminantziako kodifikazio-dekodifikazioa edo kolore-balioak.

- Kolore-dominanteak zuzentzea.

- Gris-eskala moduak, benetako kolorea eta kolore indexatua.
- Ebazpena (pixelak), kolorearen sakonera (bit) eta fitxategiaren tamaina.
- Dimentsioak eta formatua.
- Kanal-bereizketa eta -nahasketa.
- Gainesposizio- eta azpiesposizio-doikuntzak.
- Kontrasteen doikuntza, grisen oreka, distira, tonuak eta saturazioa.

Irudien tratamendua eta ukitu digitala:

- Konboluzio-erremintak (fokuratzea eta desfokuratzea).
- Akats eta anomaliak zuzentzea, erregistratuak eta jatorri teknikokoak.
- Akatsak, ezpurutasunak eta elementu ez desiragarriak ezabatzea.
- Indartzea, zorroztea eta parasitoak kentzea.
- Marrazketa- eta pintura-teknikak eta erremintak.
- Klonazio-teknikak eta erremintak.
- Tonu edo kolore kopuruaren murrizketa (posterizazioa).

Irudi digitalak helburu den baliabide edo euskarrira egokitzeko ezaugarriak:

- Pixelaren kolorearen kuantizazioa eta irudikatze-maila diskretuak.
- Kolore-hurbilpena difusio-tramatuaren bitartez egitea (dithering)
- Kolore indexatua (taula-indizeak, paletak eta kolore-mapak).
- Kolorearen zehaztapena hiruko hamaseitarretan.
- Fitxategiak biltegitratzeko formatu egokiak.
- Irudi finakoak konprimitzeko algoritmo eta formatuak.
- Biltegitratze digitalerako euskarriak: optikoak, magnetikoak eta magnetoskopioak, besteak beste.

Irudi sintetikoak ordenagailu bitartez:

- Irudiak sortu eta prozesatzeko softwarea.
- Irudi fraktalak sortzeko teknikak.
- Funtzio kaotiko iteratiboak.
- Irudiak, atzealdeak, tramak eta ehundurak algoritmikoki sortzea.

Bistaratzea eta inprimatzea:

- Bistaratze- eta erreprodukzio-sistemak, helburu diren baliabide eta euskarriak.
- Probatzeko zerrendak, adabakiak, erregistratzeko elementuak eta eskalak.
- Irudi-serieen sekuentzi-erreprodukzioaren probak.

Musika- eta ikus-animazioko saioetan erakusteko baldintzak.

Jarrera arduratsua, ordenatua eta metodikoa.

Ekipamendu teknikoa behar bezala erabiltzea.

Kalitatearekiko konpromisoa lana garatzean.

Lanak autonomiaz egitea eta gorabeherak ebazteko ekimena erakustea.

4.– Bit-mapako irudien fotomuntaia digitala.

Irudien eta muntaia grafikoko beste elementuen tamaina, ebazpena eta kolore modua hautatu eta doitzea, diseinuan adierazitako jarraibideen arabera.

Fotomuntaiako atzealdeak eta subjektuak harmonizatzea, konposizio- eta argiztapen-ezaugarriak kontuan hartuta.

Itxurazko tamaina, justaposizioa, bolumena eta fokuratze diferentziala editatzea, atzealdeko elementuak eta lehen planoko subjektuak fusionatzeko.

Maskara eta trazatuak egitea edizio eta konposiorako.

Irudi-panoramikak muntatzea, kontrol-puntuak erabilita eta paralaje akatsak zuzenduta.

Fotomuntaiako elementuak fusionatzea, talde homogeen baten txertatuz eta edizio digitale-rako tresnak erabiliz.

Mailakatze sakonak (aliasing) tratatzea, birmapaketa eta interpolaziorako teknikak erabilita.

Irudiaren ikus-konposizio eta egituraren teknikak:

- Espazioaren eta sakoneraren pertzepzioa.
- Espazioa sortzeko prozedura artifizialak.
- Ikuspegi mistoa eta efektu surrealista eta fantastikoak.

Irudi digitalen fotomuntaia egiteko teknikak eta tresnak:

- Konposizioari laguntzea.
- Eraldaketa geometrikoak.
- Perspektiba-zuzenketa eta -doikuntzak.
- Perspektiba lineala, berrenkoadraketak eta ihes-puntuaren deszentratzea.
- Atzealde eta subjektuen harmonizazioa.
- Trazatze-, hautatze- eta maskaratze-teknikak.
- Geruzen bidezko lana.
- Geruza-maskara, kanal-maskara (hautespena) eta alfa kanala.
- Esposizio bikoitzeko efektuak eta gaininpresioa sortzea.
- Panoramikak eta irudi-mosaikoak muntatzea.

- Mailakatzeen fusioa eta leuntzea.
- Ukituak, degradatuak, iraungipenak eta kalatuak.
- Konboluzio-iragazkiak.

Deformazio-iragazkiak, distortsioak eta efektu bereziak.

Jarrera arduratsua, ordenatua eta metodikoa.

Ekipamendu teknikoa behar bezala erabiltzea.

Kalitatearekiko konpromisoa lana garatzean.

Lanak autonomiaz egitea eta gorabeherak ebazteko ekimena erakustea.

5.– Irudi bektorialak tratatzea eta editatzea.

Beharrezko elementuak zehaztea (grafikoak, testuak, ikurrak eta logotipoak, besteak beste) irudi bektoriala osatzeko.

Bit-mapen trazadura egitea, bektorizazio-teknikak eta -erremintak erabilia.

Zuzenketak, kolore-transformazioak eta bolumen-efektuak egitea trazadura eta betegarrietan.

Tresna bektorialak aplikatzea geometria eta perspektiba-efektuak editatzeko.

Irudiak helburu den baliabidearen edo euskarriaren ezaugarrietara egokitzea.

Irudi bektorialak optimizatzea, frame modura, laser proiektagailuen kontrol-aplikazioetara esportatzeko.

Irudi eta grafiko bektorialak, diseinu-printzipio eta elementuak:

– Balantzea (simetria eta ikus-pisua), kontrastea, enfasia, proportzioa, patroiak, mailaketa eta konposizioa (estatikoa eta dinamikoa).

– Linea, forma, tamaina, espazioa, kolorea, ehundura eta saturazioa (balioa).

Tratamendu eta edizio bektorialerako teknikak eta tresnak:

– Bit-mapa eta bektorialen irudiak (diferentziak).

– Elementuak inportatzea (irudiak, grafikoak, testuak, ikurrak eta logotipoak, besteak beste).

– Bit-mapako irudiak trazatu eta bektorizatzea.

– Antolaketa geometrikoa, konposizio eta euskarri-egiturentzako laguntzak: erregelak, gidak eta sareak (angeluzuzenak eta axonometrikoak).

– Boole eragiketak eta objektuen konbinazioa.

– Bézier kurbak: kontrol-puntuak, ainguraketa-nodoak eta kudeatzaileak.

– Kolore-transformazioak eta bolumen-efektuak.

– Transformazio geometrikoak eta perspektiba-efektuak.

– Zabaltzea, uzkuertzea, formen sinplifikazioa eta ibilbide-efektuak.

Testu bektorialekin lan egiteko teknikak eta tresnak:

- Testu-edukiaren irakurgarritasuna:
- Errotuluak, izenburuak eta testuaren gorputza.
- Testuak trazadura eta formatan editatzea.

Irudi bektorialak helburu diren baliabide edo euskarrietara:

- Jatorrizko formatu bektorialak, esportatzekoak eta trukatzekoak.
- XML lengoaia eta SCG formatu estandarra.

Irudi bektorialak optimizatzea eta esportatzea, frame modura, laser proiektagailuen kontrol-aplikazioetarako.

Jarrera arduratsua, ordenatua eta metodikoa.

Ekipamendu teknikoa behar bezala erabiltzea.

Kalitatearekiko konpromisoa lana garatzean.

Lanak autonomiaz egitea eta gorabeherak ebazteko ekimena erakustea.

6.– Musika eta ikus animazioko saioetarako ikus piezak editatzea

Proiektua edizio-aplikazioan konfiguratzea, honako hauek kontuan hartuta: jatorrizko materialari eta helburu duen hedapenari dagokion formatua, irudiaren tamaina pixeletan doitzeta, itxura-erlazioa, konpresio mota eta audiorako aukerak.

Bideo-klipak, argazkiak, grafikoa eta soinu-elementuak denbora-lerroan editatzea, planoen arteko trantsizioak egin eta, hala badagokio, irudiaren iraupena audioarekin sinkronizatzea.

Sekuentzia dinamikoak editatzea, hala nola, framez frame, stopmotion, interpolazioa edo morphing.

Ebaketa-maskarak egitea, proiektuaren eskakizunen arabera.

Animaziozko sekuentziak eta 2D eta 3D grafikoak alfa kanalarekin inportatzea.

Mota eta estilo anitzeko errotuluak eta sortzea edizio ez-linealeko aplikazioaren titulagailuan.

Proiektatuko den bideo-looparen tonua eta kolorea harmonizatzea.

Irudi multzoa edo bideo- loopa sekuentziazio dinamikoko edo edizioko programatik esportatzea, ondoren erreproduzitzeko beharrezko formatuan.

Proiektu-konfigurazioa grafiko eta irudi finkoko sekuentziazio dinamikoko eta edizio ez-linealeko aplikazioetan: bideo-formatuen ezaugarriak.

Bideo-klipak, irudiak eta audioak sekuentziazio dinamiko eta edizioko programetara inportatzeko aukerak.

Irudi finkoak, grafiko bektorialak eta bestelako elementuen sekuentziazio dinamikorako teknikak:

- Framez frame, stopmotion, interpolazioa eta morphing.
- Trazadura edo gida bidezko mugimendua.

- Ezkutatze-maskaren bidezko mugimendua.
- Grafiko eta irudi finkoen sekuentzia ziklikoak sortzea (begizta edo loop-ak).

Denbora-lerroan editatzeko teknikak:

- Txertatze, gainjartze eta erauzketa bidezko edizioak.
- Edizioen doikuntza fina.
- Trantsizio motak eta parametroak.

Errotulu finkoak nahiz mugimenduan sortzeko teknikak:

- Errotulu estiloak sortu eta editatzea.
- Errotuluak roll eta crawl motan editatzea.

2D eta 3D grafikoak inportatu eta integratzeko teknikak:

- Inkrustazio modalitateak.
- Alfa kanala, gardentasuna eta ebaketa doitzea.

Editatutako piezak hedapenerako euskarri eta fitxategietara esportatzeko teknikak:

- Esportatu beharreko materialaren ezaugarri teknikoak zehaztea, helburuaren arabera.
- Irteera-parametroen konfigurazioa.

Ezaugarri teknikoak euskarrira egokitzea.

Jarrera arduratsua, ordenatua eta metodikoa.

Ekipamendu teknikoa behar bezala erabiltzea.

Kalitatearekiko konpromisoa lana garatzean.

Lanak autonomiaz egitea eta gorabeherak ebazteko ekimena erakustea.

8. lanbide-modulua: Ingeles teknikoa

Kodea: E100

Kurtsoa: 1

Iraupena: 33 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Tituluaren lanbide-esparruarekin eta eskainitako produktuarekin/zerbitzuarekin lotutako ahozko informazioa interpretatu eta erabiltzen du, eta haren ezaugarriak eta propietateak, enpresa motak eta horien kokapena identifikatu eta deskribatzen du.

Ebaluazio-irizpideak

a) Zuzeneko mezuaren, telefono bidezkoaren edo entzunezko beste bitarteko baten bidezkoaren xedea ezagutu du.

b) Ahozko mezu zehatzak adierazi ditu egoera puntualak ebazteko: hitzordu bat, produktu bat igortzeko/jasotzeko datak eta baldintzak, makina/gailu baten oinarrizko funtzionamendua.

c) Ahozko argibideak ezagutu ditu eta enpresaren testuinguruan emandako adierazpenei jarraitu die.

d) Sektorearen berezko produktuak edo zerbitzuak deskribatzeko termino tekniko zehatzak erabili ditu.

e) Mezu bat bere elementu guzti-guztiak ulertu beharrik gabe orokorrean konprenitzea zeinen garrantzitsua den konturatu da.

f) Emandako informazioen ideia nagusiak laburbildu ditu bere hizkuntza-baliabideak erabilita.

g) Beharrezkotzat jo duenean diskurtsoa edo horren zati bat berriz formulatzeko eskatu du.

2.– Sektorearen eta nazioarteko merkataritza-transakzioen berezko dokumentuak interpretatu eta betetzen ditu: ezaugarriei eta funtzionamenduari buruzko eskuliburua, eskabide-orria, jasotze- edo entrega-orria, fakturak, erreklamazioak.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Berariazko informazioa atera du eskainitako produktuarekin edo zerbitzuarekin lotutako mezuetatik (publizitate-liburuxkak, funtzionamenduari buruzko eskuliburua) eta bizitza profesionalarekin zerikusia duten eguneroko alderdietatik.

b) Merkataritza-transakzioei buruzko dokumentuak identifikatu ditu.

c) Dagokion lanbide-esparruko merkataritza-dokumentazioa eta berariazko dokumentazioa bete ditu.

d) Euskarri telematikoen bitartez (e-posta, faxa, besteak beste) hartutako mezua interpretatu du.

e) Lanbidearen berezko terminologia eta hiztegia zuzen erabili ditu.

f) Testuen deia nagusiak jaso ditu.

g) Bere lanbide-ingurunearekin erlazionatutako testuen laburpenak egin ditu.

h) Sektoreko web-orri bateko oinarrizko informazioak identifikatu ditu.

3.– Komunikazio-egoeretan jarrera eta portaera profesionalak identifikatu eta aplikatzen ditu, herrialde bakoitzarekin ezarritako protokolo-arauak eta haren ohiturak errespetatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den erkidegoko ohitura eta usadioen ezaugarri esanguratsuenak definitu ditu.

b) Herrialdearen berezko gizarte- eta lan-harremanetako protokoloak eta arauak deskribatu ditu.

c) Sektorearen berezko alderdi sozioprofesionalak identifikatu ditu edozein testu motatan.

d) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdearen berezko gizarte-harremanetako protokoloak eta arauak aplikatu ditu.

B) Edukiak:

1.– Ahozko mezuak ulertu eta sortzea.

Sektoreko mezu profesionalak eta egunerokoak ezagutzea.

Zuzeneko mezuak, telefono bidezkoak eta grabatutakoak identifikatzea.

Ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea.

Ahozko mezuak igortzeko erabiltzen diren erregistroak hautatzea.

Ahozko diskurtsoa mantentzea eta jarraitzea: sostengua ematea, ulertzen dela erakustea, argitzeko eskatzea, eta bestelakoak.

Nahikoa ulertzeko soinuak eta fonemak egoki sortzea.

Gizarte-harremanen markatzaile linguistikoak, adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak hautatzea eta erabiltzea.

Sektoreko terminologia espezifikoa.

Gramatika-baliabideak: aditz-denborak, preposizioak, adberbioak, lokuzio preposizionalak eta adberbialak, erlatibozko perpausak, zehar-estiloa, eta bestelakoak.

Hots eta fonema bokalikoak eta kontsonantikoak. Konbinazioak eta elkarteak.

Atzerriko hizkuntzak lanbide-munduan duen garrantziaz konturatzea.

Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea.

Atzerriko hizkuntzan komunikatzeko norberaren gaitasunaz jabetzea.

Hizkuntza bakoitzaren berezko adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak errespetatzea.

2.– Idatzizko mezuak interpretatzea eta adieraztea.

Mezuak formatu desberdinetan ulertzea: eskuliburuak, liburuxkak, eta oinarrizko artikulua profesionalak eta egunerokoak.

Ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea.

Denbora-erlazioak bereiztea: aurrekotasuna, gerokotasuna, aldiberekotasuna.

Sektoreko berezko testu erraz profesionalak eta egunerokoak lantzea.

Lexikoa hautatzea, egitura sintaktikoak hautatzea, horiek egoki erabiltzeko eduki adierazgarria hautatzea.

Sektoreko terminologia espezifikoa.

Euskarri telematikoak: faxa, e-posta, burofaxa, web-orriak.

Protokolo-formulak idazki profesionaletan.

Nazioarteko transakzioekin lotutako dokumentazioa: eskabide-orria, jasotze-orria, faktura.

Heziketa-zikloarekin lotutako konpetentziak, lanbideak eta lanpostuak.

Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea.

Beste kultura eta gizarteetako ohiturak eta pentsamoldea errespetatzea.

Testuaren garapenean koherentziaren premia baloratzea.

3.– Herrialdearen berezko errealitate soziokulturala ulertzea.

Komunikazio-egoera bakoitzerako kultura-elementurik esanguratsuenak interpretatzea.

Enpresaren irudi ona proiektatzeko portaera sozioprofesionala eskatzen duten egoeretan balia-bide formalak eta funtzionalak erabiltzea.

Atzerriko hizkuntza (ingeleza) mintzatzen den herrialdeen elementu soziolaboral esanguratsuak.

Nazioarteko harremanetan gizarte- eta kultura-arauak eta protokolokoak baloratzea.

Bestelako usadioak eta pentsamoldeak errespetatzea.

9. lanbide-modulua: Laneko prestakuntza eta orientabidea

Kodea: 1305

Kurtsoa: 2

Iraupena: 105 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.— Lan-munduratzeko eta bizialdi osoko ikaskuntzako hautabideak identifikatu ondoren, lan-aukerak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Etengabeko prestakuntzaren garrantzia baloratu du, enplegatzeko aukerak zabaltzeko eta produkzio-prozesuaren eskakizunetara egokitzeko funtsezko faktore gisa.

b) Tituluaren lanbide-profilari lotutako prestakuntza-ibilbidea eta ibilbide profesionala identifikatu ditu.

c) Profilari lotutako lanbide-jarduerarako eskatzen diren gaitasunak eta jarrerak zehaztu ditu.

d) Tituludunarentzako lanerako eta lan-munduratzeko hobi nagusiak identifikatu ditu.

e) Lana bilatzeko prozesuan erabiltzen diren teknikak zehaztu dira.

f) Tituluari lotutako lanbide-sektoreetan autoenplegurako hautabideak aurreikusi ditu.

g) Erabakiak hartzeko nortasuna, helburuak, jarrerak eta norberaren prestakuntza baloratu ditu.

2.— Talde-laneko estrategiak aplikatzen ditu, eta erakundearen helburuak lortzeko duten eragin-kortasuna baloratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Profilari lotutako lan-egoeretan talde-lanak dituen abantailak baloratu ditu.

b) Benetako lan-egoera batean osa daitezkeen lan-taldeak identifikatu ditu.

c) Lan-talde ez-eraginkorren aldean, talde eraginkorrak dituen ezaugarriak zehaztu ditu.

d) Taldekideek bere gain hartutako denetako eginkizunen eta iritzien beharra ontzat baloratu du.

e) Taldekideen artean gatazkak sortzeko aukera erakundearen alderdi ezaugarritzat onartu du.

f) Gatazka motak eta horien sorburuak identifikatu ditu.

g) Gatazkak konpontzeko prozedurak zehaztu ditu.

3.– Lan-harremanen ondoriozko eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzen ditu, eta lan-kontratuetan horiek onartzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lan-zuzenbidearen oinarrizko kontzeptuak identifikatu ditu.
- b) Enpresaburuaren eta langileen arteko harremanetan esku hartzen duten erakunde nagusiak bereizi ditu.
- c) Laneko harremanaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak zehaztu ditu.
- d) Kontratazio modalitate nagusiak sailkatu ditu, eta kolektibo jakin batzuentzat kontratazioa sustatzeko neurriak identifikatu ditu.
- e) Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko indarrean dagoen legeriak ezarritako neurriak baloratu ditu.
- f) Laneko harremanak aldatu, eten eta deuseztatzearen arrazoiak eta ondorioak identifikatu ditu.
- g) Soldata-ordainagiria aztertu du, eta haren osagai nagusiak identifikatu ditu.
- h) Gatazka kolektiboko neurriak eta gatazkak ebazteko prozedurak aztertu ditu.
- i) Tituluarekin zerikusia duen lanbide-sektore bati aplikatzekoa zaion hitzarmen kolektiboan adostutako lan-baldintzak zehaztu ditu.
- j) Lan-antolamenduaren ingurune berrien ezaugarriak identifikatu ditu.

4.– Estalitako kontingentzien aurrean, Gizarte Segurantzako sistemaren babes-ekintza zehazten du eta prestazio mota guztiak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko funtsezko oinarri gisa baloratu du Gizarte Segurantzaren eginkizuna.
- b) Gizarte Segurantzak estaltzen dituen kontingentziak zerrendatu ditu.
- c) Gizarte Segurantzako sisteman dauden araubideak identifikatu ditu.
- d) Gizarte Segurantzako sistemaren barruan enpresaburuaren eta langilearen irudiak dituen betebeharrak identifikatu ditu.
- e) Langilearen kotizazio-oinarriak, eta langilearen eta enpresaburuaren irudiari dagozkion kuantak identifikatu ditu.
- f) Gizarte Segurantzako sistemaren prestazioak sailkatu eta eskakizunak identifikatu ditu.
- g) Legez egon daitezkeen langabezia-egoerak zehaztu ditu.
- h) Oinarrizko kontribuzio-mailari dagokion langabezia-prestazioaren iraupena eta kopurua kalkulatu ditu.

5.– Bere jardueraren ondoriozko arriskuak ebaluatzen ditu, lan-inguruneke lan-baldintzak eta arrisku-faktoreak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresaren esparru eta jarduera guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia baloratu du.
- b) Lan-baldintzak langilearen osasunarekin erlazionatu ditu.
- c) Jardueraren arrisku-faktoreak eta horien ondoriozko kalteak sailkatu ditu.
- d) Tituluaren lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan ohikoenak diren arrisku-egoerak identifikatu ditu.
- e) Enpresan dauden arriskuak ebaluatu ditu.
- f) Lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan, prebentziorako garrantzitsuak diren lan-baldintzak zehaztu ditu.
- g) Tituluaren lanbide-profilari lotutako kalte profesionalen motak sailkatu eta deskribatu ditu, bereziki lan-istripuei eta lanbide-gaixotasunei dagokienez.

6.– Enpresa txiki batean, arriskuen prebentziorako plana egiten laguntzen du, inplikaturako agente guztien erantzukizunak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Laneko arriskuen prebentzioan dauden eskubide eta betebeharrak nagusiak zehaztu ditu.
- b) Enpresan prebentzioa kudeatzeko moduak sailkatu ditu, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudian ezarritako irizpideen arabera.
- c) Arriskuen prebentzioari dagokionez, enpresan langileak ordezkatzeko moduak zehaztu ditu.
- d) Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak identifikatu ditu.
- e) Enpresan, larrialdirik izanez gero jarraitu beharreko jardun-sekuentziazioa barne hartuko duen prebentzio-plana izatearen garrantzia baloratu du.
- f) Tituludunaren lanbide-sektorearekin lotutako lantoki baterako prebentzio-planaren edukia zehaztu du.
- g) Larrialdi- eta ebakuazio-plan bat pentsatu du.

7.– Prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzen ditu, eta tituluari lotutako lan-inguruneoko arrisku-egoerak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kalteak sorburuan saihesteko eta, saihestezinak badira, haien ondorioak ahalik eta gehien murrizteko aplikatu behar diren prebentzio-teknikak, eta norbera eta taldea babestekoak zehaztu ditu.
- b) Mota guztietako segurtasun-seinaleen esanahia eta hedadura aztertu ditu.
- c) Larrialdietarako jardun-protokoloak aztertu ditu.
- d) Larrialdietan, larritasun-maila desberdinetako biktimak daudenean, zaurituak sailkatzeko teknikak identifikatu ditu.

e) Istripuaren lekuan bertan hainbat kalteren aurrean aplikatu beharreko lehen laguntzetako oinarritzko teknikak identifikatu ditu, baita botikinaren osaera eta erabilera ere.

f) Langileen osasuna zaintzeko eskakizunak eta baldintzak zehaztu ditu, eta prebentzio-neurri gisa duten garrantzia adierazi du.

B) Edukiak:

1.– Lana modu aktiboan bilatzea.

Lan-ibilbiderako interes, gaitasun eta motibazio pertsonalak aztertzea.

Tituluari lotutako prestakuntza-ibilbideak identifikatzea.

Tituluaren lanbide-sektorea definitzea eta aztertzea.

Norberaren ibilbidea planifikatzea:

– Beharrekin eta hobespeneekin bateragarriak izango diren epe ertain eta luzerako lan-helburuak ezartzea.

– Uneko eta gerorako pentsatutako prestakuntzarekiko helburu errealistak eta koherenteak.

Ibilbide-planaren, prestakuntzaren eta helburuen arteko koherentzia norberak egiaztatzeko zerrenda bat ezartzea.

Lan-munduratzeko beharrezko dokumentuak betetzea (aurkezpen-gutuna, curriculum vitae...), eta test psikoteknikoak eta elkarrizketa simulatuak egitea.

Lana bilatzeko teknikak eta tresnak.

Erabakiak hartzeko prozesua.

Sektoreko enpresa txiki, ertain eta handietan lana bilatzeko prozesua.

Europar ikasi eta enplegatzeko aukerak. Europass, Ploteus.

Tituludunaren lan- eta lanbide-ibilbiderako etengabeko prestakuntzak duen garrantzia baloratzea.

Norberaren ikaskuntzaz arduratzea. Eskakizunak eta aurreikusitako emaitzak ezagutzea.

Autoenplegua lan-mundura sartzeko hautabidetzat balioestea.

Lan-munduan egoki txertatzeko lan-ibilbideak baloratzea.

Lanarekiko konpromisoa. Lortutako trebakuntza baliaraztea.

2.– Gatazka eta lan-taldeak kudeatzea.

Antolakundea pertsona talde gisa aztertzea.

Antolamendu-egiturak aztertzea.

Kideek lan-taldean izan ditzaketen eginkizunak aztertzea.

Antolakundeetako gatazken sorrera aztertzea: espazioak, ideiak eta proposamenak partekatzea.

Gatazka motak, esku-hartzaileak eta horien abiapuntuko jarrerak aztertzea.

Gatazkak ebazteko moduak, bitartekotza eta jardunbide egokiak aztertzea.

Lan-taldeen sorrera aztertzea.

Enpresa baten antolamendu-egitura, xede bat lortzeko pertsona-talde gisa.

Talde motak sektoreko industrian, dituzten eginkizunen arabera.

Komunikazioa, taldeak sortzean arrakasta lortzeko oinarrizko elementu gisa.

Lan-talde eraginkorraren ezaugarriak.

Gatazka definitzea: bere ezaugarriak, sorburuak eta etapak.

Gatazkak ebazteko edo ekiditeko metodoak: bitartekaritza, adiskidetzea eta arbitrajea.

Enpresa-helburuak lortzeko pertsonen ekarpena balioestea.

Antolamenduaren eraginkortasunean talde-lanak dituen abantailak eta eragozpenak balioestea.

Talde-lanerako funtsezko faktoretzat komunikazioa baloratzea.

Lan-taldeetan sor daitezkeen gatazkak ebazteko partaidetzazko jarrera izatea.

Gatazkak ebazteko sistemak aztertzea.

3.– Lan-kontratuaren ondoriozko lan-baldintzak.

Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea eta hierarkiaren arabera sailkatzea.

Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bateginean (LELTB) arautzen diren lan-jardueren ezaugarriak aztertzea.

Kontratu-modalitate ohikoenak formalizatu eta alderatzea, haien ezaugarrien arabera.

Nomina interpretatzea.

Dagokion lanbide-jarduerako sektorerako hitzarmen kolektiboa aztertzea.

Lan-zuzenbidearen oinarrizko iturriak: Konstituzioa, Europar Batasunaren zuzentarauak, Langileen Estatutua, Hitzarmen Kolektiboa.

Lan-kontratua: kontratuaren elementuak, ezaugarriak eta formalizazioa, gutxieneko edukiak, enpresaburuaren betebeharrak, enpleguari buruzko neurri orokorrak.

Kontratu motak: mugagabeak, prestakuntzakoak, aldi baterakoak, lanaldi partzialekoak.

Lanaldia: iraupena, ordutegia, atsedenaldiak (laneko egutegia eta jaiegunak, oporrak, baimenak).

Soldata: motak, ordainketa, egitura, aparteko ordainsariak, soldataz kanpoko eskuratzeak, soldata-bermeak.

Soldata-kenkariak: kotizazio-oinarriak eta ehunekoak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ).

Kontratua aldatu, eten eta deuseztatzea.

Ordezkaritza sindikala: sindikatuaren kontzeptua, sindikatzeko eskubidea, enpresa-elkarteak, gatazka kolektiboak, greba, ugazaben itxiera.

Hitzarmen kolektiboa. Negoziazio kolektiboa.

Lan-antolamenduaren ingurune berriak: kanpora ateratzea, telelana, eta abar.

Lana arautzeko beharra baloratzea.

Dagokion lanbide-jarduerako sektorearen lan-harremanetan aplikatzen diren arauak ezagutzeko interesa izatea.

Aurreikusitako legezko bideak laneko gatazken ebazpide gisa aintzat hartzea.

Langileen kontratazioan etika eskaseko eta legez kanpoko jardunak baztertzea, batez ere premia handienak dituzten kolektiboetara dagokienez.

Gizartea hobetzeko agente gisa, sindikatuen eginkizuna aintzat hartu eta balioestea.

4.– Gizarte Segurantzaren enplegua eta langabezia.

Gizarte Segurantzaren sistema orokorra unibertsala izateak duen garrantzia aztertzea.

Gizarte Segurantzaren prestazioei buruzko kasu praktikoak ebaztea.

Gizarte Segurantzaren sistema: aplikazio-esparrua, egitura, araubideak, erakunde kudeatzaileak eta laguntzaileak.

Enpresaburuen eta langileen betebeharrak nagusiak Gizarte Segurantzaren arloan: afiliazioak, altak, bajak eta kotizazioak.

Babes-ekintza: osasun-asistentzia, amatasuna, aldi baterako ezintasuna eta ezintasun iraunkorra, baliaezintasun gabeko lesio iraunkorrak, erretiroa, langabezia, heriotza eta biziraupena.

Prestazioen motak, eskakizunak eta kopurua.

Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak.

Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko Gizarte Segurantzaren eginkizuna aintzat hartzea.

Gizarte Segurantzarako kotizazioan nahiz prestazioetan iruzurrezko jokabideak gaitzestea.

5.– Arrisku profesionalak ebaluatzea.

Lan-baldintzak aztertu eta zehaztea.

Arrisku-faktoreak aztertzea.

Segurtasun-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea.

Ingurumen-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea.

Baldintza ergonomikoei eta psikosozialei lotutako arriskuak aztertzea.

Enpresaren arrisku-esparruak identifikatzea.

Lanbide-eginkizunaren arabera arrisku-protokoloa ezartzea.

Lan-istripuaren eta lanbide-gaixotasunaren artean bereiztea.

Arrisku profesionalaren kontzeptua.

Enpresan arriskuak ebaluatzea, prebentzio-jardueraren oinarritzako elementu gisa.

Profilari lotutako lan-ingurunearen berariazko arriskuak.

Antzemandako arrisku-egoeren ondorioz langilearen osasunean eragin daitezkeen kalteak.

Lanbide-jardueraren fase guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia.

Lanaren eta osasunaren arteko lotura balioestea.

Prebentzio-neurriak hartzeko interesa azaltzea.

Enpresan prebentziorako prestakuntza ematearen garrantzia balioestea.

6.– Enpresan arriskuen prebentzioa planifikatzea.

Planifikazio- eta sistematizazio-prozesuak bideratzea, oinarrizko prebentzio-tresna gisa.

Laneko Arriskuen Prebentzioari (LAP) buruzko oinarrizko araua aztertzea.

Laneko Arriskuen Prebentzioaren (LAP) arloko egitura instituzionala aztertzea.

Lan-ingurunerako larrialdi-plan bat egitea.

Zenbait larrialdi-plan bateratu eta aztertzea.

Lanak giza osasunean eta segurtasunean dituen ondorioak.

Eskubideak eta betebeharrak laneko arriskuen prebentzioaren arloan.

Erantzukizunak laneko arriskuen prebentzioaren arloan. Erantzukizun mailak enpresan.

Laneko Arriskuen Prebentzioan (LAP) eta osasunean esku hartzen duten agenteak, eta horien eginkizunak.

Prebentzioaren kudeaketa enpresan.

Langileen ordezkaritza prebentzioaren arloan (laneko arriskuen prebentzioko oinarrizko teknikaria).

Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak.

Prebentzioaren plangintza enpresan.

Larrialdi- eta ebakuazio-planak lan-inguruneetan.

Laneko Arriskuen Prebentzioaren (LAP) garrantzia eta beharra baloratzea.

Laneko arriskuen prebentzioko (LAP) eta laneko osasuneko (LO) agente gisa duen posizioa baloratzea.

Erakunde publikoek eta pribatuek laneko osasunean (LO) errazago sartzeko egindako aurrerapenak baloratzea.

Dagokion kolektiboaren larrialdi-planei buruzko ezagutza baloratu eta zabaltzea.

7.– Enpresan prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzea.

Norbera babesteko teknikak identifikatzea.

Norbera babesteko neurriak erabiltzeko garaian enpresak eta banakakoek dituzten betebeharrak aztertzea.

Lehen sorospenetako teknikak aplikatzea.

Larrialdi-egoerak aztertzea.

Larrialdietarako jardun-protokoloak egitea.

Langileen osasuna zaintzea.

Banako eta taldeko prebentzio- eta babes-neurriak.

Larrialdi-egoera batean jarduteko protokoloa.

Larrialdi medikoa / lehen sorospenak. Oinarrizko kontzeptuak.

Seinale motak.

Larrialdien aurreikuspena balioestea.

Osasuna zaintzeko planen garrantzia baloratzea.

Proposatutako jardueretan bete-betean parte hartzea.

10. lanbide-modulua: Enpresa eta ekimen sortzailea

Kodea: 1306

Kurtsoa: 2

Iraupena: 63 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.— Ekimen sortzaileari lotutako gaitasunak ezagutu eta aintzat hartzen ditu, eta lanpostuen eta enpresa-jardueren ondoriozko eskakizunak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Berrikuntzaren kontzeptua, eta gizartearen aurrerabidearekin eta gizabanakoen ongizatearekin duen lotura identifikatu du.

b) Kultura ekintzailearen kontzeptua, eta enpleguaren eta gizarte-ongizatearen sorburu gisa duen garrantzia aztertu du.

c) Norberaren ekimenaren, sormenaren, prestakuntzaren eta lankidetzaren garrantzia baloratu du, jarduera ekintzailean arrakasta lortzeko ezinbesteko eskakizuntzat.

d) Sektoreko enpresa txiki eta ertain bateko enpleguaren lanerako ekimena aztertu du.

e) Sektorean hasten den enpresaburu baten jarduera ekintzailea nola garatzen den aztertu du.

f) Jarduera ekintzaile ororen elementu saihestezintzat aztertu du arriskuaren kontzeptua.

g) Enpresaburuaren kontzeptua, eta enpresa-jarduera garatzeko beharrezko eskakizunak eta jarrerak aztertu ditu.

2.— Enpresa txiki bat sortzeko aukera zehazten du, enpresa-ideia aukeratzen du eta haren bidegarritasuna oinarritzen duen merkatu-azterketa egiten du, jardun-ingurunearen gaineko eragina baloratuta eta balio etikoak gaineratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Negozio-ideiak sortzeko prozesu bat garatu du.
- b) Tituluarekin lotutako negozio baten esparruan ideia jakin bat hautatzeko prozedura sortu du.
- c) Hautatutako negozio-ideiaren inguruko merkatu-azterketa egin du.
- d) Merkatu-azterketatik ondorioak atera ditu eta garatu beharreko negozio-eredua ezarri du.
- e) Negozio-proposamenaren balio berritzaileak zehaztu ditu.
- f) Enpresen gizarte-erantzukizunaren fenomeno eta enpresa-estrategiaren elementu gisa duen garrantzia aztertu ditu.
- g) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten balantze soziala egin du, eta sorrarazten dituen kostu eta mozkin sozial nagusiak deskribatu ditu.
- h) Sektoreko enpresetan, balio etikoak eta sozialak gaineratzen dituzten ohiturak identifikatu ditu.
- i) Tituluarekin zerikusia duen enpresa txiki eta ertain baten bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterketa egin du.
- j) Enpresa-estrategia deskribatu du eta enpresaren helburuekin lotu du.

3.– Enpresa-plan bat egiteko eta, ondoren, hura abiarazi eta eratzeko jarduerak egiten ditu. Dagokion forma juridikoa hautatzen du eta, horren arabera, legeko betebeharrak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresa baten oinarritzko eginkizunak deskribatu ditu eta enpresari aplikatutako sistemaren kontzeptua aztertu du.
- b) Enpresaren ingurune orokorraren osagai nagusiak identifikatu ditu; batik bat, ingurune ekonomiko, sozial, demografiko eta kulturalarenak.
- c) Berariazko ingurunearen osagai nagusi diren heinean, bezeroekiko, hornitzaileekiko eta lehiakideekiko harremanek enpresa-jardueran duten eragina aztertu du.
- d) Sektoreko enpresa txiki eta ertain baten ingurunearen elementuak identifikatu ditu.
- e) Enpresa-kulturaren eta irudi korporatiboaren kontzeptuak, eta horiek enpresa-helburuekin duten lotura aztertu ditu.
- f) Enpresaren forma juridikoak aztertu ditu.
- g) Hautatutako forma juridikoaren arabera, enpresaren jabeek legez duten erantzukizun-maila zehaztu du.
- h) Enpresen forma juridikoetarako ezarritako tratamendu fiskala bereizi du.
- i) Indarrean dagoen legeriak enpresa txiki eta ertain bat eratzeko exijitutako izapideak aztertu ditu.
- j) Erreferentziazko herrian sektoreko enpresak sortzeko dauden laguntza guztiak bilatu ditu.

k) Enpresa-planean, forma juridikoa aukeratzearekin, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioarekin, administrazio-izapideekin, diru-laguntzekin eta bestelako laguntzekin zerikusia duen guztia barne hartu du.

l) Enpresa txiki eta ertain bat abian jartzeko dauden kanpoko aholkularitza eta administrazio-kudeaketako bideak identifikatu ditu.

4.– Enpresa txiki eta ertain baten oinarritzko kudeaketa administratibo eta finantzarioko jarduerak egiten ditu: kontabilitate- eta zerga-betebehar nagusiak egiten ditu, eta dokumentazioa betetzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Kontabilitatearen oinarritzko kontzeptuak eta kontabilitate-informazioa erregistratzeko teknikak aztertu ditu.

b) Kontabilitate-informazioa aztertzeko oinarritzko teknikak deskribatu ditu, batez ere, enpresaren kaudimenari, likidezari eta errentagarritasunari dagokienez.

c) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten zerga-betebeharrak zehaztu ditu.

d) Zerga-egutegian zerga motak bereizi ditu.

e) Sektoreko enpresa txiki eta ertain batentzako merkataritza eta kontabilitateko oinarritzko dokumentazioa bete du (fakturak, albaranak, eskabide-orriak, kanbio-letrak, txekeak eta bestelakoak), eta dokumentazio horrek enpresan egiten duen bidea deskribatu du.

f) Banku-finantzaketako tresna nagusiak identifikatu ditu.

g) Dokumentazio hori enpresa-planean barne hartu du.

B) Edukiak:

1.– Ekimen sortzailea.

Tituluari lotutako sektorearen jardueran berrikuntzak dituen ezaugarri nagusiak aztertzea (materialak, teknologia, prozesuaren antolamendua, etab.).

Ekintzaileen funtsezko faktoreak aztertzea: ekimena, sormena, lidergoa, komunikazioa, erabakiak hartzeko gaitasuna, plangintza eta prestakuntza.

Jarduera ekintzailean arriskua ebaluatzea.

Sektoreko berrikuntza eta garapen ekonomikoa.

Kultura ekintzailea gizarte-behar gisa.

«Enpresaburu» kontzeptua.

Ekintzaileen jarduna sektoreko enpresa bateko enplegatu gisa.

Ekintzaileen jarduna enpresaburu gisa.

Ekintzaileen arteko lankidetzak.

Enpresa-jardueran aritzeko eskakizunak.

Negozio-ideia lanbide-arloaren esparruan.

Kultura ekintzaileari lotutako jardunbide egokiak tituluari dagokion jarduera ekonomikoan eta toki-esparruan.

Izaera ekintzailea eta ekintzailetzaren etika baloratzea.

Ekimena, sormena eta erantzukizuna balioestea ekintzailetzaren bultzatzaile gisa.

2.– Enpresa-ideiak, ingurunea eta haien garapena.

Enpresa-ideiak zehazteko tresnak aplikatzea.

Internet bidez, sektoreko enpresei buruzko datuak bilatzea.

Garatu beharreko enpresaren ingurune orokorra aztertzea.

Lanbide-arloko ereduazko enpresa bat aztertzea.

Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea.

Merkatu-azterketaren ondorioetatik abiatuta, negozio-eredua ezartzea.

Erabakitako ideiaaren gainean berrikuntza-ariketak egitea.

Enpresaren betebeharrak berariazko ingurunearekiko eta sozietate osoarekiko (garapen iraunkorra).

Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitea.

Sektoreko enpresen erantzukizun soziala eta etikoa.

Merkatu-azterketa: ingurunea, bezeroak, lehiakideak eta hornitzaileak.

Enpresaren balantze soziala aintzat hartu eta baloratzea.

Genero-berdintasuna errespetatzea.

Enpresa-etika baloratzea.

3.– Enpresa baten bideragarritasuna eta abiaraztea.

Marketin-plana ezartzea: komunikazio-politika, prezioen politika eta banaketaren logistika.

Produkzio-plana prestatzea.

Sektoreko enpresa baten bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa aztertzea.

Enpresaren finantzaketa-iturriak aztertzea eta haren aurrekontua egitea.

Forma juridikoa hautatzea. Tamaina eta bazkide kopurua.

Enpresaren kontzeptua. Enpresa motak.

Enpresa baten funtsezko elementuak eta arloak.

Zerga-arloa enpresetan.

Enpresa bat eratzekeko administrazio-izapideak (ogasuna eta gizarte-segurantzak, besteak beste).

Lanbide-arloko enpresentzako diru-laguntzak, bestelako laguntzak eta zerga-pizgarriak.

Enpresaren jabeek duten erantzukizuna.

Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa zorrotz ebaluatzea.

Administrazioko eta legezko izapideak betetzea.

4.– Administrazio-funtzioa.

Kontabilitate-informazioa aztertzea: diruzaintza, emaitzen kontua eta balantzea.

Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea.

Merkataritza-dokumentuak betetzea: fakturak, txekueak, letrak, etab.

Kontabilitatearen kontzeptua eta oinarrizko ideiak.

Kontabilitatea, egoera ekonomikoaren irudi zehatz gisa.

Enpresen legezko betebeharrak (fiskalak, lanekoak eta merkataritzakoak).

Dokumentu ofizialak aurkezteko eskakizunak eta epeak.

Sortutako administrazio-dokumentuei dagokienez, antolamendua eta ordena baloratzea.

Administrazioko eta legezko izapideak betetzea.

11. lanbide-modulua: Lantokietako trebakuntza

Kodea: 1307

Kurtsoa: 2

Iraupena: 380 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatu ditu, eta horiek honako jarduera hauekin lotu ditu: soinu eta ikus-entzunezko azpiegituren instalazioa, ikus-entzunezko eta ikuskizunetarako soinu-produkzioak hartu, kontrolatu, grabatu eta editatzea eta musika- eta ikus-animazioa saioak egitea.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresaren antolamendu-egitura eta arlo bakoitzaren eginkizunak identifikatu ditu.
- b) Enpresaren egitura eta sektorean dauden ereduzko enpresa-antolamenduak alderatu ditu.
- c) Zerbitzuaren ezaugarriak eta bezero mota lotu ditu enpresa-jardueraren garapenarekin.
- d) Zerbitzugintza garatzeko lan-prozedurak identifikatu ditu.
- e) Jarduera behar bezala garatzeko giza baliabideen beharrezko kompetentziak baloratu ditu.
- f) Jarduera honetan ohikoenak diren hedabideen egokitasuna identifikatu du.

2.– Lanbide-jarduera garatzean ohitura etikoak eta lanekoak aplikatzen ditu, lanpostuaren ezauzgarrien eta enpresan ezarritako prozeduren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Aintzat hartu eta justifikatu ditu:

- Lanpostuan beharrezkoa den langileen eta denboraren eskuragarritasuna.
- Lanposturako beharrezkoak diren jarrera pertsonalak (besteak beste, puntualtasuna eta enpatia) eta profesionalak (besteak beste, ordena, garbitasuna eta erantzukizuna).

- Jarrerazko eskakizunak lanbide-jarduerak dituen arriskuen prebentzioaren aurrean.
- Lanbide-jardueraren kalitatearekin zerikusia duten jarrerazko eskakizunak.
- Lan-talde barruko eta enpresan ezarritako hierarkiekiko harreman-jarrerak.
- Lanaren esparruan egiten diren jardueren dokumentazioarekin zerikusia duten jarrerak.
- Profesionalaren jardun egokiarekin lotuta, esparru zientifikoan eta teknikoan lan-munduratzeko eta berriro laneratzeko prestakuntza-beharrak.

b) Lanbide-jardueran aplikatzekoak diren laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen oinarrizko alderdiak identifikatu ditu.

c) Lanbide-jarduerak dituen arriskuen arabera eta enpresaren arauen arabera jarri du abian norbera babesteko tresneria.

d) Garatu dituen jardueretan ingurumena errespetatzeko jarrera izan du.

e) Antolatuta, garbi eta oztoporik gabe mantendu du lanpostua edo jarduera garatzeko eremua.

f) Zuzendu zaion lanaz arduratu da, jasotako argibideak interpretatuz eta betez.

g) Egoera bakoitzean ardura duen pertsonarekin eta taldeko kideekin komunikazio eraginkorra ezarri du.

h) Taldearen gainerakoekin koordinatu da eta sortzen diren gertakaririk adierazgarrienak komunikatu ditu.

i) Bere jardueraren garrantzia eta zereginen aldaketetara egokitzeko beharra baloratu ditu.

j) Lana garatzean arauak eta prozedurak aplikatzeaz arduratu da.

3.– Soinu-sistemako ekipamenduak ikus-entzunezko produkzio eta ikuskizunetan instalatu, muntatu, konektatu, doitu eta desmuntatu ditu, eta riderraren edukia espazio eszenikora egokitzten du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ikus-entzunezko produkzio eta ikuskizunetan, soinu-sistemaren ekipamenduak muntatu, desmuntatu eta kokatu ditu, protokolo estandarizatuen arabera.

b) Ikus-entzunezko produkzio eta ikuskizunetan soinu-tresneria eta osagarriak konektatzeko beharrezko aurreinstalazio elektrikoa egin du, eta, horretarako, instalazio-proiektuaren zehaztapenak eta pertsona eta ekipamenduen segurtasuna hartu ditu kontuan.

c) Soinu-kableen azpiegiturak (korrante, audio eta kontrol) fabrikatu, tiratu eta jaso ditu; erabilerarako arau teknikoak aztertu eta horren funtzionamendua eta proiektuaren dokumentazio teknikoa bermatzeko metodologia aplikatu du.

d) Soinu-sistema osatzen duten ekipoen konexioa egin du, dokumentazio teknikoan adierazitako zehaztapenen eta audio-seinalearen ezaugarrien arabera.

e) Sarrera eta irteera mailak doitu eta kalibratu ditu, soinu-ekipo bakoitzarena eta kateko ekipo guztiena, instalazioaren kalitatea eta funtzionaltasuna lortzeko. Horretarako, monitorizazio akustiko eta bisualerako teknikak aplikatu ditu, besteak beste, bumetro eta pikometroen bitartez.

f) Soinu-ekipoen eta osagarrien egoera fisikoa begiz eta mekanikoki egiaztatu du; berariazko probak egin eta horien funtzionamendua ebaluatu du.

4.– Ikus-entzunezko produkzioeta eta ikuskizunetan soinua jaso, grabatu, kontrolatu, nahastu eta editatu du, proiektuaren eskakizun teknikoak kontuan hartuta eta emaitzan ahalik eta kalitate onena lortzea helburu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Mikrofonia konbentzionala eta haririk gabekoa espazio eszenikoan kokatu, egiaztatu eta doitu ditu, rider teknikoaren eta soinua jasotzeko RF araudiaren baldintzen arabera.

b) Mikrofonoak garabi edo pertikan jarri ditu, soinu-kalitate onena lortzeko irizpideak kontuan hartuta, eta proiektuaren beharrianen arabera.

c) Monitoreetara bidalketak eta horien erantzunak muntatu, konfiguratu eta doitu ditu, presio eta maiztasunari dagokienez estaldura uniforme duela eta berrelikadura arazorik ez duela egiaztatuta.

d) In Ear monitaziorako sistemak prestatu, ipini eta doitu ditu, horiek behar dituzten artistentzat; kontuan hartu du horiek kamuflatzea, eta beharrezko nahasketa egin du, parte-hartzaile bakoitzak dagokion erreferentziako seinalea ahalik eta hoberen entzun dezan.

e) Kontrol, edizio eta nahasketarako ekipamendu eta softwarea doitu ditu, denbora-kodeak hautatu ditu, maisu/morrori erlazioa, MIDIren erabilera eta soinu-tresneriaren behar bezalako sinkronizazioan esku hartzen duten bestelako parametroak ere.

f) Grabazioaren kontrol teknika zuzenean egin du, eta jasotako seinalearen kalitatea ebaluatu du, agertokiko aldaketa edo ezusteak kontuan hartuta, soinuaren grabazioan ahalik eta kalitate gorena bermatze aldera.

g) Sistema informatikoak konfiguratu ditu, eta aurretik grabatutako soinua editatu du, software-tresnak erabilita.

5.– Zuzeneko edo irratsaioko musika-animazioak egin ditu, saioaren helburu komunikatiboen arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Musika-animazioko saioari edo irrati-saioari dagokion musika motaren ezaugarriak zehaztu ditu, eta efektuak antzokiko ikusleei edo irrati-entzuleei aurreratzen dizkie.

b) Saioarako hautatutako audio-fitxategiak antolatu ditu, horien soinu-, estilo- eta musika-ezaugarriak kontuan hartuta.

c) Musika-saioa planifikatu du; eskura dituen baliabide teknikoak eta giza baliabideak koordinatu ditu, eta musika- eta ikus-saioaren aurreikusi daitekeen garapena dokumentatu du eskaleta batean.

d) Disc-jockeyaren tresneria kabina edo lan-eremuan instalatu eta doitu du, eta emaitza akustiko onena lortzeko prozedura estandarizatuak aplikatu ditu.

e) Audio-fitxategiak zuzenean nahastu ditu; ikusleen eta ikuskizunaren gaiaren ezaugarriak lotu ditu saioaren helburuak lortze aldera, eta prozedura estandarizatuarekin erantzun dio ikuskizunean zehar gertatutako ezustekoei.

f) Zuzeneko, difusio hertzianoko edo Internet bidezko musika-irratsaioaren audio-fitxategiak eta hitzak zuzenean nahastu ditu, eta, horretarako, entzuleen ezaugarriak, saioaren iraupena, emisio-ordutegia eta estaldura-tartea balioetsi ditu.

6.— Ikus-materiala nahastu eta zuzenean egiten du jarduera luminoteknikoa musika- eta ikus-animazioko saioetan, erakusketa-aretoko helburu komunikatibo eta enpresarialen arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Musika- eta ikus-animazioko saioetan hedatu behar den ikus-materialaren plangintza egin du, eta, horretarako, musika-joerekin lotu eta irudi finko, argazki eta bideoen espresibitatea balioetsi ditu.

b) Ikus-animazioko piezak musika- eta ikus-saiorako bideo konposiziorako programetan integratu ditu; hainbat elementu txertatu, 2D eta 3D animazioak zehaztu, eta iragazki, efektu eta pluginak aplikatu, eta pieza hedatzeko euskarrietara esportatu du.

c) Irudi-tresneria musika- eta ikus-animazioko areto eta ikuskizunetan instalatu eta konfiguratu du; erreprodukzio-, nahasketa- eta emanaldi-tresneriak konektatu ditu, eta zuzenean egiteko saioetarako behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatu du.

d) Musika- eta ikus-animazioko saioetan ikus-nahasketa zuzenean egin du, eta kontuan hartu du erakutsitako irudi eta bideoak musika-dinamika eta efektu luminoteknikoekin koordinazioa.

e) Luminoteknia-tresneria instalatu edo berrikusi du, musika- eta ikus-animazioko areto eta noizbehinkako espazioen baldintzetara eta segurtasun-neurrien arabera egokituta.

f) Jarduera luminoteknikoa zuzenean egin du, eta, aretoan aldi berean egindako musika- eta ikus-nahasketari dagokionez, lortu nahi den giroa lortzea izan du helburu.

7.— Musika- eta ikus-animazioko saioetarako irudi finko eta mugikorrek prestatu, doitu, hartu eta editatzen ditu, animazio-proiektuaren eskakizun tekniko eta artistikoen arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Jatorrizko irudi finkoak hainbat euskarritan prestatu eta doitu ditu, erreprodukzioaren edo tratamendu digitalaren bideragarritasuna balioetsita.

b) Jatorrizko irudi finko analogikoak digitalizatu ditu, proiektuaren zehaztapen teknikoen arabera.

c) Bit-mapako irudien tratamendu digitala egin du, eta, horretarako, irudi finkoa tratatu eta ukitzeko berariazko teknika eta tresna egokiak erabiltzea balioetsi du.

d) Bit-mapen irudiekin fotomuntaiak egin ditu, eta irudi finkorako muntaia eta edizio digitalerako berariazko teknika eta erremintak ebaluatu ditu.

e) Ilustrazio bektorialak egin ditu, izaera eta funtzio ezberdineko elementuak txertatuta.

f) Argazki- eta bideo-irudiak musika- eta ikus-animazioko piezentzat hartu ditu, ikus-entzunezko lengoaiaren baliabideak erabilita; horien espresibitatea indartu du, eta aldi bereko difusioa saioaren musika-estilo eta luminoteknia-efektuekin aurreratu du.

g) Ikus-piezak musika- eta ikus-animazioko saioetarako editatu ditu, 2D animazioko teknikak eta ikus-entzunezko muntaia erabiltzea balioetsi du, saioen musika-edukiaren arabera. Horrez gain, difusiorako fitxategi eta euskarrik ere sortu ditu.

III. ERANSKINA, APIRILAREN 8KO 54/2014 DEKRETUARENA

GUTXIENeko ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

1. atala.– Espazioak.

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	AZALERA (m ²) 30 IKASLE	AZALERA (m ²) 20 IKASLE
Balio anitzeko gela.	60	40
Irudiaren eta soinuaren gela teknikoa	90	60
Agertokiaren gela	150	110
Soinu-estudioak	90	90
Disc-jockey estudioa	90	60
Ikus-entzunezko produkzioen estudioak	180	180

2. atala.– Ekipamenduak.

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	EKIPAMENDUA
Balio anitzeko gela	Arbela. Ikus-entzunezko baliabideak (TB, DVD, CD erreproduktoreak). Sarean instalatutako ordenagailuak, abiadura handiko inprimagailua, proiektagailua, Internetarako sarbidea eta audio-sistema.
Irudiaren eta soinuaren gela teknikoa	Lan-estazioak, honako ezaugarriak edo hobeak dituzten ordenagailuekin: Dual Core 2,5 GHz prozesadora (bakoitzak 1MBko cache memoria L2 arkitektura PCI Express); 4 G SDRAM; FireWire 800 portu bat; bi FireWire 400 portu; lau USB 2.0 portu; audio optiko eta digitalerako sarrera eta irteera eta wifi AirPort Extreme eta Bluetooth 2.0+ EDR euskarria. 1 GB-eko txartel grafikoa. Kanpoko soinu-txartela USB eta FireWire konexioarekin, MIC/INS bi sarrerekin eta 4 LINE. 19"ko bi TFT pantaila eta entzungailu bidezko soinu-monitorizazio-rako sistema bat. Ordenagailuen instalazioa sarean eta Interneteko sarrerarekin. Datuak biltegitatzeko kanpo-sistemak, irudien eta soinuen sarrera eta irteera. 10 unitateko racketan muntatutako soinu-kontrol eta erreprodukzioarako ostua, irakaslearen ordenagailuak kontrolatuta, 8 sarrera MIC/LINE eta USB konexioa dituen nahasketa-mahai enrakablearekin, 2 kutxa akustikoetara irteera (LR) eta autoanplifikatuak. Bideo proiektagailu bat eta proiektatzeko pantaila bat. Irudi finkoa eta mugikorra sortzeko, tratatzeko, editatzeko eta postproduzitzeko informatikako aplikazioak. Soinua sortzeko, tratatzeko, editatzeko eta postproduzitzeko aplikazio informatikoak (MIDI). Musika produzitzeko aplikazio informatikoak.
Agertokiaren gela	24 m² -ko agertokia, altuera erregulagarriko oholtzekin eta hauek finkatzeko sistemekin. Argi, soinu eta eszenografiako tresnak ipintzeko truss edo egitura, konexio elektriko kutxe-kin, baldin eta ez dituzten haga elektrifikatu arruntak.

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	EKIPAMENDUA
Agertokiaren gela	PA sistema: – FOH nahaste-mahai digitala, gutxienez, 24 sarrera-kanalekin, 4 busekin, 4 bidalketa osagarrirekin eta irteera estereoarekin. – FOHrako kanpoko prozesadore-rack 31 bandako 2 ekualizadore grafikorekin, 8 konpresore/zarata-aterekin, 2 efektu-prozesadorearekin, baldin eta FOHren nahaste-mahaian sartuta ez badaude. – Barruti beteko lau elementuz eta bi azpibaxuz gutxienez osatutako PA modularreko sistema. – Elementuak denboran, mailan eta maiztasunean lerrokatu ahal izateko PArako kudeaketa-sistema. Monitore-sistema: – Monitoreen nahaste-mahai digitala, gutxienez, 24 sarrera-kanalekin, 4 busekin, 8 bidalketa osagarrirekin eta irteera estereoarekin. – FOHrako kanpoko prozesadore-rack 31 bandako 8 ekualizadore grafikorekin, 8 konpresore/zarata-aterekin, 2 efektu-prozesadorearekin, baldin eta FOHren nahaste-mahaian sartuta ez badaude. – Agertokiko monitoreak dagozkien potentzia-etapekin. – In ear entzute-sistema, gutxienez, hari gabeko bi emisore eta bi hargailurekin. – Mikrofonia. Drum seta honako elementu hauez osatua: – Dunbalerako mikrofonoa. – Kutxarako mikrofonoa. – Tinbaletarako hiru pintza-mikrofono. – OHrako bi kondentsadore-mikrofono. Eskuzko mikrofono dinamikoen maletak. – Diafragma handiko bi kondentsadore-mikrofono. Instrumenturako pintza-mikrofonoak. Girorako bi kanoi-mikrofono. Gutxienez sei diadema-kapsula eta bakoitzari dagozkion emisoreak eta hargailuak izango dituen hari gabeko mikrofonoia-seta. Eskuzko hari gabeko mikrofonoak. Mikrofono-oin konbentzionalak. Altuera txikiko mikrofono-oinak. Gutxienez 4 metroko mikrofono-oinak. Pare estereofonikotarako pletinak. Injekzio estereoko kutxak. Mikrofono-lineak eta jack-canon latigadoreak, jackjack eta tartekatua. Barruti beteko lau elementuz eta bi azpibaxuz gutxienez osatutako PA modularreko sistema.

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	EKIPAMENDUA
Agertokiaren gela	Elementuak denboran, mailan eta maiztasunean lerrokatu ahal izateko PArako kudeaketa-sistema. Agertokiko monitoreak dagozkien potentzia-etapekin. In Ear entzute-sistema, gutxienez, hari gabeko bi emisore eta bi hargailurekin. FOH nahaste-mahai digitala, gutxienez, 24 sarrera-kanalekin, 4 busekin, 4 bidalketa osagarrirekin eta irteera estereoarekin. Monitoreen nahaste-mahai digitala, gutxienez, 24 sarrera-kanalekin, 4 busekin, 8 bidalketa osagarrirekin eta irteera estereoarekin. Agertokirako konexio-kutxa, gutxienez, 24+ 8 pare dituela. Monitore analogiko edo digitalak eta FOHrako seinalea banatzeko sistema. Monitoreentzako kanpoko prozesadore-racka, 31 bandako 8 ekualizadore grafikorekin, 8 konpresore/zarata-aterekin, 2 efektu-prozesadorearekin, baldin eta monitoreen nahaste-mahaian sartuta ez badaude. FOHrako kanpoko prozesadoreen racka 31 bandako 2 ekualizadore grafikorekin, 8 konpresore/zarata-aterekin, 2 efektu-prozesadorearekin, baldin eta FOHren nahaste-mahaian sartuta ez badaude. FFT bikoitzeko analizatzailerak. Neurtzeko mikrofonoa.
Soinu-estudioak	Musika-instrumentu eta bikoizketak grabatzeko aretoa: – 20 m²-ko ikus-entzunezko bikoizketa eta musika-instrumentuak grabatzeko gela, intsonorizatua eta akustikoki egokitua, 16 IN, 4 OUT konexio-kutxarekin, aurikularren banagailu bat, 6 aurikular, bikoizketarako irudi-monitore eta atrila. Musika eta bikoizketak grabatzeko kontrol-aretoa: – Musika-grabazioak kontrolatzeko 16 m²-ko aretoa, intsonorizatua eta akustikoki egokitua, eta gutxienez 24 kanaleko estudioko kontrol digitalerako mahai bat kokatzeko altzari teknikoak dituen. – Ordenagailu bat, honako ezaugarriak edo hobeak dituen: Dual Core 2,5 GHz prozesadorea (bakoitzak 1MBko cache memoria L2 arkitektura PCI Express); 4 G SDRAM; FireWire 800ko portu bat; USB 2.0ko 4 portu, eta wifi AirPort Extreme eta Bluetooth 2.0+ EDR euskarria. 1 GBko txartel grafikoa. Kanpoko soinu-txartela honako hauekin: USB eta FireWire konexioa, 16 sarrera/irteera, baldin eta mahai/kontrolagailuan ez badaude. 19"ko bi pantaila, 2 bide autoanplifikatuko 2 audio-monitore, bideo-monitore bat, bi aurikular eta CD-MP3 irakurgailu bat. – Audio-seinaleko prozesadoreak. - Dinamikako prozesadoreak. – Ekualizadore parametrikokoak. – Efektu anitzeko prozesadoreak. – Mikrofono-aurretizkoak. – MIDI kontrolagailuak. – MIDI musika-produkzioa aplikazio informatikoak. Ordenagailuen instalazioa sarean eta Interneteko sarrerarekin. – Ekipoak frogatzeko eta egiaztatze lantegi-eremua honako elementu hauekin:

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	EKIPAMENDUA
Soinu-estudioak	– Trazu bikoitzeko osziloskopioak (edo PCrako interfazea, osziloskopioa simulatzeko softwarearekin). – Behe-maiztasuneko sorgailuak. – Laborategiko elikadura-iturriak. – Zarata zuri eta arrosa sortzaileak. – Iragazkidun sonometroak. – Monitore-aurikularrak. – Elektrizitate elektronikoko oinarrizko tresnak: - Polimetroa. - Pintza amperemetrikoa. - Eztainuzko soldadura-ekipoa. - Aliketak, pintzak, guraizeak, bihurkinak, uzurtzeko kurrika, besteak beste. - Azpiegitura espezifikoak: - Babes-koadroa eta hartune trifasikoa neutroarekin eta lur-hartunearekin. - Laneko mahaiak lur-hartunearekin eta babes isolatu eta banan banakoarekin. - Biltegi teknikoa.
Disc-jockey estudioa	Mahai gaineko ordenagailuak edo mugikorrak, honako konfigurazio honekin: Dual Core 2,5 GHz prozesadorea (bakoitzak 1MB-ko cache memoria L2 arkitektura PCI Express); 4GB SDRAM. FireWire 800 portu bat, bi FireWire 400 portu, lau portu USB 2.0; audio optiko eta digitalerako sarrera eta irteera eta wifi AirPort Extreme eta Bluetooth 2.0+EDR konexioetarako euskarria. 1 GB-eko txartel grafikoa. 19"ko bi pantaila postuko, eta entzungailu bidezko soinu-monitorizaziorako sistema bat. Bulegotikako aplikazio informatikoak (testu-prozesadorea, datu-basea, aurkezpenak, kalkulu-orria, eta abar). Soinua sortzeko, tratatzeko, editatzeko eta postproduzitzeko informatikako aplikazioak (MIDI). Musika produzitu eta erreproduzitzeko aplikazio informatikoak. MIDI kontroladore unibertsalak. USB edo Firewire motako soinu-txartel profesionalak, honako hauekin: audio-sarrera eta -irteera anitza, irteera eta sarrera digitala, MIDI irteera eta sarrera. Zuzeneko trakziodun disko-biratzaila pitch-kontrolarekin. CD erreproduktore profesionalak pitch-kontrolarekin. Audio-nahasgailu profesionalak, honako hauekin: kanal bakoitzeko ekualizazioa, irteera orekatuak, monitore-irteera eta, gutxienez, nahasteko lau kanal. Erreferentzia lauzko bi monitore aktibo profesional. PA aktibodun bi kaxa akustiko. Entzungailu profesionalak. 2 x 1 metroko Rosco motako oholza.

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	EKIPAMENDUA
Disc-jockey estudioa	Bideo-proiektagailua. Pantaila.
Ikus-entzunezko produkzioen estudioak	Platoa: Argiarekiko estankoa edo erabat iluntzeko aukera duena (horma eta sabai beltzak edo gris ilun neutroak). Argiztapen-parrila. Argazkigintzako ekipamendua: – DSLR kamerak, honako fokuratze-distantzien objektibo egonkortu eta digitalekin (gutxi gorabeherakoak): 18-55mm /f:2,8 eta 70-200mm /f:2,8 eta E-TTL flash espezifikoa. – Kolore-kartak eta zuri-balantzeko karta. – DSLR kamerarako tripodeak + buruak. – Natura hiletarako mahai zeharrargiak. Argiztapen-ekipoak: – Kuartzo 1000 W motakoak oinarekin. – 500 W motako Fresnel proiektgailuak oinarekin, biserarekin eta argi-kontzentragailu konoarekin. – Islagailuen eta difusoreen kita (zilar-kolorekoa, urre-kolorekoa, beltza eta zuri zeharrargia). – Difusio-panelak, berariazkoa euskarria barne. – Iragazki difusoreak. – Kolore-efektua duten iragazkiak. – Kolore-tenperatura duten iragazki zuzentzaileak. – Dentsitate neutroko iragazkiak. – Century oinak, zeferinoarekin. – Banderak edo argia mozteko beltza. – Flash argiztapeneko kita, 1000 W-ko 3 argi-iturritekin, oinarekin eta argia moztu, hedatu eta kontzentratzeko osagarriei. – Kamera eta flash-a sinkronizatzeko haririk gabeko sistemak (sistema bakoitzak gutxienez emisore 1 eta 4 zelula hartzaile). – Fotometro-flashimetroak. – Spot motako fotometroa. – Termokolorimetroa. Bideoa eta audioa jasotzeko ekipo autonomoak: – HD kamaskopio trinkoak. – Kamaskopiorako tripodeak. – Kamaskopiorako euri-zorroak. – Kamaskopioa garraiatzeko poltsak. – Eremuko monitoreak elikadurarekin.

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	EKIPAMENDUA
Ikus-entzunezko produkzioen estudioak	– Kamaskopiorako bateriak, luzaroan irauten dutenak. – Bateria-kargagailuak. – Kamaskopioentzako elikadura-iturriak. – Argiztatzeko tresneria autonomoa, kabledun zuzi halogenoekin eta tripodeekin. – Argiztapen-difusoreak. – Soinua hartzeko tresneria, honako hauekin: hari gabeko mikrofonia-sistema, mikrofono dinamiko direkzionala eta gorbata-mikrofonoa, pertika, zepelina, esekidurak eta soinua grabatzeko sistema eramangarria. Bistaratzeko tresneria, honako elementu hauez osatuak: – Monitorea. – Entzungailuak. – DVD-grabagailua/-irakurgailua. – Blu-ray irakurgailua.

IV. ERANSKINA, APIRILAREN 8KO 54/2014 DEKRETUARENA

IRAKASLEAK

1. atala.– Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena Bideo Disc-jockey eta Soinua heziketa-zikloko lanbide-moduluetan.

LANBIDE MODULUA	IRAKASLEEN ESPEZIALITATEA	KIDEGOA
1298. Soinu-tresneriaren instalazioa eta muntaia	Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
1299. Soinua jasotzea eta grabatzea	Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
1300. Soinuaren kontrola, edizioa eta nahasketa	Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
1301. Bideo Disc-jockeysaioak prestatzea	Hedabideak eta Prozesuak	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1302. Zuzeneko musika-animazioa	Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
	Irakasle espezialista	
1303. Zuzeneko ikus-animazioa	Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
	Irakasle espezialista	
1304. Irudiaren hartze eta edizio digitala	Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
E100. Ingeles teknikoa	Ingelesa	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak
		Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1305. Laneko prestakuntza eta orientabidea	Laneko prestakuntza eta orientabidea	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak
		Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1306. Enpresa eta ekimen sortzailea	Laneko prestakuntza eta orientabidea	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak
		Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1307. Lantokietako trebakuntza	Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
	Hedabideak eta Prozesuak	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak

edo araudian ager daitekeen beste edozein irakasle-espezialitatetan.

2. atala.— Titulazio baliokideak irakaskuntzaren ondorioetarako.

KIDEGOAK	ESPEZIALITATEAK	TITULAZIOAK
Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak	Laneko prestakuntza eta orientabidea	Enpresa-zientzietan diplomaduna Lan-harremanetan diplomaduna Gizarte-lanean diplomaduna Gizarte-hezkuntzan diplomaduna Kudeaketa eta Administrazio Publikoan diplomaduna

edo araudian ager daitekeen beste edozein titulazio.

3. atala.— Titulua osatzen duten lanbide-moduluak emateko beharrezko titulazioak hezkuntzakoaz bestelako administrazioetako titulartasun pribatuko nahiz publikoko ikastetxeentzat.

LANBIDE MODULUAK	TITULAZIOAK
1298. Soinu-tresneriaren instalazioa eta muntaia 1299. Soinua jasotzea eta grabatzea 1300. Soinuaren kontrola, edizioa eta nahasketa 1302. Zuzeneko musika-animazioa 1303. Zuzeneko ikus-animazioa 1304. Irudiaren hartze eta edizio digitala	Lizentziaduna, ingeniaria, arkitektoa, edo dagokion graduako titulua edo beste zenbait titulu baliokide Diplomaduna, ingeniari teknikoa edo arkitekto teknikoa edo dagokion graduako titulua edo beste zenbait titulu baliokide Teknikaria edo dagokion graduako titulua edota bestelako titulu baliokideak
1301. Bideo disc-jockey saioak prestatzea 1305. Laneko prestakuntza eta orientabidea 1306. Enpresa eta ekimen sortzailea	Lizentziaduna, ingeniaria, arkitektoa, edo dagokion graduako titulua edo beste zenbait titulu baliokide.
E100. Ingeles teknikoa	Ingeles Filologian lizentziaduna

edo araudian ager daitekeen beste edozein titulazio.

V. ERANSKINA, APIRILAREN 8KO 54/2014 DEKRETUARENA

HEZKUNTZA SISTEMAREN ANTOLAMENDU OROKORRARI BURUZKO URRIAREN 3KO
1/1990 LEGE ORGANIKOAREN BABESEAN EZARRITAKO LANBIDE MODULUEN ETA
HEZKUNTZARI BURUZKO MAIATZAREN 3KO 2/2006 LEGE ORGANIKOAREN BABESEAN
EZARRITAKOEN ARTEKO BALIOZKOTZEAK

LOGSE LEGEAN EZARRITAKO HEZIKETA ZIKLOETAN BARNEAN HARTZEN DIREN LANBIDE MODULUAK (LOGSE, 1/1990)	HEZIKETA ZIKLOKO LANBIDE MODULUAK (LOE 2/2006): BIDEO DISC-JOCKEY ETA SOINUA
Enpresa txikien administrazioa, kudeaketa eta merkaturatzea	1306. Enpresa eta ekimen sortzailea
Argazki-irudiak prozedura digitalen bitartez tratatzea	1304. Irudiaren hartze eta edizio digitala

VI. ERANSKINA, APIRILAREN 8KO 54/2014 DEKRETUARENA

KONPETENTZIA ATALEN ETA MODULUEN ARTEKO EGOKITASUNA (HORIEK BALIOZKOTZEKO) ETA LANBIDE MODULUEN ETA KONPETENTZIA ATALEN ARTEKO EGOKITASUNA (HORIEK EGIAZTATZEKO)

1. atala.– Kualifikazioei buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera egiaztatzen diren konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin.

KONPETENTZIA ATALA	LANBIDE MODULUA
UC1402_2: soinu-produkzioetan ekipamendua instalatu, muntatu, desmuntatu eta mantentzea	1298. Soinu-tresneriaren instalazioa eta muntaia
UC1403_2: soinu-produkzioetan zuzeneko nahasketa-, edizio- eta grabazio-eragiketetan laguntzea UC1404_2: soinu-produkzioetan mikrofonoak kokatu eta norabidetzea	1299. Soinua jasotzea eta grabatzea
UC1403_2: soinu-produkzioetan zuzeneko nahasketa-, edizio- eta grabazio-eragiketetan laguntzea	1300. Soinuaren kontrola, edizioa eta nahasketa
UC1396_2: zuzeneko musika eta irudien bidezko animazio-saioetarako azpiegitura prestatu eta programazio- eta sustapen-lanetan laguntzea	1301. Bideo disc-jockey saioak prestatzea
UC1397_2: zuzeneko musika bidezko animazio-saioak egin, luminoteknia, antzezpena eta irudiak integratuz	1302. Zuzeneko musika-animazioa
UC1398_2: zuzeneko irudi bidezko animazio-saioak egin, luminoteknia, antzezpena eta musika integratuz	1303. Zuzeneko ikus-animazioa
UC1398_2: zuzeneko irudi bidezko animazio-saioak egin, luminoteknia, antzezpena eta musika integratuz UC0928_2: irudiak informatika-aplikazio bidez digitalizatzea eta tratatzea	1304. Irudiaren hartze eta edizio digitala

2. atala.– Egiaztatzeari begira titulu honetako lanbide-moduluei dagozkien konpetentzia-atalak honako hauek dira:

LANBIDE MODULUA	KONPETENTZIA ATALA
1298. Soinu-tresneriaren instalazioa eta muntaia	UC1402_2: soinu-produkzioetan ekipamendua instalatu, muntatu, desmuntatu eta mantentzea
1299. Soinua jasotzea eta grabatzea	UC1404_2: soinu-produkzioetan mikrofonoak kokatu eta norabidetzea
1299. Soinua jasotzea eta grabatzea 1300. Soinuaren kontrola, edizioa eta nahasketa	UC1403_2: soinu-produkzioetan zuzeneko nahasketa-, edizio- eta grabazio-eragiketetan laguntzea
1301. Bideo disc-jockey saioak prestatzea	UC1396_2: zuzeneko musika eta irudien bidezko animazio-saioetarako azpiegitura prestatu eta programazio- eta sustapen-lanetan laguntzea
1302. Zuzeneko musika-animazioa	UC1397_2: zuzeneko musika bidezko animazio-saioak egin, luminoteknia, antzezpena eta irudiak integratuz
1303. Zuzeneko ikus-animazioa	UC1398_2: zuzeneko irudi bidezko animazio-saioak egin, luminoteknia, antzezpena eta musika integratuz
1304. Irudiaren hartze eta edizio digitala	UC0928_2: irudiak informatika-aplikazio bidez digitalizatzea eta tratatzea